Osakidetza




# *LIBURUZAINA*

## GALDERAK

**1.- Aukera hauetako zein EZ da sartzen Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen xedean?**

a) Titulartasun publikoko dokumentuen kudeaketa integrala, tratamendua eta artxiboen bidezko antolaketa.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarearen konfigurazioa, babesa eta zaintza.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo pribatuei aplikatu beharreko zerga-araubidearen arauketa.
d) Zehapen-araubidea.

**2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean xedatutakoaren arabera, legearen aplikazio-eremuari buruzko baieztapen hauetatik zein da OKERRA?**

a) Legea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari aplikatzen zaio, Administrazio Orokorra eta sektore publiko instituzional autonomikoa barne.
b) Legea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta sektore publiko instituzionalari aplikatzen zaie.
c) Legea Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahalak egikaritzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuei aplikatzen zaie.
d) Legea ez zaio Euskal Herriko Unibertsitateari aplikatzen, ez eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere.

**3.- Baliozkoak izateko, zer baldintza bete behar dituzte titulartasun publikoko dokumentuek, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean xedatutakoaren arabera?**

a) Kautotasuna, osotasuna, fidagarritasuna, eskuragarritasuna, testuingurua eta trazabilitatea.
b) Kautotasuna, konfidentzialtasuna, publikotasuna, elkarreragingarritasuna eta arau-hierarkia.
c) Kautotasuna, osotasuna, fidagarritasuna, trazabilitatea eta segurtasun juridikoa.
d) Kautotasuna, osotasuna, fidagarritasuna, eskuragarritasuna, testuingurua, trazabilitatea eta elkarreragingarritasuna.




**4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, hauek osatzen dute dokumentu-ondarea:**

a) Sortu zirenetik berrogeita hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duten titulartasun publiko eta pribatuko dokumentu guztiak.
b) Sortu zirenetik hirurogeita hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duten titulartasun publiko eta pribatuko dokumentu guztiak.
c) Titulartasun publiko zein pribatuko dokumentu guztiak, hogeita bost urteko antzinatasuna bete ondoren.
d) Titulartasun publikoko dokumentu guztiak, berrogeita hamar urteko antzinatasuna bete ondoren, eta hirurogeita hamar urtetik gorako dokumentu pribatuak.

**5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, honako hauek joko dira onura publikoko edo gizarte-intereseko arrazoitzat dokumentu-ondareko ondasunak desjabetzeko:**

a) Ondare horren defentsa eta babesa.
b) Legeak ez du arautzen dokumentu-ondareko ondasunen desjabetzea; arau-hauste larrietarako isun ekonomikoak soilik ezartzen ditu.
c) Dokumentu-ondarea osatzen duten ondasunen gaineko eskubideen jabeek, edukitzaileek edo titularrek ez betetzea lege honetan ezarritako kontserbazio- eta zaintza-eginbeharrak; hala bada, Administrazioak ahalmena izango du ondasun horiek osorik edo partzialki desjabetzeko.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, zer erakundek du eskumena profil profesionalen erreferentziazko katalogoa proposatzeko, maila eta funtzio bakoitzerako eskatutako titulazioa eta gaitasunak adierazita?**

a) Eusko Jaurlaritzak.
b) Udalek.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluak.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeak.

**7.- Artxibo-sistema publikoetako pertsonalari dagokionez, adierazi baieztapen hauetatik zein den OKERRA, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean ezarritakoaren arabera:**

a) Artxibo-sistema publikoek pertsonal tekniko gaitua eduki beharko dute, legeak esleitzen dizkien funtzioak betetzeko moduan eta kopuruan.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluak profil profesionalen katalogo bat proposatuko du erreferentzia gisa, maila eta funtzio bakoitzerako behar diren titulazioak eta gaitasunak adierazita.




c) Langileak behartuta daude beren lanpostua dela-eta ezagutzen dituzten datuen eta informazioen konfidentzialtasuna gordetzera. Betebehar horrek artxibo-sistema publikoarekin duten harremana amaitu ondoren ere iraungo du, betiere datuak babesteko araudia errespetatuz.

d) Langileak behartuta daude beren lanpostua dela-eta ezagutzen dituzten datuen eta informazioen konfidentzialtasuna gordetzera, artxibo-sistema publikoarekin duten harremanari eusten dioten bitartean, betiere datuak babesteko araudia errespetatuz.

**8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, funtzio hauetako zein EZ dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Artxibo Nagusiari?**

a) Amaitutako espedienteen transferentzia gainbegiratzea eta kontrolatzea, eta dokumentuen zaintza-katea bermatzea.

b) Dokumentuak zaintzea, antolatzea eta kontserbatzea, kontserbazio- eta irispide-egutegien arabera.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboekin zerikusia duten aurrekontuak onartzea.

d) Kontserbazio iraunkorreko espedienteak eta dokumentuak Euskadiko Artxibo Historikora transferitzea, haien izapideak amaitu eta gehienez berrogeita hamar urteko epean.

**9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean xedatutakoaren arabera, Euskadiko Artxibo Historikoari buruzko baieztapen hauetatik zein da OKERRA?**

a) Artxiboen eta dokumentu-ondarearen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari atxikita dago.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondareko dokumentuak edo dokumentu izan daitezkeenak kudeatzea, kontserbatzea eta zabaltzea du xede.

c) Kontserbazio iraunkorreko espedientetzat eta dokumentutzat jotakoak Euskadiko Artxibo Nagusira transferitzen ditu, haien izapideak amaitu eta gehienez berrogeita hamar urteko epean.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Artxibo Nagusitik transferitutako dokumentu-funtsak kudeatu eta kontserbatzen ditu.

**10.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-ondarea osatzen duten ondasunak zaintzen dituzten artxibo pribatuak:**

a) Ez dute inolako betebeharrik dokumentuak kontserbatzeari dagokionez, elizaren artxiboak izan ezik.

b) Kontserbazio-betebeharren mende daude eta dokumentuetarako irispidea bermatu behar dute, legeak ezartzen duen moduan, eta aldez aurretik, idatziz eta modu frogagarrian jakinarazi behar diote Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari dokumentu-ondareko dokumentuen edozein besterentze, lekualdatze edo irteera, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan edo lurraldetik kanpo egiten diren adierazita.




c) Ez daude behartuta beren funtsen kontsulta erraztera.
d) Edozein legezko betebeharretatik kanpo daude, legeak artxibo publikoetarako arauak bakarrik ezartzen baititu.

**11.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen 39. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoan titulartasun publikoko dokumentuak eskuratzeko eskubideari buruz xedatutakoaren arabera, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?**

a) Pertsona orok du titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izateko eskubidea, hala norberaren izenean nola beste pertsona baten ordezkari gisa.
b) Irispide-eskubidea baliatzeko, arrazoitu egin beharko da beti, eta arau batean oinarritu beharko da.
c) Irispidea mugatua izan daiteke dokumentuek bereziki babestutako datu pertsonalak, sekretu komertzialak edo informazio sailkatua badituzte.
d) Dokumentuak datu pertsonal babestuak dituen dokumentu-ondarea direnean, ezin izango dira kontsultatu berariazko baimenik gabe edo 25 edo 50 urte igaro arte, dagokionaren arabera.

**12.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean xedatutakoaren arabera, kasu hauetako zeinetan EZIN da ukatu titulartasun publikoko dokumentuetarako irispidea?**

a) Dokumentuek bereziki babestutako datu pertsonalak dituztenean eta ukitutako pertsonen berariazko baimenik ez dagoenean, edo 25 urte igaro ez direnean pertsona hil zenetik, edo 50 urte, data ezezaguna bada.
b) Dokumentuek sekretu komertzialak, industrialak, zientifikoak edo jabetza intelektualak babestutako informazioa dutenean.
c) Dokumentuak izapidetze-fasean daudenean.
d) Dokumentuek sekretu ofizialei buruz indarrean dagoen legeriaren arabera sailkatutako informazioa jasotzen dutenean eta sailkapena ezeztatu ez denean.

**13.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera, hauetako zein EZ da Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-sistemetan zaindutako titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izatea eskatzen duten eskatzaileen eskubidea?**

a) Beren eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea, eskubideak behar bezala baliatu ahal izateko.
b) Eskatutako dokumentuak kontsultatzeko eskubidea, kontserbazio- eta irispide-egutegien arabera edo legezko epeen arabera.
c) Kontsultatutako edo kopiatutako dokumentuen euskarria, formatua edo edukia aldatzeko eskubidea.
d) Dokumentuetarako irispidea edo horiek erreproduzitzea ukatzeko arrazoiak eta aplikatu beharreko tasak ezagutzeko eskubidea.

**14.- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legeak honako hau tipifikatzen du arau-hauste astun gisa:**

a) Dokumentu-ondareko dokumentuen eskualdatzeen erregistro-liburua ez formalizatzea.
b) Legean ezarritako baldintzetan dokumentuetarako irispide-eskubidea justifikaziorik gabe ukatzea.
c) Legean ezarritako baldintzetan irispidea izateko eskubidea baliatzeko oztopoak jartzea.
d) Laguntzeko betebeharra ez betetzea.

**15.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, ekintza hauetako zein da arau-hauste larria?**

a) Material bibliografikoak gaizki tratatzea edo hondatzea.
b) Ikertzaileei Euskadiko Bibliografia Gordailua osatzen duten ondasunetarako irispidea arrazoi justifikaturik gabe eragoztea.
c) Mailegatutako materiala galtzea.
d) Liburutegiko langileek hala eskatuta, erabiltzaile izaera egiaztatzeari uko egitea.

**16.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, lankidetza-harremanen bidez liburutegi-zerbitzuak emateko gai diren erakundeen multzoa da Euskadiko liburutegi-sistema. Adierazi legeari buruzko esaldi hauetatik zein den GEZURRA:**

a) Euskadiko Liburutegi Sistemaren parte dira, besteak beste, irakurketa publikoko sarea, Euskadiko Liburutegia, unibertsitate-liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta ikastetxe publikoetakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende dauden baina irakurketa publikoko sarean sartuta ez dauden liburutegiak eta Liburutegien Aholku Batzordea.
b) Legeak gomendio bat egiten du Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiek erreferentzia-obra nagusiak kontsultatzeko eta liburuak eta bestelako materialak norbanakoei mailegatzeko zerbitzuak doan eman behar dituztela adierazteko, baina legean ez dago doakotasun-printzipiorik ezarrita; aitzitik, zehazten da hori egoera ekonomikoak ahalbidetzen duenaren eta agintari eskudunek ezartzen dutenaren araberakoa izango dela.
c) Euskadiko Liburutegia Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta euskal ondare digitalaren egoitza izango da.
d) Euskadiko Bibliografia Gordailua Euskadiko eta euskararen hizkuntza-esparruko bibliografia-ekoizpen osoaren aleak eta euskararekin edo euskal kulturarekin erlazionatuarenak jaso eta kontserbatzeko eratutakoa da. Gordailua Euskadiko Liburutegian edo legea garatzeko arauetan zehaztutako gordailu-zentroetan eratuko da.

**17.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, zein da legearen xedea?**

a) Euskadiko bibliografia-gordailua arautzea eta Euskadiko Liburutegia sortzeko oinarriak ezartzea.
b) Euskadiko Liburutegi Sistemaren funtsezko oinarriak eta egiturak ezartzea, liburutegi-zerbitzuak eta irakurketarako eta informaziorako irispidea izateko eskubidea bermatzea, eta Euskadiko bibliografia-gordailua arautzea.
c) Administrazioen eta erakundeen arteko lankidetza sustatzea, Euskadiko liburutegi publikoen koordinazioa hobetzeko.
d) Euskadiko ondare digitala biltzea, kontserbatzea eta zabaltzea.

**18.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, zer da liburutegia?**

a) Irakurketarako eta kontsultarako bilduma antolatuetara irispide librea eskaintzen duen kultura-zerbitzua.
b) Materialen eta informazio-iturrien multzo antolatua, euskarria edozein dela ere, helburua horiek biltzea, kontserbatzea eta informaziorako, ikerketarako, heziketarako edo aisiarako erabiltzea erraztea izanik.
c) Pertsonen, bildumen eta eraikinen multzoa, komunitateari informazioa ezagutza bihurtzen laguntzeko.
d) Administrazio publiko batek kudeatutako dokumentu-bildumak dituen eraikin edo espazio irisgarria.

**19.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legean xedatutakoaren arabera, zein da Euskadiko Liburutegi Sistemak eskaintzen dituen liburutegi-zerbitzuen plangintza aurrera eramateko eskumena duen erakundea?**

a) Euskadiko Liburutegia.
b) Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorrean eskudun den saila.
c) Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea.
d) Euskadiko Bibliografia Zentroa.

**20.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, Euskadiko irakurketa publikoko sarea:**

a) Erabilera publiko orokorreko liburutegi-zerbitzuen multzo antolatua da.
b) Udal-liburutegi publikoen sareak bakarrik osatzen du.
c) Kanpoan uzten ditu ikastetxe publikoetako liburutegiak.
d) Eusko Jaurlaritzaren mendeko liburutegiek soilik osatzen dute.




**21.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, liburutegi bat Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartzen bada:**

a) Erakundeak liburutegiaren titulartasuna galtzea dakar.
b) Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumena duen sailak irakurketa publikoa bultzatzeko ematen dituen zerbitzuetara irispidea izateko eskubidea ematen du.
c) Ez dira sartzen langileen etengabeko prestakuntzari eta birziklatze profesionalari laguntzeko zerbitzuak.
d) Bildumak Euskadiko Bibliografia Zentrora transferitzea dakar.

**22.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, hauetatik zein EZ da liburutegien erabiltzaileen betebeharra?**

a) Doakoak ez diren zerbitzuak ordaintzea.
b) Mailegatutako liburuak eta, oro har, materialak maileguan hartu zituzten baldintza berberetan itzultzea.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.
d) Erabiltzaile-izaera egiaztatzea, hala eskatzen denean.

**23.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen 8. artikuluan informatzeko betebeharrari buruz xedatutakoaren arabera, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

a) Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiek kulturaren alorreko eskumena duen sailari jakinarazi behar dizkiote beren langileei, funtsei, aurrekontuei eta instalazioei buruzko datuak, sistemaren plangintza eta koordinazioa errazteko.
b) Balio bereziko ondare- edo bibliografia-funtsen berri baino ez diote eman behar liburutegiek kulturaren alorrean eskumena duen sailari.
c) Kulturaren alorrean eskumena duen sailak hala eskatzen duenean bakarrik bidali behar dute informazioa liburutegiek.
d) Liburutegiek beren instalazioei eta publikoari irekitako ordutegiei buruzko datuak bakarrik jakinarazi behar dizkiote kulturaren alorreko eskumena duen sailari.

**24.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legean xedatutakoaren arabera, eta zein arlotan jarduten duten kontuan hartuta, Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiak eta liburutegi-zerbitzuak mota hauetakoak izan daitezke:**

a) Hiri-liburutegi nagusiak, herrietako liburutegiak, liburutegi-zerbitzu mugikorrak eta irakurketa publikoa bultzatzeko zentroak.
b) Liburutegi publikoak eta pribatuak.
c) Liburutegi publikoak, unibertsitatetakoak eta ikastetxeetakoak, liburutegi espezializatuak, eta, irakurketa publikoko sareko kide izan gabe, hitzarmen bidez Euskadiko Liburutegi Sisteman sartzen direnak.
d) Orokorrak edo espezializatuak, funtsen arabera.

**25.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, hauetako zein EZ da Euskadiko Liburutegiaren eginkizunetako bat?**

a) Euskal bibliografia-ondarea eskuratu, kontserbatu eta zabaltzeko erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.
b) Ondare digitalaren alorrean lankidetza-programak sustatzea.
c) Irakurketa sustatzeko eta informazioaren erabilerarako beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak har daitezen proposatzea.
d) Beste dokumentu-sistema batzuekin lankidetzan arituz, liburutegi- eta dokumentu-teknikei buruzko ikerketen aitzindari izatea.

**26.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, hauetatik zein EZ da bibliografia-lana?**

a) Hainbat liburukitan argitaratutako liburuxkak.
b) Musika-partiturak.
c) Grabatu artistikoak dituzten merkataritza-izaerako inprimakiak.
d) Bulegoko materiala.

**27.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legean xedatutakoaren arabera, adierazi zein erakundek duen eskumena ondasun jakin batzuk Euskadiko Bibliografia Gordailuan utzi beharrari buruzko zalantzak argitzeko:**

a) Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorrean eskudun den sailak.
b) Euskadiko Bibliografia Zentroak.
c) Euskadiko Liburutegiak.
d) Liburutegien Aholku Batzordeak.

**28.- Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, erabiltzaile bat liburutegitik kanporatzen bada zerbitzuan ordena larriki hausteagatik:**

a) Isunarekin zigortutako arau-haustetzat joko da.
b) Erabiltzaile-eskubideak aldi baterako etengo zaizkio.
c) Ez da zehapentzat joko.
d) Euskadiko Liburutegi Sistemako kide izateak dakartzan onurak etengo dira.

**29.- 2/2018 Errege Lege Dekretuak, apirilaren 13koak, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duenak, harmonizatu egiten ditu Europar Batasuneko estatu kideetako honako hauei buruzko araudi nazionalak:**

a) Legeriaren datu-baseak.
b) Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeak.
c) ISBN agentziak.
d) Lege-gordailua.




**30.- Zenbat irauten dute obraren ustiapen-eskubideek?**

a) Egilearen heriotzaren ondorengo berrogeita hamar urteetan.
b) Egilearen bizi osoan eta haren heriotzaren edo heriotza-deklarazioaren ondorengo hirurogeita hamar urteetan.
c) Hamar urte, lehenengo argitalpen-kontratua sinatzen denetik aurrera.
d) Egilea bizirik dagoen bitartean edo heriotza-deklarazioa eman arte.

**31.- Noiz dago liburutegi bat egile-eskubideek babestutako obren mailegua ordaintzetik salbuetsita?**

a) Titulartasun ofizialeko museo bateko liburutegia denean.
b) Probintziako liburutegia denean.
c) Ikerketa-zentro bateko liburutegia denean.
d) 5.000 biztanletik beherako udalerri bateko liburutegi publikoa denean.

**32.- Jabetza intelektualari dagokionez (arlo horretan indarrean dagoen Espainiako legeria kontuan hartuta), baieztapen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?**

a) 23/2006 Legeak kanon bat ezartzen du euskarri digitaletarako. Zenbateko finko bat da, egile-eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek kobratzen dutena, kontsumitzaileak jabetza intelektualari lotutako materialen kopia pribatuak egitearen konpentsazio gisa.
b) 23/2006 Legeak Jabetza Intelektualaren Batzordea ezartzen du arbitraje-organo gisa, Gobernuaren mendekoa, erakundeen arteko gatazkak konpontzeko eta egileen eta erabiltzaileen eskubideen urraketen aurka jarduteko.
c) 23/2006 Legeak aldatu egiten du irakaskuntzarako aipuen eta ilustrazioen 32. artikuluaren idazketa, eta ezartzen du hezkuntza arautuko irakasleek egilearen baimena beharko dutela beti erreprodukzio, banaketa eta komunikazio publikoko ekintzak egiteko, bai obra-zati txikiak edo izaera plastiko edo fotografikoko obra isolatuak badira, bai testuliburuak eta unibertsitateko eskuliburuak badira.
d) 12/2017 Errege Lege Dekretuak ezartzen du kopia pribatuagatiko konpentsazioa (25. artikulua) ordaintzetik salbuetsita egongo direla sektore publikoko erakundeek egindako erreprodukziorako ekipo, tresna eta euskarri materialen erosketak, legeak ezarritakoari jarraiki eta dagokion jabetasun-ziurtagiria eskatuta.

**33.- Egile-eskubideei dagokienez, eta sarbide irekiko mugimenduaren testuinguruan, copyright-aren ordez copyleft-aren aukera dago (“eskubide erreserbatu batzuk”), zeina lizentzia libreekin batera agertu baita, hala nola Creative Commons lizentziak. Egileek, obra jendarteratzeko unean, erabilera-baldintzak aukeratzen dituzte, hau da, zer eskubide erreserbatu nahi dituzten eta zer erabilera baimenduko dituzten. Adierazi honako hauetatik zein EZ dagokion Creative Commons lizentzia-mota bati:**

a) CC BY lizentzia (Aitortu).
b) CC BY-NC-NY lizentzia (Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe).
c) CC BY-SA lizentzia (Aitortu-PartekatuBerdin).
d) CC BY-NC-SA lizentzia (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin).




**34.- Murrizketa-maila kontuan hartuta (murrizketa-maila txikienetik handienera), zer aukera dago behar bezala ordenatuta?**

a) CC BY ; CC BY-ND ; CC BY-NC ; CC BY-SA ; CC BY-NC- SA ; CC BY-NC-ND.
b) CC BY ; CC BY-SA ; CC BY-ND ; CC BY-NC- SA ; CC BY-NC ; CC BY-NC-ND.
c) CC BY ; CC BY-ND ; CC BY-SA ; CC BY-NC ; CC BY-NC- SA ; CC BY-NC-ND.
d) CC BY ; CC BY-SA ; CC BY-ND ; CC BY-NC ; CC BY-NC- SA ; CC BY-NC-ND.

**35.- JILren arabera, zerk sortzen ditu jabetza intelektualeko eskubideak?**

a) Obra Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratzeak.
b) Obraren dibulgazio publikoak.
c) Obra sortzeak, inolako erregistrorik eta formaltasunik gabe.
d) Obraren lege-gordailuak.

**36.- Creative Commons lizentziaren konbinazio hauetako zein EZ DA EXISTITZEN?**

a) CC BY-NC-SA.
b) CC BY-SA-ND.
c) CC BY-NC-ND.
d) CC BY-NC.

**37.- 1987ko abenduaren 7a baino lehen hildako egileen obrak babesteko epe orokorra honako hau da:**

a) 50 urte post mortem auctoris.
b) 60 urte post mortem auctoris.
c) 70 urte post mortem auctoris.
d) 80 urte post mortem auctoris.

**38.- Zein da Creative Commons lizentzia hauen arteko alde nagusia: “CC BY-SA” eta “CC BY-ND”?**

a) SAk obra eratorriak baimentzen ditu, betiere lizentzia bera mantentzen bada; NDk ez du baimentzen obra eratorriak banatzea.
b) NDk merkataritza-erabilera baimentzen du, eta SAk ez.
c) SAk egilea aitortzera behartzen du, eta NDk ez.
d) ND softwarerako da, eta SA literatura-lanetarako.

**39.- Zer da “obra umezurtza”?**

a) Obraren egilea ondorengorik gabe hiltzea.
b) Eskubideen titularrak identifikatuta ez dituen obra, edo, identifikatuta egotekotan, lokalizatuta ez daudenak, arretaz bilatu arren.
c) Jabari publikora igaro den obra, beharrezko denbora pasatu delako.
d) Lege-gordailurik ez duen obra.

**40.- Zer da sarbide irekiko “ibilbide berdea”?**

a) Irispide irekiko aldizkari batean zuzenean argitaratzea.
b) Artikuluak prozesatzeko tasa bat (APC) ordaintzea, obra librea izan dadin.
c) Egileak bere lanaren bertsio bat artxibatzea gordailu instituzional edo tematiko batean.
d) Formatu elektronikoko liburu batean argitaratzea.

**41.- Creative Commons BY-NC-ND lizentzia baten pean, zer ekintza dago baimenduta?**

a) Abesti bat sortzea jatorrizko obraren zati bat nahastuz (remix).
b) Obra irabazteko asmorik gabeko aurkezpen akademiko batean erabiltzea, betiere egilea aipatuta.
c) Lanaren kopiak saltzea online denda batean.
d) Testua beste hizkuntza batera itzultzea eta argitaratzea.

**42.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legearen 37. artikuluaren arabera (2022ko aldaketaren ondoren), “sarbide irekia” (Open Access) kontzeptuak ikerketa-jarduera nagusiki funts publikoekin finantzatzen duten langileak behartzen ditu:**

a) Nahitaez ordainpeko aldizkarietan argitaratzera (urrezko bidea).
b) Onartutako azken bertsioaren kopia bat sarbide irekiko gordailu batean uztera, 6 hilabete igaro baino lehen.
c) Emaitzen azken bertsioa sarbide irekiko gordailu batean argitaratzera, argitalpen-datan.
d) 6 hilabeteko enbargoaren ondoren, onartutako bertsioaren kopia bat sarbide irekiko gordailu batean uztera, artikulua atzerriko aldizkari batean argitaratu denean izan ezik.

**43.- Zer esan nahi du Creative Commons lizentzia bateko “berdin” (=) ikonoak?**

a) Berdin partekatu behar dela (SA).
b) Ez dela obra eratorririk onartzen (ND).
c) Edukia doakoa dela.
d) Egilea anonimoa dela.

**44.- Adierazi osasun-zientzietan espezializatutako liburutegien antolaketari eta zerbitzuei buruz baieztapen hauetatik zein den OKERRA:**

a) Liburutegi horiek informazio-iturri eta bilduma hibridoak dituzte, eta horiek kontserbazio-premia berriak sortzen dituzte, bai eta autentifikazio-sistema berriak garatzea ere, erabiltzaileen sarbidea kontrolatzeko.
b) Liburutegien eta osasun-zientzietako informazio-zentroen arteko lankidetza sendotu da, FECYT UpToDate baliabidera harpidetzearen bidez, hiru urtetarako.
c) Krisi ekonomikoa liburutegien jarduerari eragiten ari zaio, baliabideak erostera bideratutako aurrekontuak murriztu direlako.
d) Autonomia-erkidego guztietako zentroen arteko lankidetza dago, horretarako hainbat tresna baliatuz, hala nola katalogo kolektiboak.

**45.- Ospitaleetako osasun-zientzien liburutegiek beste liburutegi batzuetatik bereizten dituzten ezaugarriak dituzte. Ezaugarri hauetatik zein EZ DAGOKIO?**

a) Zentro horien helburu nagusia da erabiltzaileei behar duten informazio zientifikoa eta teknikoa ematea.
b) Liburutegiak laguntza emango du erabiltzaileek asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak egin ahal izan ditzaten.
c) Informazioan eta teknologian izandako aldaketak osasun-arreta aldatzen ari dira, erabakiak hartzeko informazioa integratuz eta etengabe ikastea bultzatuz.
d) Liburutegiak laguntza emango du erabiltzaileek beren irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera garatu ahal izan dezaten, baina ez du laguntzarik emango jarduera asistentzial edo klinikorako, hori beste instantzia batzuen eskumena baita.

**46.- Zerbitzu hauetatik, zein EZ DA liburutegiko oinarrizko zerbitzu bat?**

a) Norbanakoei liburuak eta bestelako materialak maileguan uztea.
b) Prozesu teknikoen gelarako sarbidea.
c) Erreferentziako lan nagusiak, argitalpen monografikoak eta seriatuak, eta dokumentu elektronikoak, ikus-entzunezkoak eta multimediak aretoan bertan irakurtzea eta kontsultatzea.
d) Erabiltzaileentzako prestakuntza-programak.

**47.- Carlos III.a Osasun Institutuko Osasun Zientzien Liburutegi Nazionalaren (BNCS) eginkizunen artean dago:**

a) Administrazio publikoaren aldizkako argitalpenen katalogo kolektiboa kudeatzea.
b) Pazienteetan zuzenean esku hartzeko protokolo klinikoak garatzea Carlos III.a Osasun Institutuko (ISCIII) ikerketa-unitateen barruan.
c) Datu-baseak mantentzea eta eguneratzea Espainian osasunari eta medikuntzari buruz sortutako dokumentazio zientifikoarekin.
d) Osasun Ministerioaren jurisprudentzia medikoaren datu-basea kudeatzea.




**48.- Zein da Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko liburutegiaren helburu nagusia?**

a) Euskal Herriko Ospitaleko Liburutegien Gordailu Instituzionala mantentzea.
b) Zentroko langile guztiei beren asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera garatzeko behar duten informazio zientifikoa eta teknikoa ematea.
c) Dokumentuak eskuratzeko zerbitzua, eraginkorra eta azkarra, PrestBib programaren kudeaketa eraginkorraren bidez.
d) Egile-adierazle bakarretan, ResearchGate eta RORKIZ-en adierazle profilak sortzea.

**49.- Osasun-liburutegien egoera historiko eta estrukturalari dagokionez, Calvo Ferrerrek (2014) deskribatutako "erretratuan", egiturazko zer ahulezia nabarmentzen da Espainiako osasun-zientzietako liburutegien iraunkortasunerako mehatxu nagusi gisa?**

a) Ez dago politika argirik osasun-sistema publikoaren eta, beraz, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren mendeko osasun-zientzien liburutegiei dagokienez.
b) Isolamendu instituzionala eta erabakiak hartzeko organigrametan integraziorik eza.
c) Sarbide irekiko plataformetarako migrazio masiboa.
d) Administrazioko langile gehiegi eta teknikari gutxiegi egotea.

**50.- Noiz hasi ziren agertzen Espainiako ospitale-liburutegiak, osasun-zerbitzuak agertzeagatik, ikerketa garatzeagatik eta osasun-irakaskuntzaren bilakaeragatik?**

a) XIX. mendearen lehen erdian.
b) XX. mendearen bigarren erdian.
c) XVIII. mendearen bigarren erdian.
d) XIX. mendearen bigarren erdian.

**51.- Erakundearen eta erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta, zer zerbitzu eman behar ditu ospitaleko liburutegi batek?**

a) Erreferentzia eta Informazio Zerbitzua. Unean uneko oinarrizko kontsultei erantzutea.
b) Informazio Zientifikoko Aholkularitza Zerbitzua. Profesionalei bilaketa bibliografikoak egiteko iturri egokienen berri ematea.
c) Adituen bilaketak. Bilaketa bibliografikoak egitea kontsulta espezializatuetarako, eta kontu pertsonalak eta alerta bibliografiko espezifikoak sortzea, profesionalek eskatuta.
d) Aurreko guztiak zuzen daude.

**52.- Nola definituko zenuke ospitale-liburutegi bat?**

a) Ospitale barruko liburutegi espezializatuak dira, eta irakurketarako, aisiarako eta kulturarako irispidea ematen diete ospitaleratutako pertsonei, haien senideei eta osasun-langileei.
b) Osasun-zientzietan espezializatutako liburutegiak dira, eta zerbitzu ematen dioten erabiltzaileengatik (profesional eta osasun-ikasleak) eta ospitale batean egoteagatik bereizten dira.
c) Komunitateak finantzatutako erakundea da, guztiei irekia, diskriminaziorik gabe, eta informaziorako, kulturarako eta hezkuntzarako doako irispide librea eskaintzen du.
d) Liburutegi espezializatua da, eta helburu nagusia irakaskuntzari, ikaskuntzari eta ikerketari laguntzea da, informazio-baliabideak hainbat euskarritan eskuratuz, kudeatuz eta zabalduz.

**53.- Liburutegi espezializatuek eskaintzen dituzten zerbitzuen ezaugarriak hauek dira:**

a) Dokumentuen tratamendu sakona, automatizazio-maila handia eta beste informazio-unitate batzuekiko lankidetza estua.
b) Monografia teknikoen kudeaketa esklusiboa eta liburutegien arteko maileguaren murrizketa, erakunde nagusiaren dokumentu-ondarea babesteko.
c) Katalogazio- eta sailkapen-zerbitzu teknikoak zentralizatzea estandar unibertsalei jarraituz, kultura orokorrerako irispide librea eta doakoa errazteko.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**54.- Zein uste da izan daitekeela Espainiako ospitale-liburutegien aurrekaria?**

a) Eliza-ospitaleetako liburutegiak.
b) Errege-ospitaleetako liburutegiak.
c) Lehen aurrekaria Marinako ospitaleak dira.
d) Errege Elkargoetako liburutegiak.

**55.- Zer zerbitzu prospektibo eman behar ditu ospitale-liburutegi batek?**

a) Fitxa fisikoko katalogoak formatu digital bihurtzea edo makina bidez irakur daitekeen formatu bihurtzea (adibidez, MARC21).
b) Besteak beste: informazio-alerta eta prestakuntza, eskura dauden baliabideak hobeto aprobetxatzeko.
c) Bildumak osatzeko beharrezkoak diren deskatalogatutako edo antzinako material bibliografikoak erosteko edo bilatzeko prozesua.
d) Bitarteko-bilaketa egitea (liburuzain espezializatuen bidez) datu-baseetan, gai bati buruzko ezagutzaren egoeraren berri izateko data zehatz batera arte.

**56.- Zer neurtzen du ROIk (inbertsioaren itzulkina) liburutegien arloan?**

a) Liburutegi-zerbitzuek sortutako balio ekonomiko eta soziala, haien funtzionamenduaren kostuari dagokionez.




b) Tokiko katalogoen automatizazioan oinarritutako "1.0 Liburutegi" batera igarotzea.
c) Pazienteei prestakuntza ematea, laguntza profesionalik gabe beren medikazioa kudeatu ahal izan dezaten.
d) Ospitaletik kanpoko pertsonak liburutegira sartzea kontrolatzea.

**57.- Calvo Ferrerrek (2015) osasun-zientzietan espezializatutako liburutegiek Espainian duten egoerari buruz egindako analisiaren esparruan, ondorio orokor hau ateratzen du, besteak beste:**

a) "Ikaskuntzarako eta Ikerketarako Baliabideen Zentro" (CRAI) bihurtzea, non espazio fisikoak ez duen garrantzirik.
b) "Nonahiko liburutegi" bateranzko trantsizioa, funtzio nagusia bitartekaritza proaktiboa eta euskarri teknikoa izanik erabiltzailearen lan-fluxuan.
c) Tokiko katalogoen automatizazioan oinarritutako "1.0 Liburutegi" batera igarotzea.
d) Autonomia-erkidegoetako osasun-zientzien liburutegien sareak indartzea.

**58.- Zer kudeatzen du, besteak beste, Carlos III.a Osasun Institutuko Osasun Zientzien Liburutegi Nazionalak (BNCS)? Aukeratu erantzun zuzena.**

a) Patente bioteknologikoen erregistro zentralizatua eta Sareko Ikerketa Biomedikoko Zentroek (CIBER) egindako aurkikuntzen jabetza intelektuala.
b) Osasun Sistema Nazional osoan Osasun Zientzietako espezialistak (BAME, BAEE, BAFE) prestatzeko irakaskuntza-unitateak akreditatzea.
c) SciELO España plataforma.
d) Aurreko guztiak zuzen daude.

**59.- Osasun-zientzien argitalpenen katalogo kolektibo nazionalari (CNCS) dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

a) Katalogo kolektibo mugatua da, eta ez dute autonomia-erkidego guztiek parte hartzen.
b) Katalogoaren % 50a finantzatu dute 17 autonomia-erkidegoek eta Carlos III.a Osasun Institutuak, eta elkarlanean koordinatzen dute.
c) Katalogo kolektibo publiko eta irekia da, eta edukiak ospitaletako liburutegiei, osasun-kontseilaritzei, unibertsitateei, laborategiei eta ikerketa-zentroei dagozkie.
d) Katalogoak ez du aurreikusten liburutegien arteko mailegu-tresnak eta dokumentuak lortzeko aukera integratzea.

**60.- Liburutegien arteko lankidetzaren arloan, zein da sare-sistema zentralizatuaren eta banatuaren arteko oinarrizko aldea?**

a) Sistema zentralizatuan ez da liburutegien arteko mailegurik egiten, eta banatuan bai.
b) Sistema banatuan MARC21 formatua erabili behar da nahitaez, eta zentralizatuan, berriz, Dublin Core.
c) Sare zentralizatuetan, kide batek baliabide gehienak biltegiratzen ditu eta hornitutako zerbitzuak kontrolatzen ditu; sare banatuetan, berriz, kideek antzeko baliabideak dituzte, desberdinak izan arren, eta guztiek zuzenean jotzen dute kideen baliabideetara.

d) Aurreko guztiak zuzen daude.

**61.- ISO 10161 protokoloa funtsezkoa da liburutegi-sareak garatzeko. Lankidetzaren zein prozesu espezifikori buruzkoa da?**

a) Liburutegien arteko mailegua eskatzeko protokoloa zehazteari buruzkoa.
b) Objektu digitaletarako metadatuen deskribapenari buruzkoa.
c) Dokumentu elektronikoak epe luzera gordetzeari buruzkoa.
d) XML formatuko autoritateak trukatzeari buruzkoa.

**62.- COVID-19aren pandemian, lankidetza teknikoko ekimen bat sortu zen, "AyudaBiblioteca" izenekoa. Zer ahalbidetu zuen ekimen horrek?**

a) Ospitale-liburutegietatik datu-zentroetarako aldaketa antolatzea.
b) Unibertsitateko liburutegietako langileentzako maskarak erostea.
c) Medikuntzako artikuluak ingelesetik gaztelaniara itzultzea sustatzea.
d) Indarrak batzea informazio fidagarria, ebidentzian oinarritua, egiaztatua eta kalitatezkoa bilatzeko eta modu koordinatuan biltzeko.

**63.- Nor da Osasun Zientzien Argitalpenen Katalogo Kolektibo Nazionalaren (CNCS) Batzorde Teknikoko burua?**

a) Osasuneko ministroa edo hark eskuordetzen duen pertsona.
b) Osasun Zientzien Liburutegi Nazionaleko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
c) Osasun Liburutegi Nazional Birtualeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
d) Liburutegi Nazionaleko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

**64.- Zer ezaugarri ditu liburutegien partzuergo batek?**

a) Zentroen elkarte informala da, eta liburutegien arteko doako mailegua eta bikoiztuen trukea adosten dute, biltegiratze-kostu operatiboak murrizteko eta, betiere, aurrekontu-independentziari eutsiz.
b) Tipologia bereko liburutegien sare bat da (adibidez, unibertsitateko liburutegiak soilik). Erabiltzaileen erregelamenduak bateratzen dituzte eta eskuzko katalogo kolektibo bat partekatzen dute, deribazio bidezko jatorrizko katalogazioa errazte aldera.
c) Hainbat liburutegik administrazio eta ondare aldetik bat egitea kudeaketa-unitate bakar bat osatzeko. Hala, zentro bakoitzaren erakunde-nortasuna desagertzen da, eta egoitza periferikoak dituen liburutegi zentralizatu bakar bat sortzen da.
d) Kideek plangintza, garapen-baliabideak, erantzukizunak eta eginkizun operatiboak partekatzen dituzte, eta hori guztia estatutu edo erregelamendu batzuetan jasotzen da.

**65.- Magán Walsen arabera (2004), nola sortu zen liburutegien arteko lankidetzaren ideia?**

a) Alexandriako Liburutegiko Funtsak Birkokatzeko Proiektuaren haritik. Proiektu horrek papiro-bilkariak Pergamoko Liburutegiarekin trukatzeko lehen sareak ezarri zituen, eskuz idatzitako kopiak bikoiztea saihesteko.
b) Bibliografia unibertsala kontrolatzeko beharraren haritik eta liburutegiak munduko ekoizpen inprimatuaren katalogo bakarra sortzeko federatu behar direla dioen proposamenaren haritik.
c) Egiaztatu delako ezein zentrok ezin dituela bere kabuz ase erabiltzaileen informazio-premiak.
d) Westfaliako Tratatuen haritik (1648); izan ere, lehen aldiz, estatuko artxiboen babesari eta liburutegien arteko maileguari buruzko klausulak ezarri zituzten, Europako nazioen artean bakea eta kultura sustatzeko neurri gisa.

**66.- Sánchez eta Escamillaren arabera (2020), "liburutegi-marka" kontzeptuak, Mexikoko osasun-zientzien lankidetzari begira, garrantzia izan du Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) Zientzietako Liburutegien Taldearentzat (GBC), honako hau lortzen lagundu baitu:**

a) Datu-base lokalak kudeatzeko sistemak homogeneizatzea metadatu elkarreragingarrien protokolo bakar baten pean, eskualdeko aldizkari biomedikoen indexazioan erredundantzia ezabatuz.
b) Barneko lankidetza-sareak ezartzeko beste informazio-unitate batzuei orientazioa ematen dien liburutegi-multzo gisa aitortzea.
c) Baliabide elektronikoen lizentzien erosketa zentralizatzea, nazioarteko argitaletxe zientifiko handien aurrean solaskide esklusibo gisa jardungo duen partzuergo bakar bat ezartzearen bidez.
d) Adimen artifizialean oinarritutako zaintza teknologikoko sistemak ezartzea, informazio klinikoaren eskaria aurreikusi ahal izateko sarearen profil epidemiologikoaren arabera.

**67.- Erakundeak Osasun Zientzien Argitalpenen Katalogo Kolektibo Nazionalean (CNCS) sartzeko, zenbait irizpide bete behar dira. Hautatu erantzun zuzena:**

a) CNCSn osasun-zientzietako espezializazioarekin lotutako funts bibliografikoak sartzea, eta erabiltzaileen interesekoak izatea.
b) Liburutegien arteko mailegu-zerbitzua ematea eta CNCSn adierazten diren funtsetako dokumentuak hornitzea katalogoan parte hartzen duten liburutegi guztiei.
c) CNCSn sartzeko baldintza teknikoak betetzea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

**68.- Nola definitzen da liburutegien sarea ALAren glosarioan (1988)?**

a) Zerbitzu eta programa kooperatiboen garapen zentralizaturako liburutegi-lankidetza mota berezia, ordenagailuen eta telekomunikazioen erabilera barne. Bulego nagusi bat eta pertsonala ezarri behar dira sareko programak gauzatzeko, eta ez koordinatzeko bakarrik.

b) Liburutegi-zentroen multzoa da, eta, beren autonomia juridiko eta administratibo osoari eutsiz, interkonexio telematikoko protokoloak eta bilduma partekatuak ezartzen dituzte, beren funtsak ingurune digital hibridoetan ahalik eta gehien ikusarazteko.

c) Esparru-hitzarmen baten bidez elkartutako antzeko tipologiako liburutegiak (espezializatuak, publikoak edo unibertsitatekoak), monografiak modu zentralizatuan eskuratzeko eta azken erabiltzailearentzat kosturik gabeko liburutegien arteko maileguak egiteko.

d) Dokumentuak kudeatzeko sistema banatua, katalogo independenteak kontsultatzeko aukera ematen duena bilaketa-interfaze komun baten bidez (meta-bilatzailea), elkarreragingarritasun sintaktikoa bermatuz, baina ez nahitaez semantikoa edo administratiboa.

**69.- Magán Walsen (2004) iritziz, zer baldintza tekniko bete behar da aldez aurretik liburutegien arteko lankidetzarako?**

a) TCP/IP protokoloetan soilik oinarritutako sare-arkitektura bat ezartzea, 1 Gbps-tik gorako transferentzia-tasa simetrikoarekin, metadatuak denbora errealean sinkronizatzeko.

b) Erabiltzaile-interfazeak (GUI) bateratzea W3C irisgarritasun-estandarren arabera, OPACa berdina izan dadin erakunde lankide guztietan.

c) Tresnen eta prozesuen normalizazioa.

d) Datu-base lokal guztiak nahitaez migratzea GNU lizentziaren mendeko kode irekiko liburutegi-kudeaketako sistema batera, jabetza intelektualeko gatazkak saihesteko.

**70.- Zer da liburutegien partzuergo bat?**

a) Sare lokalen sistema (LAN) bat da, hainbat erakunde nazionalen katalogo publikoen zerbitzariak (OPAC) elkarrekin konektatzen dituena. Haren eginkizun nagusia thesaurusak eta gai-goiburuak bateratzea da soilik, eskualdeko autoritateen kontrolean bikoiztasunik egon ez dadin.

b) Liburutegi-talde batek osatutako elkartea da, eta, oro har, eremu geografiko batera, liburutegi-mota batera edo gai-mota batera mugatzen da. Kide guztien baliabideak garatzeko eta partekatzeko eratzen da, eta, horretarako, liburutegi-zerbitzuak eta erabiltzaile taldeek dituzten baliabideak hobetzen ditu. Beharrezkoa da administrazioa eta prozedurak neurri batean arautzea.

c) Erakunde pribatua da, egile-eskubideei buruzko nazioarteko araudiak arautua, eta nahitaezko bitartekari gisa jarduten du obra umezurtzen liburutegien arteko maileguan. Digitalizazioagatiko erregaliak mugape geografiko jakin bateko liburutegi publikoen artean ekitatez banatzen direla bermatzen du.

d) Federatutako metadatuen hodeiko arkitektura da. Dokumentazio-zentro askok objektu digitalen gordailu (ROD) bera partekatzen dute, softwarearen lizentzia indibidualen beharra ezabatzeko, eta sarbide irekiko (Open Access) eskema baten arabera funtzionatzen du, aurrekontu instituzionalen esku-hartzerik gabe.

**71.- Liburutegietako lankidetzaren arloan, zer ezaugarri dituzte eraztun-sareek?**

a) Kideek antzeko baliabideak dituzte, baina elkarren artean desberdinak, eta ez dago nodo zentralik. Transakzioen ordena aurrez finkatuta dago.
b) Sareko kide batzuek transakzioak kontrolatzen dituzte, eta lotura gisa balio dute informazioa beste kide batzuei helarazteko.
c) Liburutegien arteko transakzioak gorantz bideratzen dira, eta asetako premiak baliabide-zentro handiago batera pasatzen dira.
d) Eraztun-sareak ez dira liburutegien arteko lankidetzaren arloko sare-egituretako bat.

**72.- Zein erakunde arduratzen da Osasun Zientzien Katalogo Nazionala sortzeaz, mantentzeaz eta etorkizunean garatzeaz?**

a) Osasun Ministerioa, Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.
b) Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE).
c) Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena (CSIC).
d) Carlos III.a Osasun Institutua.

**73.- Hauetako zein EZ DA liburutegi birtual baten oinarrizko osagaia?**

a) Dokumentu baten erreferentzia.
b) Informatikariak.
c) Erabiltzaileak.
d) Liburutegien arteko mailegua.

**74.- Zer teknologia eta baliabide aurki daitezke erreferentzia birtualeko zerbitzuetan? Aukeratu erantzun OKERRA:**

a) QR kodeak, tutorialei, gaikako gidei edo zentroen bisita gidatuei buruzko informazioa biltegiratzeko.
b) Blog eta wiki tematikoak erabiltzaile espezifikoentzat (irakasleak eta ikertzaileak, profil asistentziala duten osasun-profesionalak).
c) Doktorego-tesiak.
d) Bideo-deiak egiteko softwarea, Skype-n antzekoa, nobedadeen eta eguneratzeen berri izateko.

**75.- Zer da erreferentzia birtualeko zerbitzuen arloko “co-browsing”-a?**

a) Erreferentziako hainbat zerbitzuren artean aurrez jasotako erantzun-ereduak erabiltzea.
b) Erabiltzaile batek baino gehiagok liburuzainarekin aldi berean hitz egin ahal izatea.
c) Liburuzainek eta erabiltzaileek komunikatzen diren bitartean orrialde bera ikusteko sistemak duen gaitasuna.
d) Erreferentzia-zerbitzuen artean bilaketaren emaitzak trukatzea.




**76.- Liburu elektronikoari (e-book) dagokionez, ezaugarri hauetatik zein da GEZURRA?**

a) Streaming bidez irakur daiteke.
b) Erabiltzen den irakurgailuari "e-reader" esaten zaio.
c) AVI formatua hobesten da online kontsultatzeko.
d) Erabiltzen den de facto estandarra EPUB formatua da, doakoa.

**77.- Liburutegi birtualak liburutegiek azken urteotan izan duten eraldaketaren adibide garbia dira, eta osasun-zientzien arloa ez da aldaketa horretatik kanpo geratu. Adierazi osasun-zientzietako liburutegi birtualei buruzko baieztapen hauetatik zein den OKERRA:**

a) Liburutegi birtualak erreferentzia-puntu bakarra izan behar du, erabiltzaileek beren jarduera profesionala garatzeko behar dituzten baliabideak aurki ditzaten.
b) Liburutegiko zerbitzuak beste unitate batzuekin lankidetzan aritzea ez da funtsezkoa.
c) Finantza-baliabideak mugatuta daudenez, beharrezkoa eta gomendagarria da lizentzia nazionalak garatzea (Cochrane Liburutegirako eta UpToDaterako sarbideekin gertatu den bezala).
d) Osasun-zientzietan adituak diren liburuzainek trebetasunak izan beharko dituzte informazioaren eta komunikazioen teknologietan, enpresen kudeaketan eta antolaketan, baina baita antolaketa-erantzukizunetan, giza baliabideetan eta kudeaketa ekonomikoan ere.

**78.- Zer da REBISALUD?**

a) Autonomia-erkidegoko osasun-liburutegi birtualak biltzen dituen sarea.
b) Carlos III.a Osasun Institutuaren sarbide irekiko gordailu instituzionala, Osasuneko Emaitzetara Bideratutako Ikerketa Kooperatiboko Sareen (RICORS) ekoizpen zientifikoa zentralizatzeaz arduratzen dena.
c) Autonomia-erkidegoen historia klinikoak konektatzen dituen informazio-sistema elkarreragingarria, datu klinikoak ikerketa epidemiologikorako trukatzeko.
d) Cochrane Libraryren lizentzia nazionalak eta Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren (FECYT) bidez sinatutako datu-baseak kudeatzen dituen plataforma teknologikoa.

**79.- Osasun Liburutegi Birtuala (BVS) kolektiboki eraikitako eta BIREMEk koordinatutako sareen sare bat da, eta, printzipioz, honela garatzen da:**

a) Ondare digitalak zerbitzari bakarretan zentralizatuz, metadatuen integritatea eta LILACS metodologiaren araberako indexazio bateratua bermatzeko.
b) Modu deszentralizatuan, instantzia nazionalen bidez (BVS Espainia, BVS Argentina, BVS Brasil, etab.) eta ikerketarekin, irakaskuntzarekin edo zerbitzuekin lotutako erakundeen sare tematikoen bidez (BVS Erizaintza, BVS Osasun Ministerioa, etab.).
c) Eskualdeko erakunde akademikoen eta gobernu-erakundeen arteko elkarreragingarritasun mugatua ahalbidetzen duten sistema jabedunen konbergentzia teknologikoaren bidez.

d) Gobernantza bertikaleko eredu batean oinarrituta; hala, BIREMEk ekoizpen zientifikoa baliozkotzen du nodo nazionaletan argitaratu aurretik, ebidentziaren kalitatea ziurtatzeko.

**80.- Espainiako osasun-informaziorako plataformen bilakaeraren esparruan, zein ekitalditan eta urtetan jarri zen martxan eta aurkeztu zen ofizialki BVS España proiektua?**

a) 2004. urtean Salamancan egindako Dokumentazio Medikoari buruzko Espainiako IX. Jardunaldien testuinguruan, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren babespean eta OPS/OMEren lankidetza teknikoarekin.
b) 2003an Bartzelonan egindako Dokumentazio Zientifikoari buruzko VIII. Espainiako Jardunaldietan (FESABID), baliabide digitalak Osasun Sistema Nazionalean integratzeko estrategia nazionalaren esparruan.
c) Espainiako Osasun Liburutegi Birtualaren I. Foroaren esparruan (Valentzia, 2001eko urria), non literatura zientifiko nazionalaren gordailurako jarraibideak ezarri baitziren.
d) 2001ean Caceresen egindako Osasun Zientzietako Informazio eta Dokumentazio Zientifikoari buruzko IX. Jardunaldietan.

**81.- Zer da BIREME Accounts?**

a) Posta elektroniko instituzionaleko zerbitzu bat, Brasilgo OPSko langileentzat soilik.
b) Sare nazional, tematiko edo instituzionalen koordinatzaileek beren sareko lankidetza-zentroak eta erabiltzaileak kudeatzeko erabiltzen duten sistema da.
c) Artikulu zientifikoen testu osoak eskuratzeko ordainketa-plataforma bat.
d) Kontabilitate-erregistroen datu-base bat, LILACS sarearekin lankidetzan aritzen diren erakundeentzat.

**82.- Zer da FI-Admin?**

a) FI-Admin BVSren informazio-iturriak administratzeko sistema da.
b) Suebaki (firewall) aurreratu bat da, BIREMEren zerbitzariak kanpoko erasoetatik babesteko diseinatua.
c) Azken erabiltzaileei zuzendutako aplikazio mugikor bat da, artikulu zientifikoen testu osoak deskargatzeko.
d) BVSren eskualdeko atariak Google Scholarren edukiak indexatzeko erabiltzen duen bilaketa-motor zentralizatua da.

**83.- Ebidentzian oinarritutako medikuntza (EOM, ingelesez EBM) praktika medikoaren ikuspegietako bat da, eta erabakiak hartzeko orduan ebidentzia zientifikoak edo ikerketa zientifikotik datozen emaitza adostuak erabiltzean datza. Osakidetzan, zein ataritan aurki ditzakegu ebidentzia zientifikoko iturriak? Aukeratu erantzun zuzena:**

a) e-Bideratuz plataforman.
b) O-Sarean profesionalentzako aplikazioan.
c) Jakina plataforman.

d) Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualean (EOLB).

**84.- Osasun Liburutegi Birtualen garapen historikoaren testuinguruan, zer ekarri zuen San Joseren Adierazpenak (1998)?**

a) Z39.50 protokoloa sortzea, Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeetako osasun-zientzien liburutegien katalogo automatizatuak elkarrekin konektatzeko.
b) HINARI (Access to Research in Health Programme) ekimena sortzea, errenta baxuko herrialdeetan aldizkari biomedikoetarako doako irispidea ahalbidetzeko.
c) Latinoamerikako eta Karibeko Osasun Zientzietako Informazio Sistemak konpromisoa hartu zuen Osasun Liburutegi Birtuala modu kooperatiboan eratzeko.
d) Erakundeen Sarearen eredua ezartzea, informazioa modu deszentralizatuan kudeatzeko LILACS metodologia eta DeCS protokoloa (Osasun Zientzietako deskribatzaileak) erabiltzearen bidez.

**85.- Zein EZ da Euskadiko Liburutegi Birtualaren xedea?**

a) Osasun Saileko, Osakidetzako eta haren menpeko osasunaren arloko sektore publikoko erakundeetako funts bibliografikoak eta informazio zientifikoko gainerako baliabideak integratzea eta horietarako sarbidea bermatzea.
b) Osakidetzako profesionalen argitalpen zientifikoetan Jabetza Intelektualaren Legea betetzen dela soilik gainbegiratzea, plagio akademikoa saihesteko.
c) Arreta, prestakuntza eta zerbitzuak emateko sistema homogeneoa ezartzea, aurrez aurre nahiz birtualki, Euskal Osasun Sistemako profesional eta ikertzaileei zuzenduta.
d) Ezagutza zaindu eta kudeatzea, Open Accesseko eta zientzia irekiko paradigmak sustatuz.

**86.- Zein erakunde da Espainiako Osasun Liburutegi Birtualaren proiektua koordinatzeko zentroa?**

a) Osasun Zientzien Liburutegi Nazionala (BNCS).
b) Osasun Ministerioko Osasun Informazioko Zuzendariordetza Nagusia.
c) Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia (AEMPS).
d) Medikuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia (CGCOM).

**87.- Zer da OpenAthens?**

a) Bilaketa-motor federatua da, eta hizkuntza naturala prozesatzeko algoritmoak (NLP) erabiltzen ditu datu-base bibliografiko itxiak indexatzeko, eta metadatuak berreskuratzeko aukera ematen du, aldez aurreko egiaztagiri instituzionalen beharrik gabe.
b) Muturretik muturrera zifratzeko estandar bat da, AES-256 protokoloan oinarritua, sarbide irekiko gordailuen eta sare akademiko pribatuen artean bolumen handiko artxiboen transferentzia ziurtatzeko berariaz diseinatua.
c) Sare pribatu birtualeko (VPN) azpiegitura bat da, 2. geruzakoa, urruneko gailuetarako sare lokal bat emulatzen duena, HTTP/S trafiko osoa proxy zerbitzari zentralizatu baten bidez bideratuz firewall instituzionalak saihesteko.

d) Autentifikazio-plataforma bat da. Haren bidez identifikatutako erabiltzaileei aukera ematen die Liburutegi Birtualeko baliabideak eskuratzeko.

**88.- Thesaurusak kontrol terminologikoko tresnak dira, eta erabiltzaileek dokumentuetan erabiltzen duten hizkuntza naturala hizkuntza dokumentalera itzultzen dute. Adierazi thesaurusei buruzko esaldi hauetatik zein den GEZURRA:**

a) Thesaurusak aurkezteko modurik ohikoenak aurkezpen alfabetikoa, sistematikoa eta grafikoa dira.
b) Erlazionatutako terminoek deskriptore bakoitzaren sinonimo gisa erabil daitezkeen thesauruseko terminoak adierazten dituzte.
c) Azalpen-oharretan, terminoa iradoki zuen pertsonari buruzko informazioa ematen da, baita thesaurusean zein urtetatik aurrera sartu den eta zein argitalpenetan hasi zen erabiltzen ere.
d) Datu-base batzuetan, azpisarrerak gehitzen zaizkie deskriptoreei, hala nola PubMed-en.

**89.- Ezagutza Antolatzeko Sistemen bilakaera historikoaren esparruan (KOS ingelesez, Knowledge Organization Systems), zein izan zen thesaurusak aurrekoen aldean (sailkapen bibliografikoak eta sarreren zerrendak) lehenesteko funtsezko motibazio teknikoa?**

a) Hizkuntza aurrekoordinatuak sortzeko beharra, eskuzko katalogo alfabetikoetan bilaketa errazteko.
b) Egitura hierarkikoak sinplifikatzea, hizkuntza-eredu nagusietan dokumentuen “zarata” murrizteko.
c) Hizkuntza naturala behin betiko ordeztea eta nazioartean adostutako hizkuntza artifizial itxiak erabiltzea.
d) Sekuentzia sistematikoetan oinarritutako berreskurapen batetik funtzio boolearretan eta liburuetakoak ez diren dokumentuen gaineko erregistro logikoetan oinarritutako batera igarotzea.

**90.- UNE ISO 25964-1 arauaren arabera, informazioa berreskuratzeari dagokionez, zein da ezagutza antolatzeko lanaren nukleo edo helburu nagusia?**

a) Kontzeptua.
b) Terminologiaren kontrol zorrotza.
c) Terminorik laburrena eta egonkorrena.
d) Dokumentuak indexatzea.

**91.- ISO 25964-2 arauan, hiztegien arteko mapaketa-eredu estrukturalen testuinguruan, aukera hauetako zeinek deskribatzen du “hub” edo ardatz nagusiaren eredua?**

a) Inplikatutako sistema guztien kontzeptuak eta harreman-egiturak baliokideak dira elkarren artean.

b) Sarea osatzen duten hiztegi guztiak zuzenean eta bi norabidetan lotzen dira elkarren artean.
c) Hiztegiak bi norabideetan mapatzen dira, sistemaren nukleo gisa funtzionatzen duen beste baten aldean.
d) Mapaketa partziala eta selektiboa egiten da hiztegi egituratuen zati garrantzitsuenen artean.

**92.- García Marcoren arabera (2025), thesaurusak eraikitzeko irakaskuntza-metodologian, zein da beheranzko ikuspegiaren (top-down) abantaila pedagogiko nagusia goranzko ikuspegi tradizionalaren aldean?**

a) Autogaitasun-sentimendua sustatzen du, xehetasun terminologikoen aurretik arloaren arkitektura orokorra (diziplinak, alderdiak) jorratzen baitu.
b) Ikasleek indexaziotik abiatuta terminoak modu induktiboan biltzea ahalbidetzen du soilik.
c) Ikasleak lehendik dauden eta gainbegiratuta dauden thesaurusak mantentzeko taldeetan sartzea errazten du.
d) Diseinu-prozesuan ISO 25964 araua bezalako nazioarteko estandarrak betetzeko beharra ezabatzen du.

**93.- Hizkuntza dokumentalen testuinguruan, zein da thesaurus bat deskriptore libreen zerrenda batetik bereizten duen funtsezko ezaugarria edukia aztertzeko prozesuan?**

a) Thesaurusa irteera-fasean soilik aplikatzen da, eta deskriptore libreak, berriz, sarrera-fasean.
b) Thesaurusak hizkuntza naturala erabiltzen du, eta deskriptore libreek, berriz, kode artifizialak.
c) Thesaurusak termino bakarrak onartzen ditu bakarrik, eta deskriptore libreek, berriz, termino konposatuak.
d) Thesaurusa hizkuntza kontrolatua da, eta erlazio semantikoak ditu ezarrita; deskriptore libreak, berriz, ez daude aldez aurreko kontrol baten mende.

**94.- García Marcoren arabera (2025), zein da ISO 25964-2 arauak elkarreragingarritasun semantikoko proiektuetan mapaketa iragankorra ez erabiltzea aholkatzeko arrazoi nagusia?**

a) Arauak thesaurusen artean bakarrik mapatzea onartzen duelako, baina ez beste sistema batzuekin, hala nola ontologiekin.
b) Baliokidetza zehaztugabeetako akatsak edo anbiguotasunak katean biderkatzen direlako, zarata eta isiltasuna sortuz.
c) W3C SKOS estandarra nahitaez erabili behar delako, eta horrek sistemen autonomia mugatzen duelako.
d) Sinonimoen eraztunek ez dutelako harreman hierarkiko iragankorrik onartzen emaitzen taularen arabera.

**95.- Modelatze formaleko zer tresna erabiltzen du ISO 25964-1 arauak thesaurusen klaseak, atributuak eta asoziazioak irudikatzeko eta aplikazioen programazioa errazteko?**

a) UML (Unified Modelling Language).
b) Autoritateen Marc formatua.
c) Z39.50 protokoloa.
d) XML hizkuntza ad hoc.

**96.- MeSH (Medical Subject Headings ingelesez; hots, Gai Medikoen Goiburuak euskaraz) hierarkikoki kontrolatutako eta antolatutako hiztegi bat da, Estatu Batuetako Medikuntzako Liburutegi Nazionalak (NLM, ingelesezko siglak) sortutakoa, eta informazio biomedikoa eta osasunarekin lotutakoa indexatzeko, katalogatzeko eta bilatzeko erabiltzen da. Zein izan zen aurrekaria?**

a) Conspectus Medicus Internacionalis (1945).
b) Cutter's Expansive Classification (Medical Supplement) sistema (1899).
c) Subject Heading Authority List (1954).
d) Standardized Medical Nomenclature of Diseases (SMND) (1945).

**97.- Thesaurus bat eraikitzeko faseen barruan, zein fasetan erabakitzen da zer terminok funtzionatuko duten deskriptore gisa eta zein ez-deskriptore gisa, anbiguotasuneko eta erabilera profesionaleko irizpideetan oinarrituta?**

a) Thesaurusaren zirriborroa egitea (edizio pilotua).
b) Eremu semantikoak edo mikrodiziplinak sortzea.
c) Hiztegia hizkuntza naturalean biltzea.
d) Hizkuntza dokumentalera murriztea (baliokidetasun-erlazioak).

**98.- ISO 25964-2 arauan, baliokidetasun konposatuko erlazioen barruan, nola esaten zaio teknikoki eremu semantikoak batzeko mapaketari (adibidez, lurreko komunikazio-bideak EQ errepideak | autobiak | bideak)?**

a) Baliokidetasun intersektiboa.
b) Baliokidetasun metagarria.
c) Baliokidetasun hiperonimikoa.
d) Baliokidetasun zehaztugabea edo hurbildua.

**99.- Emtree thesaurusaren (Elsevier Life Science Thesaurus) alderdi-egituraren barruan, nola definitzen eta aplikatzen dira teknikoki "medikamentu klinikoak"?**

a) Erabilera klinikoko (edo potentzialeko) konposatu edo prestakin gisa, agente terapeutiko, aringarri, profilaktiko edo diagnostiko gisa erabiltzen direnak.
b) Izen komertzial gisa (adibidez, Diarent), eta sistemak automatikoki itzultzen ditu hizkuntza naturalera MEDLINEn indexatzeko.

c) Konposatu endogenoen definizioan sartzen ez diren eta egiaztapen-etiketen politikari jarraitzen dioten termino orokor gisa.
d) 14 nagusietatik aparteko alderdi gisa, gailu medikoetarako eta in vitro erreaktiboetarako soilik diseinatua.

**100.- Zer berrikuntza garrantzitsu sartzen du ISO 25964-1 arauak thesaurusak hizkuntzaren arabera tratatzeari dagokionez?**

a) Thesaurus eleaniztunak erabiltzea deuseztatzen du, konplexutasun teknikoagatik.
b) Behin betiko bereizten ditu thesaurus elebakarrentzako arauak eta eleaniztunentzako arauak.
c) Thesaurus elebakar eta eleaniztunen tratamendua kode bakarrean biltzen du.
d) Thesaurusak elebakarrak soilik izan behar direla ezartzen du, itzulpen-akatsak saihesteko.

**101.- Berreskuratze-sistemen mugak aztertzean, zer fenomeno dokumental lotzen da berez deskriptoreen zerrenden gehiegizko hazkundearekin?**

a) Ezagutzaren eremua ("basoa") ikusteko zailtasuna, zarata areagotuz eta zehaztasuna murriztuz.
b) "Uniterminoak" agertzea, teknikoegiak, isiltasun dokumentala areagotuz.
c) Autoritateen kontrolerako Bliss eta Ranganathan sailkapen fazetatuekin berehala bateratzea.
d) Bilaketa zehatzak egiteko ezintasuna, sarrera-terminorik ez dagoelako (sinonimoak).

**102.- Erregistro bibliografikoetarako MARC 21 formatuak 856 eremua identifikatzen du lokalizazio eta sarbide elektronikoetarako (R). Eremu horren erabilerari buruz baieztapen hauetatik zein da GEZURRA?**

a) 856 eremua baliabide baten bibliografia-erregistroan erabil daiteke, baldin eta baliabide hori edo haren zati bat elektronikoki eskuragarri badago.
b) 856 eremua ezin da inola ere errepikatu.
c) 856 eremua erregistro bibliografikoan deskribatutako baliabide ez-elektroniko baten bertsio elektronikoa lokalizatzeko eta bertara sartzeko erabil daiteke.
d) 856 eremua errepikatu egin daiteke kokapenaren informazio-elementuak aldatzen direnean (adibidez, URL helbidea) edo ispilu-kokapenak gehitzen direnean, besteak beste.

**103.- Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena RDAei dagokienez:**

a) Mundu digitalerako ez den katalogazio-kode bat da.
b) Aurrerapauso bat dira AACR3ekiko, baina ez dira unibertsalak, eremu anglosaxoian erabiltzen baitira.
c) Deskribapen-eremuetan oinarritutako kode kontzeptuala da.
d) Katalogazio-arau unibertsal berri bat da, mundu digitalera zuzendua, mota guztietako eduki eta euskarrietan aplikagarria, eta entitate/erlazio/atributuen egiturazko planteamendu kontzeptual berri batean oinarrituta dago.

**104.- RDA baliabidea deskribatzeko eta eskuratzeko arau bat da, honetarako diseinatua:**

a) AACR2ak eguneratzea.
b) Informazioa trukatzea.
c) Mundu digitala.
d) Ikus-entzunezko materialen kontrola.

**105.- 2007ko atariko ISBD bateratuaren printzipioen adierazpenean EZ da jasotzen...**

a) Sistema automatizatu jakin baten elementuen aurkezpenean arreta handiagoa jartzea.
b) Liburutegi-komunitatearen artean informazio bibliografikoaren trukea erraztea.
c) Araua erabiltzen duten liburutegien beharretara egokitutako deskribapen-mailak ezartzea.
d) Erregistro bibliografikoaren oinarrizko funtzioak (baliabideak identifikatzea eta hautatzea) betetzeko beharrezkoak diren elementuak finkatzea.

**106.- MARC erregistro batean, zeri esaten zaio adierazlea?**

a) Eremuko edukia adierazten duen izenari.
b) Arloaren barruan informazio espezifikoa duen eremu baten zati osagarri bati.
c) Karaktere numeriko edo alfanumeriko bati, luzera aldakorreko eremu bati lotua; eremuaren edukiari buruzko informazio gehigarria ematen du.
d) Azpieremu baten hasiera identifikatzeko erabiltzen den kode bati.

**107.- ISBD edizio bateratuaren arabera (2021), zein da tratamendu zuzena izenbururik ez duen eta hura katalogatzaileak hornitu behar duen baliabide batentzat?**

a) Emandako izenburua parentesi artean idatziko da eta ohar batean adieraziko da.
b) “S.t.” izendapena erabiltzen da, (izenbururik gabe) kortxeteen artean.
c) Ezin da izenbururik adierazi 1. eremuan; 7. eremuan eman behar da nahitaez.
d) Izenburua idatzi eta kortxeteen artean sartu behar da, eta ohar bat txertatu 7. eremuan, izenburua katalogatzaileak idatzi duela azaltzeko.

**108.- MARC 21eko 245 eremuan, zein da bigarren adierazlearen funtzio teknikoa 1 eta 9 arteko zenbakizko balio bat esleitzen zaionean?**

a) Sistemak alfabetatzeko saltatu behar dituen karaktere kopurua adierazten du (alfabetatu ez diren karaktereak).
b) Titulua berreskuratzearen garrantzi-maila adierazten du.
c) Izenburua sailaren aipua dela adierazten du.
d) Erantzukizunaren aipuan aipatu ez diren egileen kopurua zehazten du.

**109.- Zer arauk definitzen du Informazioa Berreskuratzeko Aplikazio Zerbitzua (3. atala) eta zehazten du Informazioa Berreskuratzeko Aplikazio Protokoloa (4. atala)?**

a) ISO 10160.
b) ISO 15511.
c) ISO 23950.
d) ISO 15489-1.

**110.- 3R proiektua (RDA Steering Committee) amaitu ondoren, RDA araua birdiseinatu zen, eredu honekin erabat bat etortzeko:**

a) BIBFRAME 2.0.
b) IFLA LRM.
c) ISBD bateratua.
d) AACR.

**111.- Zein da Z39.50 protokoloaren funtzio nagusia?**

a) Metadatuak bilketa bidez (harvesting) sinkronizatzea.
b) Lotura iraunkorrak ebaztea OpenURL bidez.
c) Eskubide digitalen kudeaketa eta autentifikazioa.
d) Sistema informatiko desberdinen artean informazioa berreskuratzea (elkarreragingarritasuna).

**112.- RDA-REBIUN jarraibideak kontuan hartuta, RDAk inplementatzeko lehen fasean, zein da baliabidea deskribatzeko gomendioetako bat?**

a) Deskribapenean laburdurarik ez erabiltzea.
b) Lehendik dagoen datu-baseko erregistro guztiei nukleo-elementuak (core elements) atzera begira aplikatzeko betebeharra, lotutako datuen osotasuna ziurtatzeko.
c) Espainiako Katalogazio Arauetan oinarritutako autoritate-sarbide guztiak berehala ordeztea identifikatzaile bakarrekin (URI), testuak alde batera utzita.
d) Materialaren izendapen orokorra (DGM) behin betiko ezabatzea, eduki edo bitarteko mota deskribatzeko ordezko elementurik eman gabe.

**113.- ISBD edizio bateratua (2021) kontuan hartuta, baliabide batek argitalpen-leku bat baino gehiago eta editore bat baino gehiago dituenean, zer lehentasun-irizpide aplikatzen da 4. eremuan transkribatzeko?**

a) Agertzen diren ordenan transkribatzen dira denak, nahitaez.
b) Katalogoko hizkuntzarekin bat datorrena soilik transkribatzen da.
c) Tipografikoki nabarmendutako lehenengoa transkribatzen da, edo, bestela, lehenengo aipatzen dena.
d) Egoitza bibliografia-agentzia nazionalaren herrialdean duen editorea lehenesten da beti.

**114.- Z39.50 protokoloa mota honetako komunikazio-ereduan oinarritzen da:**

a) Peer-to-Peer (P2P) Asinkronoa.
b) Bezeroa-Zerbitzaria.
c) Hedapen anitzeko broadcastinga.
d) Aurkezpen estatikoko geruzen eredua (Stateless).

**115.- MARC 21 formatuan, zer informazio kodifikatzen da 008 eremuan, 33. posizioan, liburu baten erregistro bibliografiko baterako?**

a) Literatura-forma (fikzioa, drama, poesia eta abar den).
b) Testuaren hizkuntza.
c) Argitaratze-herrialdea.
d) Errekurtsoak ilustrazioak dituen.

**116.- ISBD edizio bateratuaren arabera (2021), baliabide batek antzera zenbakitutako orrialdeen, orrien edo zutabeen hiru sekuentzia baino gehiago baditu, edo antzera zenbakitutako orrialde-sekuentziak baditu zenbakitu gabeko orrialdeen sekuentzia nagusi batekin edo gehiagorekin konbinatuta, zein da transkribatzeko modu zuzena?**

a) Sekuentziak batu eta guztizko gisa ematen dira, eta, ondoren, “hainbat orrialdetan” idazten da (edo dagokion hizkuntzako baliokidea).
b) Sekuentzietako bat argi eta garbi sekuentzia nagusia bada, sekuentzia horren zenbakia kortxete artean ematen da, aurretik dauden eta/edo ondoren datozen gainerako sekuentzien guztizko kopuruarekin batera, komeni denaren arabera.
c) Materialaren izendapen espezifikoa eta baliabidearen luzapena honela deskribatzen dira: 1 v. (zenbakitze askotarikoa).
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

**117.- Espainiako zein erakunderi dagokio ISSNa kudeatzea?**

a) Estatuko Aldizkari Ofizialari.
b) Liburutegi Nazionalari.
c) Kultura Ministerioari.
d) Datuak Babesteko Agentziari.

**118.- Espainiako ISBN Agentzia honako honek kudeatzen du:**

a) Kultura eta Kirol Ministerioak.
b) Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak (FGEE).
c) ISBNren Nazioarteko Agentziak.
d) Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroak.

**119.- ISBN kodea osatzen duten bost elementuetatik, zer identifikatzen du hirugarren elementuak?**

a) Argitaratzailea edo argitalpen-zigilua.
b) Herrialdea, eskualde geografikoa edo hizkuntza-eremua.
c) Izenburu jakin baten edizioa eta formatua.
d) Kontrol-digitua.

**120.- Argitalpen inprimatuen kasuan, non agertu behar du ISBNak?**

a) Azalaren atzealdean, azalaren oinean (azalaren atzealdean lekurik ez badago), atzeko azalaren behealdean eta atzeko gaineko azalaren, estutxearen edo beste edozein bilgarriren behealdean.
b) Azalaren atzealdean bakarrik.
c) Atzeko azalaren behealdean bakarrik.
d) Ez da nahitaezkoa ISBNa produktuan agertzea, eskariaren araberako inprimaketan izan ezik.

**121.- ISBNari dagokionez, adierazpen hauetatik zein da GEZURRA?**

a) ISBN Agentziaren xedea da ISBNa eskatzen duten argitalpenen kalitatea baloratzea.
b) ISBN bat lortzeak ez ditu babesten jabetza intelektualeko eskubideak.
c) Espainiako ISBN Agentzia Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak (FGEE) kudeatzen du.
d) Ez da ISBN bat eskatu behar lege-gordailua lortzeko, ez eta liburu bat argitaratzeko ere.

**122.- ISBN, ISSN, NIPO eta BICI identifikatzaile bibliografikoak dira?**

a) Bai, guztiak dira identifikatzaile bibliografikoak.
b) ISBN eta ISSN bakarrik.
c) NIPO bakarrik.
d) ISBN, ISSN eta NIPO bakarrik.

**123.- Produktu hauetako zeinek EZIN du ISBN bat eraman?**

a) Mapak.
b) Braillez idatzitako argitalpenak.
c) Musika-grabazioak.
d) Film, bideo eta diapositiba hezigarriak.

**124.- Adierazi esaldi hauetatik zein den GEZURRA ISBNari dagokionez:**

a) Nahitaezko adierazle bibliografikoa da.
b) Ez da kalitate-adierazlea.
c) ISBN bat lortzeak ez ditu babesten jabetza intelektualeko eskubideak.

d) ISBNn erregistratzeko eskaera elektronikoki egiten da Espainiako Editoreen Gremioen Federazioaren (FGEE) webgunean.

**125.- ISSN EZ da:**

a) Aldizkako argitalpenen identifikatzaile bat.
b) 9 zifrako kode bat.
c) ISO 3297 arauaren identifikatzaile bat.
d) Doan esleitzen den identifikatzaile bat.

**126.- ISSNari dagokionez, zein da adierazpen ZUZENA?**

a) ISSNa ezinbestean lotuta dago argitalpen seriatuaren izenburuarekin, eta izenburua aldatzeak ISSNa aldatzea ekar dezake.
b) ISSNak zortzi zifra ditu (azkena kontrol-digitu bat da), eta argitaratze-herrialdea eta editorea adierazten dituzten aurrizkiak ditu.
c) Argitalpenaren izenburua aldatzen denean, aldaketa funtsezkoa ez bada, ez da beharrezkoa beste ISSN bat eskatzea.
d) Argitalpena hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzen bada, guztiei ISSN bera dagokie.

**127.- Zer da DOI?**

a) Objektu digitalen datu-base bat.
b) Edozein objektu fisiko, digital edo abstrakturen identifikatzaile digitala.
c) Argitalpen zientifikoen erregistro-agentzia bat.
d) Argitalpen ofizialen erregistro bat.

**128.- Zein da DOIen erregistro-agentzia garrantzitsuenetako bat?**

a) NIPO.
b) CROSSREF.
c) CNRI.
d) ISO.

**129.- Zenbat digituk osatzen dute gaur egun argitalpen baten ISBNa?**

a) 10.
b) 13.
c) 8.
d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**130.- Zertan datoz bat Crossref, DataCite, mEDRA eta EIDR?**

a) Sarbide irekiko artikulu zientifikoen identifikatzaile digitalak dira.
b) Eduki digitalei DOIak esleitzen dizkieten agentziak dira, identifikazio bakarra eta iraunkorra bermatzeko.
c) Ikus-entzunezko edukia soilik erregistratzeko erregistro-agentziak dira.
d) Lege-gordailuko gobernu-agentziak dira.

**131.- ISO 26324 arauak honako hau normalizatzeko zehaztapenak ezartzen ditu:**

a) DOI (Digital Object Identifier).
b) ISSN (International Standard Serial Number).
c) ISBN (International Standard Book Number).
d) ISBD (International Standard Bibliographic Description).

**132.- Zein EZ da operadore boolear bat?**

a) AND.
b) ADJ.
c) OR.
d) NOT/AND NOT.

**133.- Zer dakar datu-base bibliografiko batean informazioa maskara-tresna erabiliz berreskuratzeak?**

a) Eragile logikoak erabiltzea.
b) Bilaketa-ekuazio bakarra egitea.
c) Hitzaren erdian kokatutako letraren bat ordezkatzeko trunkamendu bat egitea.
d) Erro bera eta amaiera desberdinak dituzten terminoak berreskuratzea.

**134.- Datu-base erreferentzialak:**

a) Jatorrizko dokumentuaren irudikapen bat dira, eta beste informazio-iturri batzuk behar dituzte dokumentua berreskuratzeko.
b) Batez ere datu-base estatistikoak dira.
c) Iturri nagusiak edo primarioak ere deritze.
d) Testu osoko datu-baseak dira.

**135.- Operadore boolearrak:**

a) Terminoak modu logikoan konbinatzen dituzte, eta hizkuntza kontrolatuetako bilaketen emaitzak mugatzeko erabiltzen dira.
b) Operadore logiko mota bat dira, bilaketa-ekuazio batean erabiltzen direnak eta hainbat termino aldi berean konbinatzeko aukera ematen dutenak.
c) Iragazkien erabilera saihesten dute, batez ere hizkuntzakoena.
d) Karaktere-kate jakin batekin hasten diren erregistro guztiak berreskuratzeko erabiltzen dira.

**136.- Hurrengoetatik, zein da hurbiltasuneko operadorea?**

a) *.
b) Near/2.
c) AND/NOT.
d) ?.

**137.- OR operadoreari dagokionez, adierazpen hauetatik zein EZ da zuzena?**

a) Bilaketa-terminoen batura egiten du.
b) Terminoetako bakoitza bereizita dagoen erregistroak berreskuratzen ditu.
c) Ez dira bi terminoak batera jasotzen dituzten erregistroak berreskuratzen.
d) Bilaketa-terminoen sinonimoak bilatzeko erabiltzen da, eta beste termino batzuekin lotutako alderdiak parentesia erabiliz sartzea du ezaugarri.

**138.- Zer bilaketa-estrategia da egokia adinekoen hipertentsioari buruzko informazioa bilatzeko?**

a) Hypertension AND Elderly OR Aged.
b) Hypertension AND (Elderly OR Aged).
c) Hypertension AND (Elderly AND Aged).
d) Hypertension OR Elderly AND Aged.

**139.- BIRIKETAKO ENBOLIA kontzeptuari buruzko informazioa lortu nahi badugu, zer bilaketa-estrategia erabiliko dugu?**

a) Pulmonary AND embolism.
b) Pulmonary OR embolism.
c) “Pulmonary embolism”.
d) Pulmon* AND embolis*.

**140.- Zer dira W/2, NEAR/2 eta ADJ/2?**

a) Operadore boolearrak.
b) Operadore logikoak.
c) Hurbiltasuneko operadoreak.
d) Mailako operadoreak.

**141.- Bilaketa-estrategiaren zein fasetan erabiltzen dira operadore boolearrak?**

a) Kontsultaren edo bilaketa-gaiaren definizioan.
b) Datu-baseak edo informazio-iturriak hautatzean.
c) Bilaketa-estrategia diseinatu eta egitean.
d) Gako-hitzak eta -kontzeptuak identifikatzean.

**142.- “Zarata dokumentala” kontzeptuak zeri egiten dio erreferentzia?**

a) Bilaketan berreskuratu ez diren datu-base bateko dokumentu garrantzitsuen proportzioari.
b) Bilaketan berreskuratu diren eta garrantzitsuak ez diren dokumentuen proportzioari.
c) Hizkuntza libreko bilaketa batean berreskuratu diren dokumentuen proportzioari.
d) Dokumentu garrantzitsu asko berreskuratzeari.

**143.- Termino hauetako zein EZ dagokio hizkuntza kontrolatu bati?**

a) Deskriptorea.
b) Gako-hitza.
c) Thesaurusa.
d) MeSH.

**144.- Thesaurus batean, zer adierazten du “BT” (broad term) terminoak?**

a) Hautatutakoa baino termino espezifikoagoa.
b) Hautatutakoa baino termino zabalagoa edo orokorragoa.
c) Hautatutako terminoaren sinonimoa.
d) Thesaurusean onartu ez den termino baliokidea.

**145.- Zertarako erabiltzen da MeSH termino baten “explode” aukera PubMed-en?**

a) Aukeratutako termino zehatza eta goragoko mailetan dauden terminoak bilatzeko.
b) Bilaketan termino nagusi baten mendeko termino guztiak edo espezifikoagoak sartzeko.
c) Bilaketan garrantzirik ez duten terminoak ezabatzeko.
d) Terminoaren sinonimoak baztertzeko.

**146.- Adierazi kudeaketa ekonomikoaren zer alderdi aplikatu behar zaizkien osasun-zientzien liburutegiei. Aukeratu erantzun ZUZENA.**

a) Erosketak arrazionalizatzea.
b) Partzuergorik gabeko banakako kontratazioa.
c) Aurrekontu ez-finalistak.
d) Liburuzainak ez du kudeatzaile-zereginik hartuko bere gain; baliabidearen prezioa, erabilera, finantzaketa-baldintzak, kontratuaren konfidentzialtasuna eta alderdi teknologikoak negoziatzea zentroetako legezko eta informatikako sailei dagokie soilik.

**147.- Adierazi zein den erantzun OKERRA osasun-zientzien liburutegietako bildumaren garapenari dagokionez**.

a) Bilduma garatzeko politikak edo programak 1977an hasi ziren sortzen, American Library Association erakundearen erreferentziazko dokumentu baten bidez (bilduma garatzeko politikak formulatzeko jarraibideak).

b) Espainian, REBIUNek egindako gomendio batzuk ditugu.
c) Formatu digitala txertatzeak ez ditu prozesuak aldatu.
d) Bilduma kudeatzeko eta garatzeko politika idatziak aldatzen joan daitezke, bai eskakizun instituzionalen, bai premien beharrei erantzuteko.

**148.- Zer da "PAY PER VIEW" ordainketa?**

a) Artikuluetara harpidetzeko sistema bat da, eta deskarga bakoitzagatik ordaintzen da.
b) Eredu hori ez da liburutegien arloan existitzen.
c) Aldizkari zientifikoen harpidetza-sistema bat da.
d) Baliabide-paketeetara harpidetzeko aukera ematen duen sistema bat da.

**149.- Osasun-zientzien liburutegi baten kudeaketa ekonomikoaren eta erosketa-politikaren esparruan, nola baloratu behar da kostua erosketa-adierazle gisa?**

a) Kostua adierazle garrantzitsua da, eta erosketaren bideragarritasuna baldintzatu behar du, baina ez da berez erabakigarria izan behar; hautaketa, funtsean, erabiltzaileen informazio-premien egokitasunean eta premia horiei erantzutean oinarritu behar da.
b) Kostuak izan behar du hautaketa-irizpide bakarra, aurrekontu-kudeaketan neurgarria den aldagai kuantitatibo objektibo bakarra baita.
c) Kostuen analisiak erabilera-estatistikak (adibidez, deskarga bakoitzeko kostua) edo beharren azterketak ebaluatzeko premia ordezten du, prezioak berez islatzen baitu baliabide baten errentagarritasuna.
d) Lehentasunezko irizpidea eta ia bakarra izan behar du, eta hainbat faktoreren gainetik nagusitu behar da, hala nola garrantzi klinikoaren, inpaktu-faktorearen edo osasun-arloko profesionalen asistentzia-jardunbiderako balio erantsiaren gainetik.

**150.- Zein da partzuergoen eta editoreen artean egindako "eraldatze-akordioen" helburu nagusia?**

a) Harpidetza guztiak ezeztatzea, dohaintza-eredu batera pasatzeko.
b) Inpaktu handiko aldizkarietan argitara dezaketen ikertzaileen kopurua murriztea.
c) Harpidetza-aurrekontuak pixkanaka birbideratzea artikuluak prozesatzearen kostuak (APC) estaltzeko, ekoizpen zientifikoa irispide librekoa izan dadin argitaratzen denetik.
d) Liburutegiek beren erabiltzaileen datuak hirugarrenei saltzeko aukera ematea.

**151.- Liburutegietako erosketa-politikari begira, zein da "eraldatze-akordioek" proposatzen duten funtsezko aldaketa?**

a) Izenburuz izenburuko harpidetza-eredura itzultzea (*cherry picking*).
b) Editore komertzialen ordez irabazi-asmorik gabeko elkarte zientifikoak jartzea.
c) Liburutegi fisikoak ezabatzea zentro digital bihurtzeko.
d) "Irakurtzeagatik ordaintzea" eredua "argitaratzeagatik ordaintzea" eredura aldatzea, sarbide irekian.




**152.- Zein da egungo partzuergoen ezaugarri bereizgarria sare tradizionalen aldean?**

a) Dokumentu-jabetzaren kontzeptua alde batera uztea eta sarbidea lehenestea.
b) Katalogo kolektiboak ezabatzea.
c) Erosketa inprimatu guztiak zentralizatzea.
d) Liburutegien arteko mailegua desagertzea.

**153.- Partzuergoek aukera ematen dute:**

a) Bildumak garatzeko nahitaezko eredu uniforme bat ezartzeko, partzuergoko liburutegiei partzuergoko esparrutik kanpo banakako erosketak egitea eragozten diena.
b) Negoziazio kolektiboaren bidez, iturrien erabilera maximizatzeko, bildumak arrazionalizatzeko eta prezio elektronikoen inguruan presionatzeko.
c) Liburutegi bakoitzeko tokiko kudeaketa-sistemen ordez, partzuergoko administratzaileei mugatutako sarbidea duen inbentario bakar bat ezartzeko.
d) Dokumentu-funtsen jabetza erakunde kudeatzaile bakar batean zentralizatzeko juridikoki, eta erakunde horri transferitzeko partzuergoko liburutegiek eskuratutako baliabideen titulartasuna.

**154.- Zein da liburutegi-partzuergoak sortzeko arrazoi nagusia?**

a) Pakete elektroniko itxiak eskuratzeko presio editoriala.
b) Bilduma inprimatuak edukitzeko ezintasun teknikoa.
c) Zerbitzu tradizionalen ordez merkataritza-plataforma digitalak ezartzeko beharra.
d) Egiaztatu da ezein liburutegik ezin dituela bere kabuz ase erabiltzaileen premia guztiak; hala, lankidetza baliabideak eta zerbitzuak partekatzeko bide eraginkorra da.

**155.- Zer alde dago “Bildumaren kudeaketaren” eta “Bildumaren garapenaren” artean?**

a) Sinonimoak dira, eta bereizi gabe erabiltzen dira.
b) Kudeaketa termino zabalagoa da, eta barne hartzen ditu hautaketa, erosketa, prozesu teknikoa, kontserbazioa eta ebaluazioa.
c) Garapena termino zabalagoa da, eta administrazio-kudeaketa barne hartzen du.
d) Kudeaketak liburu elektronikoen erosketari bakarrik egiten dio erreferentzia.

**156.- Baliabide digitalen kudeaketaren eta sarbide irekiaren esparruan, BY-NC motako Creative Commons lizentzia batek (Aitortu-EzKomertziala) honako honetarako ahalmena ematen dio erabiltzaileari:**

a) Edukiak edozein formatutan irakurri, deskargatu, kopiatu, birbanatu eta egokitzea, betiere egilea nor den aitortuta eta erabilera komertzialik egin gabe.
b) Materiala formatu inprimatuan bakarrik kopiatzea eta zabaltzea, erakundearen beraren esparruan; debekatuta dago komunikazio digitala egitea edo edozein motatako itzulpen edo egokitzapen tekniko egitea.




c) Edukiak helburu komertzialekin eta irabazi-asmoekin erabiltzea eta banatzea, betiere bermatzen bada jatorrizko lana ez dela aldatuko, metadatuak osorik errespetatzen badira eta editorea aipatzen bada.
d) Edukia kontsultatzeko eta aipamenak egiteko bakarrik erabiltzea; ezin izango da birbanaketa masiborik egin eta obra eratorririk sortu, eta egileari lizentzia gehigarri bat eskatu beharko zaio beste edozein erabilera egiteko.

**157.- Creative Commons lizentzien baldintza orokorren arabera, zer gertatzen da egile batek obra merkatutik kentzea edo lizentzia horien pean eskaintzeari uztea erabakitzen badu?**

a) Egileak edozein unetan erabaki dezake hori egitea, baina zirkulazioan dauden aleen edo kopien lizentziak baliozkoak izango dira jabetza intelektuala babesteko epea amaitu arte.
b) Lizentzia automatikoki baliogabetuko da erabiltzaile guztientzat, eta 30 eguneko epea izango dute fitxategi digitalak ezabatzeko eta obraren kopia fisikoak suntsitzeko.
c) Egileak obraren gaineko gurasotasun-eskubide morala galduko du, eta, beraz, edozein erabiltzailek jarraitu ahal izango du hura erabiltzen, baina jatorrizko iturria edo sortzailearen izena aipatzeko betebeharrik gabe.
d) Obra berehala igaroko da jabari publikora, eta egileak galdu egingo du obraren etorkizuneko ustiapen komertzialaren modalitateei edo egokitzapenei buruz erabakitzeko aukera.

**158.- Partzuergoko erosketa-formularen bidez baliabide elektronikoak eskuratzeko prozesuan, baldintza hauetako zein jotzen da lehentasunezko helburu teknikotzat jasangarritasuna eta informaziorako irispidea bermatzeko?**

a) Hornitzaileak bere gain hartzea tokiko OPACeko erregistroen katalogazioaren kudeaketa osoa eta garbiketa automatikoa.
b) Baliabide digitalen jabetza intelektuala liburutegi hartzailera transferitzea, edukiak hirugarrenei birsaltzea ahalbidetuz.
c) Harpidetutako edukiak beti eskuratzeko eskubideak (archival rights) aitortzea eta erabiltzaile baimenduak aldi berean sartzeko aukera bermatzea.
d) Baliabideak liburutegiko ordenagailu fisikoetatik bakarrik eskuratzea mugatzea.

**159.- Zer faktorek eragin du azken urteotan “big deals” delakoen hautemandako balio-galera?**

a) Ikasleek ikerketa zientifikoa egiteko interesik ez izatea.
b) Edukiak eskuragarri egotea gordailuetan, sare akademikoetan eta Sci-Hub bezalako plataformetan.
c) Ikertzaileek inprimatutako formatua lehenestea formatu digitalaren gainetik.
d) Aurrekontua handitzea Europako unibertsitate-liburutegi guztietan.




**160.- Partzuergoetan sartutako ospitale-liburutegien erosketa-politikaren esparruan, Just-in-Case (JIC) eredutik Just-in-Time (JIT) eredura igarotzeak ez du esan nahi bata bestearekin erabat ordeztu denik; aldiz, honela ulertu behar dugu:**

a) Just-in-Case ereduaren ordez Just-in-Time eredua ezartzea pixkanaka, ikuspuntu historikotik ezinbestekoak diren harpidetzak bakarrik mantenduz eta bildumaren aurretiazko plangintza alde batera utziz.
b) Just-in-Case + Just-in-Time politika konbinatuak txertatzea, eskariaren araberako sarbide-mekanismoak dituzten egiturazko harpidetzak ezarriz, erabileraren eta asistentzia-beharraren arabera.
c) Bildumaren kudeaketa kanpora ateratzea Just-in-Case ereduaren arriskua bere gain hartuko duten merkataritza-agregazioko plataformen bidez, aktibo finkoen inbertsio-aurrekontua aldi baterako erabilerako lizentzien eta erabilera aldakorreko lizentzien gastu arrunt bihurtuz.
d) Just-in-Time ereduari lehentasuna ematea ospitaleko erosketen printzipio gidari esklusibo gisa, eta Just-in-Case unibertsitate-irakaskuntzarekin lotutako salbuespenezko egoeretarako uztea.

**161.- Produktu hauetako zein dagokio liburutegiak kudeatzeko sistema integratu baten izen komertzialari?**

a) KOHA.
b) Primo.
c) SciELO.
d) Slideshare.

**162.- Funtsen kontserbazioari buruzko adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

a) Kontserbaziorik onena prebentzio orokor ona da (zaharberritze-tratamenduak egin baino lehen, oso garestiak baitira eta kaltea eginda dagoenean aplikatzen baitira).
b) Liburutegiko materialak eguzki-argirik gabeko eta aireztapen oneko gordailuetan gordeko dira, hezetasunetik eta tenperatura altuetatik, intsektuetatik eta karraskarietatik babestuta.
c) Hezetasun handiko giroak, tenperatura altuekin konbinatuta, onddoak agertzea errazten du.
d) Paperaren kasuan, tenperatura 20 ºC eta 25 ºC artekoa izango da ahal dela, baina 22 ºC ingurukoa izango da gordailuetan, tenperatura erosoa izan behar baita.

**163.- Titulartasun publikoko liburutegi batetik EZ da kenduko...**

a) Oso hondatuta dagoen eta trukatu edo eman ezin den obra bat.
b) Edukiek indarra galdu duten obra bat.
c) Liburutegiak kontserbatu behar duen bildumaren zati den obra bat.
d) Urradurak dituen inguruko mapa bat.

**164.- Zein da liburutegiko gordailu batean mantendu beharreko hezetasun erlatiborik aproposena?**

a) % 45 eta % 65 bitartean, eta oszilazioak ez dira +- 5 ºC baino handiagoak izango.
b) % 35 eta % 35 bitartean, eta oszilazioak ez dira +- 2 ºC baino handiagoak izango.
c) % 20 eta % 40 bitartean, eta oszilazioak ez dira +- 3 ºC baino handiagoak izango.
d) % 10 eta % 35 bitartean, eta oszilazioak ez dira +- 6 ºC baino handiagoak izango.

**165.- Bildumen plangintzan eta kudeaketan, zein da "Sarbide Ereduaren" ezaugarri nagusia, "Jabetza Ereduaren" aldean?**

a) Lehentasuna ematea funts inprimatu propioak zehatz-mehatz osatzeari, kanpoko baliabide elektronikoetara jo aurretik.
b) Lehentasuna ematea informazioaren eskuragarritasunari, erabiltzailea fisikoki non bizi den alde batera utzita.
c) Lizentzia digitalen bidez harpidetutako titulu guztiak jabetza iraunkorrean gordetzeko betebeharra.
d) Liburutegien arteko maileguak nahitaezko gordailu fisikoekin ordezkatzea pixkanaka, eskualdeko gordailu kooperatiboetan.

**166.- Zer da bildumaren kudeaketa?**

a) Irizpide eta jarraibideen bidez koordinatutako jardueren multzoa, ikuspegi zabalekoa (hautaketa, erosketa, ebaluazioa, garbiketa, kontserbazioa, etab.).
b) Gai bati buruz argitaratutako dokumentu guzti-guztiak metatzea.
c) Urteko aurrekontu-eskuratzeak erregistratzera eta dokumentazio-gastuaren kontabilitatea justifikatzera soilik bideratutako administrazio-zereginen multzoa.
d) Liburutegian gehitutako materialak katalogatzea, sailkatzea eta signaturizatzea helburu duen prozesu teknikoa.

**167.- Liburutegiak erabiltzaileek aldez aurretik kontsultatu edo eskatu dituzten edukiengatik soilik ordaintzen badu, pakete itxirik erosi gabe, hori bildumaren zer kudeaketa-eredu da?**

a) "Prestigioagatiko harpidetzaren" eredua, inpaktu-faktorean oinarritua.
b) Partzuergo bereko liburutegien arteko "truke kooperatiboaren" sistema.
c) PDA (Patron Driven Acquisition) edo DDA (Demand-Driven Acquisition) eredua.
d) "Nukleo-bilduma" (Core Collection) eredu aldaezina.

**168.- Zein da ospitale-liburutegietako bildumaren kudeaketaren helburu nagusia?**

a) Inprimatutako funtsen guztizko bolumena etengabe handitzea, alde batera utzita haien indarraldi klinikoa edo sarbide elektronikoko ereduen aldaketak.
b) Kalitate egiaztatuko informazio zientifikoa eta teknikoa ematea asistentzia, irakaskuntza eta ikerketarako.
c) Literatura medikoaren kontserbazio historikoa lehenestea, praktika asistentzialean erabilitako baliabideak etengabe eguneratzearen ordez.

d) Aurrekontua espezializatu gabeko publikoarentzako dibulgazio orokorreko obretan inbertitzea, bilduma garatzeko ildo nagusi gisa.

**169.- Bildumaren kudeaketaren esparruan, korronte hauetako zein da egun joera estrategikoetako bat Espainiako liburutegietan?**

a) Euskarri fisikoko eskuratzeei lehentasuna ematea euskarri digitalekoen gainetik, objektu digitalen epe luzeko kontserbazioaren ezegonkortasunaren ondorioz.
b) Sarbide irekiko (Open Access) argitalpen-ereduak sendotzea eta gordailu instituzionalak indartzea, hedapen zientifiko estrategikorako.
c) Eskuratze partekatuko sistema kooperatiboak desegitea, zentro bakoitzaren aurrekontu-autonomia indibidualaren alde.
d) Erakunde-gordailua argitaratu gabeko literatura grisera mugatzea, parekoek berrikusitako ikerketa-artikuluak alde batera utzita.

**170.- Bildumaren kudeaketari dagokionez, nola aldatu da liburuzainen egitekoa, big deal eredutik edukiak "despaketatzeko" joerara igarotzean?**

a) Liburuzainek banakako izenburuak ebaluatzeari utzi diote, argitaratzaile handien algoritmoek automatikoki erabakitzen baitute zein eduki den garrantzitsua bildumarako.
b) Aldizkari-pakete handiak erostetik datu errealetan (erabilera eta kalitatea) oinarritutako hautaketa egitera igaro da, eta erosten diren izenburu espezifikoen gaineko kontrola berreskuratu da.
c) Bildumaren kudeaketa jada ez da garrantzitsua, orain diru guztia egileek argitaratzeko gastatzen baita soilik.
d) Liburuzainak liburu fisikoez bakarrik arduratzen dira orain, aldizkari digitalak kanpoko enpresek kudeatzen baitituzte.

**171.- Informazio-bolumena gero eta handiagoa da (infodemia); zaharkitzeari dagokionez, zein da ikertzaileentzako arrisku nagusia?**

a) Gordailu instituzionalen arazketa teknikoa, aipamen elektronikoen tasa txikia duten erregistroak automatikoki ezabatzea eragiten duena.
b) Aurkikuntzen jarraipena egiteko zailtasunak eragin negatiboa izatea norberaren ikerketaren egokitasunean.
c) Bilaketa-tresnek funtzionatzeari uztea datu gehiegi daudelako.
d) Metadatuen osotasuna galtzea datu-base handietan, zerbitzari globaletako gehiegizko trafikoaren ondorioz.

**172.- Osasun-zientzietan espezializatutako liburutegietako bildumen kudeaketaren esparruan, zaharkitze zientifikoaren arazoak garrantzi berezia hartzen du. Zergatik?**

a) Ikerketa klinikoak eta teknologikoak bultzatutako ezagutza zientifiko eta sanitarioaren bilakaera azkarraren ondorioz, etengabe ebaluatu behar dira dokumentu-funtsen indarraldia, egokitasuna eta gaurkotasuna.

b) Diziplina biomedikoen egonkortasun metodologikoari esker, atzera begirako bilduma zabalak mantendu daitezke, berrikuspen sistematikorik egin beharrik gabe, oinarri teorikoek ez baitute ia funtsezko aldaketarik izaten.
c) Sarbide elektronikoa eta lineako argitalpenak orokortzeak berez bermatzen du edukiak automatikoki eguneratzea, eta, horrela, inprimatutako materialen eta material elektronikoen bilduma iraunkorra garbitzeko edo modu kritikoan berrikusteko beharra murrizten da.
d) Liburutegi zientifikoetako ondarea kontserbatzeko politikek lehentasuna ematen diote metatze historikoari materialen aldizkako berritzearen gainetik, gaurkotasun zientifikoa edozein dela ere.

**173.- Liburutegiak kudeatzeko sistemen bilakaerari dagokionez, egungo kudeaketa-ereduak ezaugarri hauek ditu:**

a) Baliabide elektronikoak eta inprimatuak bereizita daude.
b) Inprimatutako baliabideak eta elektronikoak plataforma berean batera kudeatzen dira.
c) Lizentzia digitalen administrazioa soilik zentralizatu da, eta inprimatutako baliabideen kudeaketa sistema independenteen esku utzi da.
d) Datu-baseen eta harpidetutako baliabideen kudeaketari eman zaio lehentasuna, bilduma fisikoei buruzko funtzionaltasunik gehitu gabe.

**174.- Nola lortzen da bilduma egoki eta modu orekatuan eguneratzea?**

a) Garapen- eta kudeaketa-politikak ezartzearen bidez.
b) Dohaintzak etengabe sartzearen bidez, ondarea handitzeko lehentasunezko bide gisa, ezarritako xedearekin eta dokumentu-irizpideekin bat datozen ala ez alde batera utzita.
c) Garbiketa automatikoko prozesuak aldian behin aplikatzearen bidez, materialen antzinatasunean edo zirkulazio txikian oinarrituta, aldez aurretik ebaluazio-analisirik egin behar izan gabe.
d) Dauden funts guztiak digitalizatzearen bidez, bilduma modernizatzeko eta eguneratzeko estrategia nagusi gisa, gaiaren edo erabileraren araberako egokitasun-irizpideak alde batera utzita.

**175.- Bildumen kudeaketaren esparruan, zer da garbiketa edo espurgatzea?**

a) Dokumentuak nahierara ezabatzea espazio fisikoa lortzeko, irizpide teknikorik eta aldez aurreko ebaluaziorik gabe.
b) Dokumentu-kudeaketaren barruko prozesuen multzo bat, materialak aldez aurretik ezarritako irizpideen arabera baztertzea, ezestea eta baztertzea barne hartzen dituena.
c) Hondatutako dokumentuen balio-bizitza berritzera eta luzatzera bideratutako esku-hartze materialeko estrategia.
d) Ondarea kuantitatiboki handitzeko politika bat, bildumaren balizko defizit tematikoak konpentsatzeko.

**176.- Nori dagokio liburutegien arteko mailegu baten eskaeraren hasierako izapidetzea kudeatzea?**

a) Eskatzaileari.
b) Liburutegi eskatzaileari.
c) Liburutegi hornitzaileari.
d) Liburutegi eskatzailearen sareko liburutegi nagusiari.

**177.- Liburutegien arteko mailegua liburutegi-sare desberdinetako liburutegien arteko mailegu-mota berezia da, eta bibliografia-ondareen erabilera ekitatez partekatzean datza. Osasun-zientzien liburutegien esparruan, aldizkari zientifikoetako artikuluak mailegatzean datza batez ere. Adierazi hauetako zein den liburutegien arteko maileguak kudeatzeko software bat:**

a) GTBIB-SOD.
b) Lilacs.
c) FRBR.
d) LOCKSS.

**178.- REBIUN 2024 eskuliburuaren esparruan, obra baten mailegu fisikoa jasotzen denean, nor da azken arduraduna dokumentua galdu edo hondatzen bada?**

a) Azken erabiltzaile eskatzailea, zeinari erantzukizun zibil zuzena baitagokio, jatorrizko erakundearen zerbitzu-erregelamenduaren arabera. Liburutegi mailegatzailea edozein diru-kargatik salbuetsita egongo da, dagokion zehapen-espedientea izapidetu ondoren.
b) Bi erakundeak kide diren partzuergoa edo liburutegi-sarea. Partzuergo edo sare horrek berme-emaile gisa jardungo du konpentsazio-funts solidario baten bidez, ondare-balio handiko funts bibliografikoen lekualdaketan eta aldi baterako gordailuan izandako ezbeharrak estaltzeko.
c) Jatorrizko liburutegia edo liburutegi emailea, kanpoko mailegu-zerbitzuari datxekion arriskua bere gain hartzeagatik eta ahal eskudun bakarra delako ondasun higigarrien aseguruaren estaldurak aplikatzeko erabateko ezbeharra edo degradazio fisiko edota kimiko itzulezina gertatuz gero.
d) Liburutegi eskatzailea.

**179.- Zer ahalbidetzen du “Tramitazioa” moduluak GTBib-SOD barruan?**

a) Gure zentroak egiteke dituen eskaerak ikustea.
b) Erantzuteke dauden eta erreklamatu behar diren eskaerak ikustea.
c) Itzultzeke dauden maileguak ikustea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**180.- Zer baldintza bete behar dituzte erakundeek Artikulu Zientifikoen Truke Konpentsaturako Akordioari (ICAC) atxiki ahal izateko?**

a) Funts bibliografikoak online katalogo baten bidez argitaratzea.
b) Espainiako liburutegi unibertsitarioak edo zientifikoak izatea.

c) Espainiako Unibertsitate eta Zientzia Liburutegien Sareari (REBIUN) atxikita egotea.
d) Aurreko guztiak zuzen daude.

**181.- Zer zerbitzu lor ditzakete doan C17an parte hartzen duten liburutegiek?**

a) MARC21 formatuko erregistro bibliografikoen deskarga masiborako sarbide mugagabea, Z39.50 protokoloen bidez, liburutegi-kudeaketako sistema integratuak (SIGB) migratzeko aurrez aurreko aholkularitzarekin eta haien gordailu instituzionalak hodeian gordetzeko aukerarekin batera.
b) Autoritateak kudeatzeko softwarea erabiltzeko doako lizentzia, antzinako funtsetarako (1900. urtea baino lehenagokoetarako) eskaeraren araberako digitalizazio-zerbitzua eta erakunde kideen artean kopia digitalak hornitzea, mugarik eta kudeaketa teknikoaren kosturik gabe.
c) Tokiko katalogoak automatikoki bateratzea zerbitzu partekatuen instantzia bakar batean (SaaS), jatorrizko zerbitzarietan bikoiztutako erregistroen algoritmo-zuzenketa eta beren aldizkari zientifikoetan identifikatzaile iraunkorrak (DOI) ezartzeko euskarri teknikoa.
d) Zerbitzu nagusia Espainiako Osasun Zientzien Katalogo prestigiotsuenaren eta kontsultatuenaren parte izatea da, C17 osatzen duten liburutegien arteko mailegua erraztuz.

**182.- Dokumentuak eskuratzeko zerbitzuaren (DEZ) kostuen esparruan, zer da IFLAren "Voucher"-en sistema?**

a) Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen programa bat da, eta garapen-bidean dauden herrialdeetako liburutegiei soilik zuzenduta dago. Programa horren bidez, IFLAk datu-base zientifikoetara harpidetzeko kostuen % 100 ordaintzen du, arrakala digitala murrizteko.
b) Liburutegien arteko nazioarteko transakzioetarako ordainketa-sistema bat da.
c) Datuak elektronikoki trukatzeko protokolo bat da (EDI), ILLiad softwarean integratua, eta tokiko dibisetan faktura automatikoak sortzen ditu monografiak erostean dibisa-merkatuaren gorabeherak saihesteko.
d) Egile-eskubideak kudeatzeko software bat da, eta automatikoki kalkulatzen ditu argitaletxeei eskaneatutako artikulu bakoitzeko ordaindu beharreko erregaliak.

**183.- Zer abantaila du DOI (Digital Object Identifier) identifikatzailea erabiltzeak Osasun Zientzietako DEZeko eskaera bat izapidetzean?**

a) Artikuluaren testu osorako doako irispidea bermatzen du, zentroko liburutegia aldizkarian harpidetuta dagoen ala ez kontuan hartu gabe.
b) Liburukiari, zenbakiari eta orrialdeari buruzko datuak nahitaez ordezten ditu Vancouver aipamen-arauetan.
c) Artikuluaren identifikazio unibokoa bermatzen du, aldizkarien izenburuen edo egileen izenen transkripzio-akatsak ezabatuz eta hornitzailearen sistemetan automatikoki lokalizatzea erraztuz.
d) Automatikoki egiaztatzen du artikuluak kalitate handiko parekoen berrikuspen-prozesu bat (peer-review) gainditu duela.

**184.- Zer definitzen du ISO 10160 arauak?**

a) Zerbitzua definitzen du, hau da, liburutegien arteko mailegu-transakzio bat egiteko beharrezkoak diren eragiketen multzoa eta informazio-trukea.
b) Informazioa berreskuratzeko zerbitzua definitzen du eta sistema bibliografikoen artean mezuak trukatzeko protokoloa zehazten du, sareen elkarreragingarritasuna ahalbidetuz.
c) Liburutegien eta Lotutako Erakundeen Nazioarteko Identifikatzailea (ISIL) zehazten du, zeina zentroen identifikazio unibokoa egiteko erabiltzen baita mundu-mailan.
d) Edozein erakunde edo ingurunetan artxibo-dokumentuak kudeatzeko funtsezko printzipioak eta kontzeptuak definitzen ditu.

**185.- Zer dira NILDE eta SUBITO?**

a) ISO 10161 arauan oinarritutako datu-transferentziarako protokoloak dira, eta tamaina handiko fitxategiak liburutegi nazionalen artean zifratuta komunikatzeko aukera ematen dute.
b) Sarbide irekiko softwarean integratuta dauden eskubide digitalak kudeatzeko (DRM) sistemak dira, administrazio-mailegu bidez lortutako artikuluen inprimatze-kopurua mugatzeko.
c) WorldCat-en bi modulu nagusien izenak dira, eta monografia zaharrak eta digitalizatu gabeko funts bereziak berreskuratzeko bakarrik erabiltzen dira.
d) Liburutegien arteko nazioarteko mailegu-sareak eta -plataformak dira.

**186.- Zein ISO arauk ezartzen du liburutegietako sistema informatikoei beren artean elkarreragiteko aukera ematen dien protokoloa (mezuak, ekintzak, komunikazio-arauak), haien hardware- edo software-plataformak edozein direla ere?**

a) ISO 15511.
b) ISO 10161.
c) ISO 23950.
d) ISO 15489-1.

**187.- Zer ondorio zuzen dakar Espainiako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen (JIL) 37. artikuluak liburutegi publikoetako DEZen testuinguruan?**

a) Ikerketa- edo kontserbazio-lanak erreproduzitzeko aukera ematen du, betiere irabazi-asmorik gabe egiten badira.
b) Aukera ematen du liburutegiek deskatalogatutako lanen kopia osoak egin ditzaten liburutegien arteko maileguetarako, betiere azken erabiltzaileak administrazio-tasa bat ordaintzen badio dagokion entitate kudeatzaileari.
c) Ezartzen du liburutegi publikoek kanon finko bat ordaindu behar dutela eskaneatutako eta DEZen bidez digitalki bidalitako orrialde bakoitzeko, helburua ikerketakoa edo komertziala den kontuan hartu gabe.
d) Liburutegiak lege-erantzukizunetik salbuesten ditu DEZen bidez artxibo digitalak partekatzen dituztenean; hala, kopia eskatzen duen erabiltzaileak bakarrik du egile-eskubidea urratzearen erantzukizuna.

**188.- Artikulu Zientifikoen Truke Konpentsaturako Akordioan (ICAC) parte hartzen duten liburutegiek zenbat kobratu behar dute dokumentuen kopiak emateagatik?**

a) Liburutegi hornitzaileek tarifa finko bat sortuko dute urtean, aurreko ekitaldiko mailegu-bolumenaren arabera hainbanatua. Tarifa hori unitateko kostu marjinalaren gainean kalkulatuko da, akordioak indarrean dirauen bitartean emandako artikuluen benetako kopurua edozein dela ere.
b) Batzar Nagusiak ezarritako konpentsazio-tarifa bakarra eta finkoa aplikatuko da, saldo garbi positiboko liburutegien (hornitzaileak) balantzea orekatzeko soilik, eta liburutegi eskatzaileak zuzeneko ordainketatik salbuetsiko dira transakzio indibidual bakoitzeko.
c) Parte hartzen duten liburutegiek baliabideen erabilera partekatua sustatuko dute, dokumentuen kopiak doan emanez.
d) Indarrean dagoen 3,30 €+ BEZ tarifa aplikatu behar da, REBIUN sareak dokumentuak eskuratzeko edozein zerbitzutarako finkatutako prezio estandarra baita.

**189.- REBIUNen 2024ko eskuliburuaren arabera, zein da liburutegi hornitzaileak eskaera bati erantzuteko (onartzeko zein ezesteko izan) ezarritako gehieneko epea?**

a) 24 ordu baliodun.
b) 3 lanegun.
c) 48 lanordu.
d) 4 lanegun.

**190.- Zertan laguntzen diete COUNTER txostenek liburutegiei?**

a) Harpidetutako baliabideen erabilera ezagutzea.
b) Plataformara konektatzen diren erabiltzaileen kopurua eta mota ezagutzea.
c) Saio irekien batez besteko denbora ezagutzea.
d) Harpidetutako baliabideen eta sarbide irekiko baliabideen arteko proportzioa ezagutzea.

**191.- Datu-base batean ukatu diren sarbideak aztertzeko, zer COUNTER 5 txosten eskatu behar da?**

a) DR_D1.
b) DR_D2.
c) TR_B1.
d) TR_B2.

**192.- Sarbidea ukatzeko bi arrazoi daude: baliabide horretarako lizentziarik ez izatea edo aldi bereko saioen kopurua gainditzea. COUNTER 5 txostenetan, desberdin kontabilizatzen dira?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Datu-baseak direnean bakarrik.
d) Harpidetu beharreko baliabideak direnean bakarrik.

**193.- COUNTER 5 txostenetan, kontzeptu hauetako zein dago jasota ITEM terminoan?**

a) Plataforma
b) Datu-basea.
c) Elementua.
d) Aurreko bakar bat ere ez.

**194.- TR_J1 eta TR_J3ren arteko aldea da datu desberdinak biltzen dituztela honako honen arabera:**

a) Sarbide mota.
b) Hornitzaile mota.
c) Eduki mota.
d) Metrika mota.

**195.- Zer txostenetan jasotzen da argitalpen-urtearen araberako banakapena?**

a) TR_J1.
b) TR_J2.
c) TR_J3.
d) TR_J4.

**196.- COUNTER 5eko metrika motak kontuan hartuta, liburu bateko kapitulu bat ikustea edo deskargatzea...**

a) Total_Item_Investigations metrikari gehitzen zaio.
b) Total_Item_Requests metrikari gehitzen zaio.
c) Bi metrikei gehitzen zaie.
d) Ez zaio aurreko metriketako bati ere gehitzen.

**197.- Plataforma batean, testu oso batera sartzean, testu hori HTML formatuan agertzen bada lehenespenez eta erabiltzailea .PDF bertsiora sartzen bada, nola geratzen dira metrikak?**

a) Total_Item_Request = 3 eta Unique_Title_Request = 2.
b) Total_Item_Request = 2 eta Unique_Title_Request = 1.
c) Total_Item_Request = 1 eta Unique_Title_Request = 1.

d) Total_Item_Request = 2 eta Unique_Title_Request = 2.

**198.- Argitalpen-plataforma batean bilaketa bat egiten denean, bere datu-baseetara mugatu gabe, jarduera honako metrika hauetan islatzen da:**

a) Searches Platform eta Searches Regular.
b) Searches Platform eta Searches Automated.
c) Searches Platform eta Searches Federated.
d) Searches Platform.

**199.- Zein txostenetan jasotzen da Unique_Title_Requests metrika?**

a) TR_B1.
b) TR_J1.
c) TR_J3.
d) IR_A1.

**200.- Adierazi COUNTER 5 txosten hauetako zeinek jasotzen duen sarbide irekiko baliabideen erabilera:**

a) PR_P1.
b) DR_D1.
c) TR_B1.
d) Horietako batek ere ez.

**201.- Noiz jo behar da sistemaren jarduera bat bilaketa gisa?**

a) Bilaketa bat egiten denean edo emaitza bat identifikatzen duen esteka bat ebazten denean.
b) Bilaketa bat egiten denean, emaitzen multzo bat lortzen denean, baina bakar batean sartzen ez denean.
c) Bilaketa bat egiten denean eta bilaketa horrek emaitza-multzo berri bat ematen duenean.
d) Bilaketa bat egiten denean eta bilaketa horrek emaitzarik ematen ez duenean.

**202.- COUNTER 5 txostenetan, 0 baino balio handiagoko metrikak ager daitezke, harpidetu ez diren baliabideei buruzkoak?**

a) Bai.
b) Ez.
c) TR_J1en bakarrik.
d) TR_B1en bakarrik.




**203.- COUNTERen zein bertsio da eguneratuena?**

a) 4.0.
b) 5.0.3.
c) 5.1.0.1.
d) 6.0.2.

**204.- Eragin-faktorea aldizkari batek komunitate zientifikoan izan duen eragina neurtzen saiatzen den adierazlea da. Adieraz ezazu zein den erantzun ZUZENA adierazle horri dagokionez:**

a) Aldizkari bateko artikuluak hurrengo hiru urteetan zenbat aldiz aipatu diren neurtzen du.
b) Eragin-faktorea hainbat diziplinetako aldizkarietako artikuluak alderatzeko gomendatzen den adierazlea da.
c) Eragin-faktorea aldizkari batek aurreko bi urteetan jasotako aipamenen batez besteko balioa da, eta uneko urtean aldizkari horretan argitaratutako edozein artikuluren baliotzat hartzen da.
d) Adierazle horrek lotura zuzena du metrika alternatiboekin.

**205.- Adierazi metrika alternatiboei (altmetrikak) buruzko esaldi hauetatik zein den GEZURRA:**

a) Metrika alternatiboek ez dute bibliometria ordezten, baizik eta osatu egiten dute.
b) Sare sozialetan, blogetan, wikietan eta truke-sareetan (erabat edo partzialki akademikoak) banatutako informazio akademikotik edo ikerketarekin lotutakotik bildutako adierazleak dira.
c) Ikerketaren eragin soziala nahiz kalitatea neurtzen dituzte.
d) Bibliometria tradizionalak jada kontuan hartzen zuen ikerketaren eragin soziala.

**206.- Bibliometrian, zer adierazten du h indizeak?**

a) Eragina.
b) Emaitzak.
c) Ikusgaitasuna.
d) Jarduna.

**207.- Zein da San Frantziskoko Adierazpenaren (DORA) funtsezko premisa?**

a) Aldizkarien eragin-faktorea soilik erabiltzea ikertzaileen jarduera ebaluatzeko.
b) Dokumentu mailan adierazleen erabilera sustatzea, bai eta ikerketa-jarduerak argitaratzeko eta ebaluatzeko prozesuarekin lotutako praktika ireki eta gardenen erabilera ere, adierazle bakarra erabiltzera mugatu gabe.
c) Ikertzaileen ebaluazioa egindako argitalpen kopurura mugatzea.
d) Metrika bibliometriko guztien ordez binakako iritzi-inkestak ezartzea.

**208.- Noiz sortu zen DORA?**

a) 2005.
b) 2010.
c) 2012.
d) 2015.

**209.- Zein da ebaluazio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko erlazio zuzena, Leidengo Manifestuaren arabera?**

a) Ebaluazio kuantitatiboak kualitatiboa erabat ordeztu behar du.
b) Ebaluazio kualitatiboa pixkanaka ezabatu behar da.
c) Ebaluazio kuantitatiboak adituen balorazio kualitatiboa lagundu behar du.
d) Biak bereiz aplikatu behar dira, erlaziorik gabe.

**210.- Printzipio hauetako zein EZ DA jasotzen Leidengo Manifestuan?**

a) Tokiko garrantzi handiko ikerketaren bikaintasuna babestu behar da.
b) Datuak biltzeko eta aztertzeko prozesuek irekiak, gardenak eta errazak izan behar dute.
c) Ebaluatuek datuak eta analisiak egiaztatu ahal izango dituzte.
d) Eremu zientifikoen artean argitalpen eta aipamen jardunbideetan dauden aldeak ez dira kontuan hartu behar.

**211.- Jardunbide hauetako zein EZ da jardunbide egokitzat hartzen bibliometrian?**

a) Metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzea beti.
b) Aipamenaren testuinguruaren analisia erabiltzea.
c) Zientzialarien rankingak ezartzea, adierazle kuantitatibo bakarra kontuan hartuta.
d) Ikertzaileen profil tematiko espezifikoak aztertzea.

**212.- Zer fenomeno deskribatzen du Lotkaren Legeak?**

a) Finantzaketaren eta ikertzaileen kopuruaren arteko erlazioa.
b) Zientzia-produktibitatearen banaketaren desparekotasuna egileen artean.
c) Aldizkari zientifikoen eragina.
d) Nazioarteko lankidetza ikerketan.

**213.- Zein da Bradford Legearen kontzeptu nagusia?**

a) h indizea.
b) Gai batean espezializatutako aldizkarien nukleoa.
c) Literatura zientifikoaren zaharkitzea.
d) Nazioarteko egilekidetza.

**214.- Gai jakin bati buruzko azterlan bibliometriko batean, 120 artikulu identifikatu dira, Bradford Legearen arabera 3 eremutan banatuta, eta bakoitzak artikulu kopuru bera du gutxi gorabehera. Nukleoa (1. eremua) 5 aldizkariz osatuta badago, zenbat aldizkari egongo dira, gutxi gorabehera, 2. eremuan eta 3. eremuan, banaketak ohiko progresioa badu: $1 : n : n^2$ eta n = 3?**

a) 2. eremua: 10 aldizkari; 3. eremua: 15 aldizkari.
b) 2. eremua: 15 aldizkari; 3. eremua: 45 aldizkari.
c) 2. eremua: 20 aldizkari; 3. eremua: 60 aldizkari.
d) 2. eremua: 25 aldizkari; 3. eremua: 75 aldizkari.

**215.- Ikertzaile batek h = 33 indizea du. Interpretazio hauetatik, zein da zuzena?**

a) 33 artikulu argitaratu ditu zehazki.
b) Gehien aipatutako 33 artikuluetako bakoitzak 33 aipamen jaso ditu gutxienez.
c) Gutxienez artikulu bat dauka, 33.000 aipamenekin.
d) Bere artikulu guztien aipuen batez bestekoa 33 da.

**216.- Zer esan nahi du h = 33 balioak?**

a) Artikuluen erdiak 33 aldiz aipatu dira.
b) Artikulu bakoitzeko 33 aipuko aipamen-maila metatua lortu du ekoizpen osoan.
c) Zerrenda ordenatuan, bere 33. artikuluak ≥ 33 aipamen ditu, baina 34. artikuluak < 34 aipamen ditu.
d) 66 artikulu izan behar ditu gutxienez, 33 aipamen edo gehiagorekin.

**217.- Ondorengo adierazpenetatik, zeinek adierazten du zuzen n urteko aldizkari baten berehalakotasun-indizearen (II) kalkulua?**

a) II = (aldizkarian aurreko bi urteetan argitaratutako artikuluek jasotako aipamenen guztizko kopurua n urtean)/(bi urte horietan argitaratutako artikuluen kopurua).
b) II = (aldizkaria sortu zenetik aldizkarian argitaratutako artikulu guztiek jasotako aipuak n urtean)/(aldizkariak historikoki argitaratutako artikuluen guztizko kopurua).
c) II = (n urtean bertan argitaratutako artikuluek n urtean jasotako aipamenak)/(n urtean aldizkariak argitaratutako artikuluen kopurua).
d) II = (n urtean argitaratutako artikuluek hurrengo bost urteetan jasotako aipamen metatuak)/(n urtean argitaratutako artikuluen kopurua).

**218.- Aukera hauetako zeinek deskribatzen du zehatzago VOSviewer-en funtzionalitate nagusia?**

a) Erreferentzia bibliografikoen kudeatzaile bat da, dokumentu akademikoak automatikoki antolatzeko eta aipatzeko diseinatua.
b) Dokumentuen, aldizkarien, egileen edo terminoen baterako agerpena aztertuz sare bibliometrikoak sortzen eta irudikatzen dituen programa bat da, clustering algoritmo aurreratuak eta hizkuntza naturala prozesatzeko teknikak erabiliz.

c) Informazioa berreskuratzeko software bat da, literatura zientifikoa eragin-faktorearen arabera indexatzen duena.
d) Ebaluazio akademikorako plataforma bat da, h indizea edo SJR bezalako adierazleak zuzenean Web of Science eta Scopus datu-baseetatik kalkulatzeko.

**219.- Question Point erreferentzia birtual kooperatiboko proiektu bat da. Adieraz ezazu zein den erantzun OKERRA zerbitzu horri dagokionez:**

a) Erabiltzaileak egindako galderari partzuergo horretako kide den munduko edozein liburutegik erantzuten dio.
b) Erabiltzaileak egindako galderari partzuergo horretako kide den Estatu Batuetako edo Kanadako edozein liburutegik erantzuten dio.
c) Txat-zerbitzua erabiltzen du erabiltzaileekin komunikatzeko.
d) Ezagutzaren datu-base bat du, galderak eta erantzunak artxibatzeko.

**220.- Liburutegietako informazio-zerbitzuetako erreferentziazko elkarrizketa...**

a) Aurrez aurreko interakzio bat bakarrik da, eta erabiltzaileak iturriak jasotzen ditu bere informazio-beharrak aztertu edo argitu beharrik gabe.
b) Liburuzainaren eta erabiltzailearen arteko bitartekaritza-prozesu bat da, erabiltzailearen informazio-beharrak argitzeko eta behar duen informazioa aurkitzeko laguntza pertsonalizatua emateko.
c) Bilaketa automatizatuak egiteko prozesua da, tresna teknologikoen bidez, erreferentziazko langileen zuzeneko esku-hartzerik gabe.
d) Kontsulta konplexuetarako soilik erreserbatutako hautazko prozedura bat da, eta ez da oinarrizko kontsultetan edo testuinguru digitaletan erabiltzen.

**221.- Ospitale-liburutegien esparruan, zein da informazio-zerbitzua emateko metodologiaren oinarrian dagoen funtsezko helburua?**

a) Lizentzia elektronikoen eta baliabide digitalen lehentasunezko kudeaketa liburutegi-jardueraren ardatz nagusi gisa.
b) Profesionalek beren jardunean dituzten informazio-beharrak asetzea, osasun-erakundearen helburu estrategikoekin bat etorriz.
c) Bildumaren bolumena kuantitatiboki handitzea, zerbitzuaren kalitatearen adierazle nagusi gisa.
d) Dokumentu fisikoen mailegua maximizatzea, liburutegiaren errendimendua ebaluatzeko irizpide gisa.

**222.- Osasun-zientzietan espezializatutako liburutegi batean, zerk justifikatzen du datu-baseetan bilaketak egiteko baliabideen kostu handia?**

a) Aldizkarien harpidetza historikoak paperean mantentzeko betebeharra, lege-araudiari jarraiki.
b) Iturriak erabiltzailearen behar kritikoetara egokitzea (ikerketa/klinika).
c) Liburutegien arteko mailegu-sare nazionalek aplikatutako kudeaketa-kanon handia.
d) Liburutegiko erreserba-funtserako digitalizazio masiboko protokoloak ezartzea.

**223.- Informazioaren hedapen selektiboko (IHS) zerbitzuen kudeaketaren ikuspegitik, zer ekintza jotzen da beharrezkotzat iturriak erabiltzaileen beharretara egokitzeko?**

a) Bilaketa-profilak modu automatizatuan zabaltzea, hizkuntza naturalak kontrol terminologikorik gabe erabiliz.
b) Monografia fisikoak eskuratzeari lehentasuna ematea baliabide digitalen gainetik, funtsaren egonkortasuna bermatzeko.
c) Aldizkako inkestak egitea, emaitzen egokitasun-maila baloratzeko.
d) Erabiltzaile indibidualen profilen ordez kategoria orokorrak ezartzea, erakundearen saileko arloan oinarrituta.

**224.- Ospitaleko liburutegiaren ezaugarri nagusia zera da:**

a) Medikuntza- eta erizaintza-fakultateen etengabeko prestakuntzako sailekiko lotura organiko eta administratibo esklusiboa du.
b) Baliabide bibliografiko fisiko eta digitalak zentralizatzen dira, soil-soilik osasun-zentroaren kudeaketa administratiboan eta gerentzialean laguntzeko.
c) Ospitale batean dago eta informazio-zerbitzuak eskaintzen dira asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-erabakiak hartzeko.
d) Informazio birtualeko sare eta partzuergoetarako sarbide-puntu periferikoa da, eta liburutegien arteko dokumentu-hornidura du eginkizun.

**225.- Osasun-zientzietako liburutegien egungo estandarren eta funtzio berrien arabera, zer eginkizun bete behar du zentroak erabiltzaileen prestakuntzari dagokionez?**

a) Zuzeneko asistentzia klinikoan laguntzera mugatu behar da, horretarako ebidentziak bilatuz.
b) Funtsezko egitekoa du informazio-gaitasunen prestakuntzari begira, eta ofizialki txertatu behar da erakundearen prestakuntza-planetan.
c) Dokumentu-horniduraren funtzio logistikoa eta bilduma fisiko eta digitalaren administrazio-kudeaketa lehenetsi behar ditu.
d) Zentroaren prestakuntza-lanak ikertzaileak soilik izan behar ditu ardatz, egoiliarrak eta erizainak alde batera utzita.

**226.- Zein da osasuneko informazio-zerbitzuek aurre egin beharreko erronka handienetako bat teknologia berrien garapenari begira?**

a) Zerbitzari fisiko lokalen mantentze-kostu handia hodeian biltegiratzearen aldean.
b) Profesionalaren irizpide klinikoa behin betiko ordeztea, adimen artifizialean oinarritutako erabakiak hartzeko euskarri-sistemak ezarriz.
c) Informazioaren hazkunde esponentziala eta informazioaren kalitatea iragazteko tresnen beharra.
d) Kudeaketa bibliografikoko sistemen eta historia kliniko elektronikoen arteko elkarreragingarritasunerako zailtasuna.

**227.- Zein da osasun-erakunde bateko langileen osasun-alfabetatzea eta gaitasun digitalak ebaluatzearen helburu nagusia?**

a) Aurrezko aurreko prestakuntza-programa tradizional guztien ordez, pixkanaka, bakarrik online diren autoikaskuntza-sistemak ezartzea.
b) Prestakuntza-gabezia zehatzak identifikatzea eta zentroaren benetako beharretara egokitutako hobekuntza-programa espezifikoak ezartzea.
c) Lanbide-produktibitatearen rankingak eta soldata-baremoak ezartzea, hautemandako trebetasun digitalaren mailan hertsiki oinarrituta.
d) Medikuntza klasikoko tratatuen azalen egoera egiaztatzea, erreserba-gordailura pasatzea erabakitzeko.

**228.- Eduki-edizioa informazio espezializatuko zerbitzu gisa; estrategikoki, zein eremu funtzional ditu helburu literatura zientifikoaren kudeaketa-helburuak betetzeko?**

a) Marketin digitala eta aurrekontuen kudeaketa bakarrik.
b) Datuen baterako bilketa, erreferentzia-zerbitzuak, irakurleei aholkularitza ematea, bilduma garatzea, datuak artxibatzea eta informazioa zabaltzea.
c) Mailegu fisikoa datu-base generikoetara urrunetik sartzearekin ordezkatzea.
d) Monografia zaharrak MARC21 formatuan automatikoki katalogatzea.

**229.- Osasun-zientzietako informazio- eta erreferentzia-zerbitzuen helburuen eta metodologiaren esparruan, kalitatearen kontzeptua honela definitzen da:**

a) Kanpoko ziurtapenaren baldintzak betetzea ISO arauak betez, dokumentuen estandarizazioa lehenetsiz barne-ebaluazio kualitatiboko prozesuen gainetik.
b) Erabiltzaileek adierazitako premiak edo premia inplizituak asetzea ahalbidetzen duten propietateen eta ezaugarrien multzoa.
c) Erositako baliabide elektronikoen sofistikazio teknologikoaren maila, edozein dela ere langile fakultatiboen eta egoiliarren erabilera-tasa edo azken gogobetetasuna.
d) Adierazle kuantitatiboa da, batez ere artatutako kontsulten kopuruan eta zerbitzuaren erantzun-azkartasunean oinarritua, erabaki klinikoak hartzean izandako benetako eragina kontuan hartu gabe.

**230.- Ebidentzian oinarritutako jardunaren metodologian, zer premisa bete behar ditu ondo eraikitako galdera batek?**

a) Laburra izatea eta hizkuntza komuna erabiltzea.
b) Ingelesez idatzita egotea eta aurretiazko egileak aipatzea.
c) Ospitaleko etika-batzorde batek onartzea.
d) Identifikatutako arazoari begira esanguratsua izatea eta erantzun zehatza bilatzen laguntzea.




**231.- Zer harreman dago osasun-zientzietako liburuzainen eta Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzaren (EOM) artean?**

a) Liburuzainek ez dute EOMn esku hartzen, zeregin medikoa bakarrik baita.
b) Liburuzainak funtsezko laguntzaileak dira, eskuragarri dagoen ebidentzia zientifiko onena aurkitzen eta ebaluatzen baitute.
c) Liburuzainek datu-base biomedikoen harpidetzen administrazio-kudeatzaile gisa bakarrik esku hartzen dute EOMn, eta ez dute galdera klinikorik egiten edo bilaketa egituratuko estrategian parte hartzen.
d) Liburuzainek medikuak ordezkatu behar dituzte azken erabaki terapeutikoak hartzeko orduan.

**232.- Osasun-zientzietako liburutegietako informazio-zerbitzuei dagokienez, 2030 Agenda txertatzea honako arrazoi hauengatik justifikatzen da nagusiki:**

a) Erreferentziako zerbitzu tradizionalak ingurumen-programekin ordezkatzea ahalbidetzen du.
b) Liburutegi-jarduera gizarte-sektore guztietan txertatu beharreko helburu unibertsalekin lotzen du.
c) Liburutegien jarduera ospitale-esparrura mugatzen du.
d) Erosketa-politika soilik birformulatzera behartzen du.

**233.- Pazienteentzako informazioa duten gero eta baliabide gehiago daude eskuragarri ospitaleko liburutegian. Tresna hauetatik zein EZ dago liburutegia kontsultatzen duten pazienteen esku?**

a) Pazienteentzako blogak.
b) Informazio-diptikoak.
c) Pazienteentzako informazio medikoa duten sare sozialak.
d) Ospitaleko pazienteen historia klinikoak.

**234.- Zer da letren orgatxoa?**

a) Pazienteentzako Liburutegien Sareko Osasun eta Irakurketa programa egituratzen duten elementuetako bat da; izan ere, liburutegi mugikorraren funtzioa betetzeaz gain, liburutegiak berak egiten dituen ekintzak ikusarazten ditu.
b) Unitate mugikorren bidez desinfektatzeko eta berrogeialdi ultramorea egiteko protokoloa da. Funts bibliografikoak isolamendu zorrotzeko eta immunodeprimituen unitateetan txandakatzeko diseinatuta dago, eta inprimatutako materialaren trazabilitate mikrobiologikoa bermatzen du pazientearen segurtasun-araudiaren arabera.
c) Euskarri tekniko eta pedagogiko mugikorreko unitatea da, eta paziente kronikoen alfabetatze digitala du helburu. Telemedikuntzako plataformetarako eta e-osasuneko baliabideetarako sarbidea errazten du, altzari klinikoen egituran integratutako ukipen-terminalen bidez.
d) Terapia okupazionaleko ekimen bat da. Pazienteek beren bizipenak idazten dituzte koaderno batean, eta ospitaleko solairu osoan zehar bidaiatzen doa.

**235.- Honela defini daiteke biblioterapia:**

a) Teknika hertsiki klinikoa eta psikiatrikoa da, eta tratamendu farmakologikoa ordezkatzen du testu zientifikoen irakurketa zuzenduarekin, nortasun-nahasmendu larriak dituzten pazienteetan.
b) Liburutegi publikoetan lan klasikoak katalogatzeko eta gomendatzeko prozesua da, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden herritarren kultura-maila eta alfabetatze funtzionala hobetzeko helburu bakarrarekin.
c) Banakako edo taldeko irakurketa laguntzaile terapeutiko gisa erabiltzea medikuntzan eta psikiatrian.
d) Medikuntza tradizionalaren adar bat da, eta kaligrafia eta eskuizkribu zaharren idazketa erabiltzen ditu goiko gorputz-adarretako lesio motor txikiak birgaitzeko metodo gisa.

**236.- Ospitale batean pazienteentzako liburutegi bat instalatzeko, aldez aurreko azterketa bat egin behar da, hainbat gairekin lotutako parametroak ezartzeko, besteak beste:**

a) Funts tekniko medikoen txandakatze-ratioa, ospitale-kudeaketako sistemen eta katalogo publikoaren (OPAC) arteko elkarreragingarritasuna eta paperezko monografietarako desinfekzio kimiko erasokorreko protokoloak ezartzea.
b) Ospitalea (tipologia ebaluatu beharko da, baita titulartasuna (publikoa edo pribatua), tamaina, finantzaketa, pazienteen kopurua, batez besteko egonaldia eta abar ere) eta erabiltzailea (profila ezarri behar da, hau da, helduen eta haurren kopurua, kultura-maila, literatura-lehentasunak eta abar ezagutzea).
c) Zorrotz betetzea ISO 27001 araua, datu bibliografikoak babesteko eta liburutegia udalerriko liburutegi publikoen sarean nahitaez sartzeko, liburutegien arteko mailegu masiboa bermatze aldera.
d) Zerbitzua kanpora ateratzea ospitale-logistikako enpresen bidez, formatu handiko eta azal gogorreko aleak erosteari lehentasuna emanez, itxarongeletan eta igarobideetan errazago aurkitzeko.

**237.- Espainiako pazienteentzako liburutegien historiaren esparruan, zein esan daiteke dela aurrekaria?**

a) Ospitale militarretako liburutegiak, hainbat lege-xedapenek ezarritakoak, hala nola 1883ko otsailaren 6ko Aginduak, zeinaren bidez Espainiako itsas armadaren ospitaleetako liburutegiak sortu baitziren.
b) “Presoen Liburutegiak”, 1881eko Zigor Establezimenduen Erregelamendu Orokorrak arautuak.
c) Karitateko Damen Batzordeek XVIII. mendean Errege Patronatuko Ospitaleetan bultzatutako “Aretoko Liburutegiak”.
d) Kataluniako Mankomunitateko gizarte-laguntzako sareko herri-liburutegiak.

**238.- Zer erabiltzaile mota aurki ditzakegu pazienteentzako liburutegi batean?**

a) Egonaldi laburreko unitateetan ospitaleratutako pazienteak eta haien zuzeneko senideak soilik, ospitaleko “hutsartea” arintzeko aisiako literatura bilatzen dutenak; informazio medikorako sarbidea ez dago onartuta, autodiagnostikoa saihesteko.

b) Ospitalekoak ez diren baina patologia arraroen funtsetan espezializatuta egoteagatik zentrora joaten diren pertsonak soilik. Udal-liburutegi publikoaren eranskin gisa jardungo du, liburutegien arteko mailegu-hitzarmen baten pean.

c) Medikuak eta egoiliarrak (BAME/BAEE), zeinak, liburutegi mediko edo zientifikoa gainezka egoteagatik, pazienteentzako liburutegia erabiltzen duten baliabide teknikoen eta indexatutako datu-baseen funtsezko iturri gisa, inpaktu handiko ikerketa klinikorako.

d) Pazienteak edo egoiliarrak eta haien senideak; baliteke ospitaleratu gabeko pazienteak edo etxeko tratamendua jasotzen dutenak ere artatzea, baita ospitaleko langileak ere.

**239.- Zer ezaugarri izan behar dituzte pazienteentzako liburutegi bateko liburuzainek?**

a) Katalogazio medikoko sistemei eta datu-base zientifikoen kudeaketari buruzko prestakuntza tekniko aurreratua bakarrik izatea, eta ikerketa klinikoa lehenestea erabiltzaileen arretaren gainetik.

b) Bulegotikako oinarrizko ezagutzak dituzten erizainak izatea, eta haien eginkizun nagusia material inprimatua banatzea izatea, nahitaez irakurri beharrekoari buruzko agindu medikoak zorrotz beteta.

c) Liburutegiko tekniketan, prozesuetan eta eragiketetan behar besteko prestakuntza izatea, trebetasun sozialak izatea eta enpatia eta psikologia sozialeko maila handia izatea.

d) Kanpoko animazio soziokulturalean espezializatuta egotea, bildumen kudeaketari buruzko prestakuntza beharrezkoa izan gabe, eta funts bibliografikoarekin zerikusirik ez duten ekitaldi ludikoak antolatzea.

**240.- Zer funtsezko desberdintasun dago liburutegi publiko baten eta pazienteentzako liburutegi baten artean, erabiltzaileentzako zerbitzuei dagokienez?**

a) Ez dago desberdintasun funtzionalik; izan ere, biak dira irakurketa-sare publikokoak, eta etxeko maileguaren eta aretoko kontsulta-zerbitzuen katalogo bera eskaini behar dute, indarrean dagoen araudia betetzeko.

b) Erabiltzaileen egoera berezia kontuan hartuta, zerbitzuen hurbilketa alderantzizkoa da: liburuzainak joaten dira erabiltzaileengana, eta ordutegiak pazienteentzako erosoenak dira.

c) Pazienteentzako liburutegia osasun-langileek kontsultatzeko liburu mediko eta teknikoen gordailu bat da; liburutegi publikoak, aldiz, aisiarako literatura eskaintzen du publiko orokorrarentzat.

d) Alde bakarra aurrekontuan dago; izan ere, liburutegi publikoa udal-funtsen bidez kudeatzen da, eta pazienteena, berriz, dohaintza pribatuen eta boluntarioen bidez soilik, erreferentziazko zerbitzurik eskaini gabe.

**241.- Erabiltzaile guztiei arreta emateko, non egon behar du pazienteentzako liburutegi batek?**

a) Ospitaleko administrazio-solairuan, liburuzainak giza baliabideen zuzendaritzatik eta kudeaketatik gertu daudela bermatzeko.

b) Asistentzia-eremuetatik bereizitako gune batean, ahal dela eraikin erantsi batean edo kultura-pabiloi independente batean, erabateko isiltasuna bermatzeko eta erabiltzaileen fluxuak jarduera klinikoa eta larrialdiak oztopa ez ditzan.

c) Pediatriako edo geriatriako eremuan; izan ere, egonaldi luzeetan, estatistikoki, aisialdian gehien irakurtzen duten eta biblioterapia-jardueren eskari handiena duten biztanleria-taldeak dira.

d) Ospitalearen erdialdean, solairuetako pazienteak erraz iristeko eremu batean eta ospitaleratu gabeko pazienteen, langileen eta bisitarien eskura.

**242.- Pazienteentzako liburutegien esparruan, edukierari dagokionez, egonaldi luzeko erakundeetan, zenbat irakurpostu egon behar dira IFLAren jarraibideen arabera (69. txostena)?**

a) Ohe kopuruaren % 15 eta % 20 bitartean.

b) Gutxienez bi irakurpostu 25 egoiliarreko, eta irakurpostuen % 50 gutxienez gurpil-aulkian dauden erabiltzaileentzat irisgarriak izatea.

c) Irakurpostu bat 15 erabiltzaileko, azalera osoaren % 10 lagunduriko teknologia-gailuetarako utzita.

d) Hiru eta bost irakurpostu finko bitartean 50 oheko, pazienteen txandakatze-indizea edozein dela ere.

**243.- Zer dira maleta bidaiariak?**

a) Liburutegien arteko nazioarteko mailegu-programa bat da, atzerriko herrialdeetako pazienteei liburuak jatorrizko hizkuntzan irakurtzeko aukera ematen diena, Osasun Ministerioak kudeatutako baliza diplomatikoen bidez.

b) Liburutegien arteko mailegu-zerbitzu espezializatua da, funts bibliografiko teknikoak eta autozainketako eskuliburuak garraiatzen dituena lehen mailako arretako osasun-zentroen eta egonaldi luzeko ospitalizazio-unitateen artean.

c) Mailegurako baliabide ibiltaria da, eta helburua da ospitale-ingurunera edertasun pixka bat hurbiltzea literaturaren bidez.

d) Liburutegi medikoetako funts zaharkituak garbitzeko soilik erabiltzen diren biltegiratze fisikorako gailuak dira. Gobernuz kanpoko erakundeei ematen zaizkie, garapen-bidean dauden herrialdeetan banatzeko.

**244.- Kultura eta Kirol Ministerioak finantzatutako Osasun eta Irakurketa programa 2004an jarri zen abian. Pazienteentzako Liburutegien Sarea programa horren barruan dago. Adierazi helburu nagusitzat hartzen EZ direnak:**

a) Ospitaletik pasatzen diren pertsonak entretenitzea, baita zerbitzua erabili nahi duten laguntzaileak eta senideak ere.

b) Sendatzea erraztea, bakardade- eta isolamendu-sentsazioak murriztuz eta konexio sinaptikoak areagotuz.

c) Irakurketa sustatzeko paziente eta erabiltzaileei zuzendutako kultura-jarduerak areagotzea ospitaleetan.

d) Paziente kronikoentzako sarbide irekiko gordailu digital bakarra sortzea, medikuek soilik zuzendutako biblioterapia klinikorako, irakurketa fisikoko puntuen ordez

ospitaleko gerentzia-zerbitzuek kudeatutako irakurketa elektronikoko terminalak jartzeko.

**245.- Osasun mentalaren esparruan, zein da irakurketa sustatzeko aliatu nagusienetako bat?**

a) Literatura teknikoko gordailuak jartzea zainketa intentsiboetako unitateetan.
b) Album-liburua edo album ilustratua.
c) Flesch-Szigriszt irakurgarritasun-indizea, prospektu farmakologikoetan aplikatuta.
d) Literatura-kanon klasikoan soilik oinarritutako biblioterapia harkorra.

**246.- Zein da pazienteentzako liburutegiaren helburuetako bat?**

a) Ideia hau sustatzea: irakurketa, askotan, ospitaleratutako pertsonen sostengu bakarrenetakoa, eta, agian, onena da.
b) Medikuei ebidentzian oinarritutako medikuntzaren (EOM) azken datu-baseetarako sarbidea bermatzea.
c) Egoiliarren (BAME) ikerketa klinikorako laguntza bibliografiko espezializatua ematea eta PubMed edo Cochrane Library bezalako datu-base harpidetuetarako sarbidea erraztea.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**247.- Zertarako EZ DU BALIO informazio-alfabetatzeak (ALFIN)?**

a) Informazio-behar bat detektatzeko eta definitzeko.
b) Informazioa aurkitzeko metodo eta teknika egokiak ezagutzeko.
c) Berreskuratutako informazioa ebaluatzeko eta iragazteko.
d) Erakunde baten informazio-filosofia handitu eta zabaltzeko.

**248.- Informazio-alfabetatzea (ALFIN) aurrerapauso bat izan da erabiltzaileen prestakuntza tradizionaletik. Adierazi honako hauetatik zein EZ dagokion ALFIN sustatzeko ekimen bati.**

a) Alfamedia.
b) E-Coms (Electronic Content Management Skills) ataria.
c) European Network on Information Literacy (EnIL).
d) Feedly.

**249.- Zer ezaugarri nagusi du informazio-alfabetatzeak kultura digitalaren esparruan?**

a) Gailu elektronikoak eta aplikazio digitalak erraztasunez erabiltzeko gaitasuna, trebetasun teknikoa informazio-edukien ebaluazio kritikoaren gainetik lehenetsita.
b) Informazioa hainbat formatutan eskuratzeko, ebaluatzeko, ekoizteko eta zabaltzeko gaitasuna.
c) Bilaketa automatizatuko tresnak eta adimen artifizialeko sistemak ondo menderatzea, dokumentu digitalak lortzeko azkartasuna maximizatzeko.

d) Multimedia-formatu berrietara egokitzea —sare sozialak, podcastak eta bideo-plataformak— informazioa eskuratzeko ardatz nagusi gisa, iturrien fidagarritasuna aztertzea alde batera utzita.

**250.- Osasunaren esparruan, zer dakar ALFINek?**

a) Tresna digital sanitarioen ezagutza teknologikoa.
b) Informazio klinikoaren premia bat identifikatzeko, ebidentzia zientifikorik onena aurkitzeko, modu kritikoan ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko garaian etikoki aplikatzeko gaitasuna.
c) Ospitaleko datu-base biomedikoen erabilera aditua.
d) Informazio klinikoaren kudeaketa administratiboa.

**251.- Informazio-alfabetatzeko programak honako hauek aldi berean sustatuta planifikatu behar dira:**

a) Datuen metaketa eta ziurtapen akademikoa.
b) Diziplina-memorizazioa eta bilatzaileen erabilera teknikoa.
c) Informazioa eskuratzea, informazioa adieraztea/hedatzea eta gizarte-komunikazioa.
d) Funts analogikoak euskarri digitaletara migratzea eta kontsultarako hardwarea optimizatzea.

**252.- Zer onura dakar informazio-gaitasunei buruzko prestakuntza erabiltzaileen garapen profesionalean integratzeak?**

a) Ospitalean ikerketa zientifikoa egiteko beharra gutxitzen du.
b) Erabaki klinikoak hartzea hobetzen du, eskura dagoen ebidentziarik onenean oinarrituta.
c) Kontsulta klinikoko denborak murrizten ditu, irakurketa kritikoaren ordez automatikoki sortutako laburpenak erabiltzen baitira.
d) Barne-protokoloen baliozkotzea automatizatzen du, gordailu instituzionalak eguneratzearen bidez.

**253.- Nola diseinatu behar dira osasun-arloan espezializatutako liburutegi baten informazio-programak eta -produktuak?**

a) Osasun-langile ikertzaileak soilik kontuan hartuta, pazienteak eta senideak alde batera utzita, gehiegizko informazioa saihesteko.
b) Helduak bakarrik hartu behar dira kontuan, osasun-arloko alfabetatzea heldutasun profesionalera iristean soilik eskuratzen den gaitasuna baita.
c) Haurren, nerabeen eta helduen premiak hartu behar dituzte kontuan, osasun-alfabetatzea bizitza osoko prozesua baita.
d) Hizkuntza tekniko eta konplexua erabili behar dute, erabiltzaile espezializatuek soilik interpreta dezaten ebidentzia zientifikoa.

**254.- Erabiltzaileen premien azterketari begira, zer alderdi jotzen da kritikotzat, ingurune digitalaren aurrean, etorkizuneko liburutegiak duen garrantziari eusteko?**

a) Prestakuntza-eskaintza tokiko katalogoaren erabilerara mugatzea, erabiltzailea Interneten ez galtzeko.
b) Aurrez aurreko erreferentzia-zerbitzua kentzea, egungo erabiltzaileak liburuzainarekin ez hitz egitea nahiago baitu.
c) Monografia zaharren gordailu fisikoa handitzeari lehentasuna ematea, baliabide elektronikoen lizentzietan inbertitzearen gainetik.
d) Urruneko sarbide arina eta zerbitzu digitalen integrazioa eskaintzea, erabiltzaileak informazioa behar duen tokian eta unean lortzeko aukera izateko.

**255.- Liburutegi espezializatuetako informazio-alfabetatzearen esparruan, zer eginkizun bete behar dute liburuzainek ikertzaileen eta langile klinikoen egungo beharrak asetzeko?**

a) Nagusiki zaintzara mugatzea, ondarearen kontserbazioa eta funts espezializatuetarako sarbide fisikoaren kontrola lehenetsiz ebidentzia zientifikoa bilatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan aktiboki esku hartzearen aurretik.
b) Materialen katalogazioan soilik arreta jartzea, eta prestakuntza kanpoko software-enpresen esku uztea.
c) Bideratzaile eta gidari bihurtzea, erabiltzaileari informazio digitalaren ekosistemaren konplexutasunari aurre egiten eta baliabideen kalitatea ebaluatzen laguntzeko.
d) Eskaeraren araberako bilaketa konplexuen unean uneko bitartekariaren rol teknikoa betetzea, ikertzaileen eta klinikoen zuzeneko prestakuntza saihestuz, liburuzainen autoritate profesionala babesteko informazioaren kudeaketari dagokionez.

**256.- Osasun-arloko nazioarteko estandarren arabera, zer gaitasun du informazioan alfabetatutako pertsona batek?**

a) Datu-base biomediko askotara azkar sartzeko gaitasuna, aurrez konfiguratutako estrategien bidez, lortutako emaitzen ondorengo analisi kritikoa alde batera utzita.
b) Informazioa noiz behar duen jakiteko eta behar den informazioa lokalizatzeko, ebaluatzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko gaitasuna.
c) Informazio klinikoko sistemak eta ospitale-plataformak kudeatzeko gaitasuna, ebidentzia zientifikoa kritikoki ebaluatzeko gaitasunak garatu beharrik gabe.
d) Bere espezialitatearekin lotutako literatura zientifikoaren bolumen handiak sistematikoki biltzeko eta artxibatzeko gaitasuna, nahiz eta eduki horiek erabaki klinikoak hartzeko prozesuetan integratu ez.

**257.- Informazio-alfabetatzearen (ALFIN) esparruan, zer ikaskuntza-eredu izan behar du kontuan Osasun Zientzien liburutegiak erabiltzaileak prestatzeko programei dagokienez?**

a) Liburutegiak aurrez zehaztutako edukien transmisio egituratuan oinarritutako eredua, gomendatutako irakurketen homogeneizazioa lehenetsiz profesional sanitarioaren prestakuntza-autonomiaren gainetik.

b) Datu-base biomedikoak erabiltzeko gaikuntza instrumentala helburu duen eredua, ebaluazio kritikoko hausnarketa-prozesuak eta gaitasun transferigarrien garapena integratu gabe.
c) Bizitza osoko ikaskuntzan (Lifelong learning) eta "ikasten ikastean" oinarritutako eredua.
d) Aldizkako eguneratzeen eredua, aldaketa teknologikoei edo harpidetzei lotutako prestakuntza-saioetan soilik oinarritua, erabiltzailearen gaitasunen garapenaren luzetarako plangintzarik gabe.

**258.- Osasun-erabiltzaileen premien azterketari dagokionez, zein da identifikatutako erronka nagusia Interneten erabilgarri dauden baliabideen kopuru handiari begira?**

a) Datu-base biomediko ugari aldi berean kontsultatzeko aukera ematen duten azpiegitura teknologiko elkarreragingarririk ez egotea.
b) Hornitzaileek edukiak gaztelaniaz indexatzeko duten ezintasuna.
c) Kalitatezko informazioa eta garrantzirik gabekoa bereizteko zailtasuna, irakurketa kritikoko eta ebaluazioko trebetasunak eskatzen baititu.
d) Zorroztasun zientifikoa bermatzeko soilik informazio-iturri inprimatuak erabiltzeko betebeharra.

**259.- ALFIN curriculumean txertatzeak honako hau dakar:**

a) Curriculumetik kanpoko aukerako jarduera gisa txertatzea.
b) Informazio-edukiak txertatzea ikasgai espezifikoetarako laguntza instrumental gisa, luzetarako plangintzarik eta sailen arteko koordinaziorik gabe.
c) Lantegi autonomo intentsiboak txertatzea curriculum ofizialetik kanpo, informazioa bilatzeko trebetasun teknikoak azkar eskuratzeko helburuarekin.
d) Programak mailen arabera doitzea, ikasleak ikaskuntza-zikloetan zehar izandako hazkundearen arabera.

**260.- Osasun-arloko informazio-alfabetatzearen esparruan, zer prestakuntza-ikuspegi EZ DA GOMENDATZEN?**

a) Prestakuntza-ibilbide estankoak eta ingurune klinikoarekin loturarik ez dutenak eskaintzea, asistentzia- edo ikerketa-lanetan integratzen ez diren saio bakarrak antolatuta.
b) "Ikaskuntza une aproposean" (Just-In-Time Learning) ereduan oinarritutako gaikuntza-programak garatzea, asistentzia-jardunean sortutako zalantzak argitzeko.
c) Problemetan oinarritutako ikaskuntza-ereduan (POI) eta kasu errealen azterketan oinarritutako bilaketa bibliografikoko lantegiak ezartzea.
d) Informazio-baliabideen erabilerari eta ebidentzien kudeaketari buruzko prestakuntza, ospitale-zerbitzuen saio klinikoetan eta jardueretan zeharka txertatuta.

**261.- Adierazi datu-base zientifiko hauetako zeinek EZ duen thesaurusik txertatuta bilaketak egiteko:**

a) Embase.
b) Cinalh.
c) PsycInfo.
d) WoS.

**262.- Adierazi hauetako zein den gailu medikoei buruzko informazio ugari duen informazio farmakologikoan espezializatutako datu-base bat. Aukeratu erantzun zuzena:**

a) Ulrich's.
b) Embase.
c) ERIC.
d) DSpace.

**263.- Produktu hauetako zein EZ da aldizkarietako artikuluen eta beste eduki zientifiko batzuen testu osorako sarbidea duen plataforma bat?**

a) ScienceDirect.
b) EBSCOHost.
c) SpringerLink.
d) Códice.

**264.- PubMed literatura biomedikoko datu-base bat da. Adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) PubMed National Library of Medicine erakundeak sortutako literatura biomedikoko datu-base bat da, sarbide mugatukoa.
b) Datu-baseak erabiltzaileak iragazki pertsonalizatuak sortzeko aukera du (hizkuntzak, dokumentu motak, urteak, zentro edo liburutegi jakin baten emaitzak multzokatzea edo liburuetarako estekak, besteak beste).
c) PubMed-ek MeSH izeneko thesaurusa erabiltzen du.
d) Linkout kanpoko baliabideetarako sarbidea ematen duen aukera bat da.

**265.- Hauetako zein da psikologian espezializatutako datu-base bat?**

a) Global Health.
b) PsycInfo.
c) ArXiv.
d) WorldCat.

**266.- Medikuntzan, zer dira “point of care” (POC) baliabideak?**

a) Ospitaleetako giza baliabideen sailek osasun-profesionalen esku jartzen dituzten baliabideak dira, estres profesionalari edo burnout delakoari aurre egiteko.
b) Pazientearen ondoko ebidentzian oinarritutako informazioa duten profesionalentzako baliabideak dira.
c) Zentroak prestatzen dituen baliabideak dira, pazientearentzako dibulgazio-informazioarekin.
d) Aurreko hiru erantzunetako bat ere ez da zuzena, baliabide horiek ez baitira osasun-zientzietan erabiltzen.

**267.- Aldizkari zientifikoei dagokienez, joeretako bat testu osoetarako sarbidea ematen duten plataformak garatzea da. Hauetako zein EZ da aldizkari zientifikoak eskuratzeko plataforma bat?**

a) BioMedCentral.
b) PubMedCentral.
c) SciELO.
d) Primo.

**268.- Adierazi zer baliabide erabili beharko zenukeen erizaintzako artikulu zientifikoak berreskuratzeko.**

a) Fedora.
b) GitHub.
c) Cinahl.
d) Crossref.

**269.- Datu-baseek erregistroak eta eremuak dituzte. Hauetatik zein da erregistro bat?**

a) Egilea.
b) Sinadura.
c) Obra.
d) Titulua.

**270.- Zer da Cochrane Library?**

a) Sarbide irekiko gordailu bat da, OMEk kudeatua, eta garapen-bidean dauden herrialdeetako jardunbide klinikoko gidak eta ospitale-protokoloak biltzen ditu, munduko lehen mailako arreta estandarizatzeko.
b) Kalitate handiko datu-baseen bilduma bat da, ebidentzia zientifikoa eta independentea eskaintzen duena osasunari buruzko erabakiak hartzeko, berrikuspen sistematikoak eta saiakuntza klinikoak barne.
c) Adimen artifizialean oinarritutako bilaketa-motor semantiko bat da, denbora errealean saiakuntza kliniko ausazkotuak soilik arakatzen dituena, osasun-arloko profesionalei diagnostiko automatikoak eskaintzeko.

d) Doktorego-tesietan eta saiakuntza klinikoetan aipamenak eta erreferentziak antolatzeko erabiltzen den kudeaketa bibliografikoko softwarea da.

**271.- Zer da PICO bilaketa bat?**

a) Ingurune klinikoan ikerketa-galdera on bat egiteko erabiltzen den formatua da. Galderak honako hauek identifikatu behar ditu: zer paziente edo populazio aztertu nahi dugun, zer esku-hartze edo tratamendu erabili nahi dugun, zer esku-hartze edo tratamendu alderatu nahi ditugun eta zer emaitza aurreikusten dugun.

b) Aldagai anitzeko analisi estatistikoko teknika bat da, kohorte-azterketetan erabiltzen dena hautaketa-alborapenak zuzentzeko. Akronimoak haztapen, interferentzia, kobariantza eta ordinaltasunaren prozesua deskribatzen du, eta esku-hartze baten emaitzak biztanleria osoari zabaldu ahal zaizkiola ziurtatzen du, nahasketa-aldagaiak doitu ondoren.

c) Triaje-protokolo aurreratua da, ospitaleko larrialdi-zerbitzuetan erabiltzen dena arreta lau larritasun-mailaren arabera lehenesteko: patologia akutua, immunoeskasia, zainketa kritikoak eta behaketa. Sistema horrek baliabideen esleipena automatizatzen du, pazientearen egonkortasun hemodinamikoan oinarrituta denbora errealean.

d) Indexazio automatikoko metodo bat da, PubMed bezalako datu-baseek erabiltzen dutena artikuluak inpaktu bibliometrikoaren arabera antolatzeko.

**272.- PubMed-ek MeSH bilaketak egiteko erabiltzeko aukera ematen du. Zer aukera ditu?**

a) MeSH-en bilaketa boolear errekurtsiboak egin daitezke, AND eta OR operadoreak baztertuta egilearen aipamen-faktorearen inpaktua lehenesteko. Gainera, terminoak interfazean bertan automatikoki itzultzeko aukera ematen du, 15 hizkuntzara baino gehiagotara.

b) MeSH-en bilaketa datu-base genomikoekin, hala nola GenBankekin, zuzenean lotu daiteke, nukleotidoen sekuentziak mapatzeko. Halaber, hiztegi kontrolatua denbora errealean eguneratzeko aukera ematen du, eguneko aurkikuntzen arabera.

c) MeSH-en honako hauen arabera bila daiteke: MeSH Term, MeSH Entry Term, Subheading, Publication Type, Supplementary Concept, edo MeSH Scope Note.

d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**273.- Zer da ClinicalKey Student?**

a) Sarbide irekiko (Open Access) bilaketa-motor bat da, banaketa askeko doktorego-tesiak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak soilik biltzen dituena graduatu aurreko ikasleentzako.

b) Ikaskuntza medikoko plataforma interaktiboa da, eta Elsevier taldeko osasun-zientzien eskuliburu elektronikoetarako sarbidea du.

c) Ospitaleko kudeaketa-plataforma bat da, medikuntzako ikasleek historia kliniko errealen jarraipena egin dezaten eta pazienteen hitzorduak denbora errealean kudea ditzaten beren txandaketetan.

d) LinkedIn-en integratutako sare sozial profesionala da, eta aukera ematen du medikuntzako ikasleak nazioarteko ospitaleetako erreklutatzaileekin harremanetan jartzeko, egoitza-bekak lortzeko.

**274.- Ba al dago alderik Medline eta PubMed-en artean?**

a) Ez. Izen desberdinak dituen produktu bera dira.
b) Bai. PubMed doako sarbidea duen datu-base bat da; Medline, berriz, ordainpeko bertsioa da, eta medikuntza estetikoko eta kirurgiako aldizkarietako artikuluak bakarrik barne hartzen ditu.
c) Bai. Medline biomedikuntzaren eta bizi-zientzien arlorako datu-base bibliografiko garrantzitsuena da, National Library of Medicine (NLM) erakundeak sortua. PubMed doako baliabidea da biomedikuntza-, osasun- eta bizi-zientzien erreferentzia bibliografikoak bilatzeko eta berreskuratzeko.
d) Ez dago alderik; Medline plataformaren aurreko izena da, eta PubMed, berriz, Medikuntzako Liburutegi Nazionalak (NLM) hautatu zuen izen komertzial modernoa da.

**275.- Zein EZ da psikologiako datu-base bat?**

a) PsycLexia.
b) Psyke.
c) PsycINFO.
d) Psicodoc.

**276.- Zein da OMEren GHOren (Global Health Observatory) helburua?**

a) Pazienteen historia kliniko indibidualen eta genomikoen datu-base bat kudeatzea mundu-mailan, mugaz gaindiko telemedikuntza errazteko denbora errealean.
b) Osasun-azpiegiturako proiektuak zuzenean finantzatzea garapen-bidean dauden herrialdeetan, haurren hilkortasun-arrakala murrizteko.
c) Nazioarteko Osasun Erregelamenduaren arabera deklaratutako pandemietan larrialdiko funtsak eta hornidura medikoak banatzeko adar operatibo eta finantzario gisa jardutea.
d) Herrialdeen datu eta estatistiketarako irispide erraza bermatzea, zenbatespen konparagarriak oinarri hartuta, bai eta OMEren analisietarako ere, munduko, eskualdeko eta nazioko egoera eta joerak monitorizatzeko.

**277.- Europar Batasuneko zein erakunde arduratzen da elikakateari lotutako arriskuak ebaluatzeaz eta jakinarazteaz?**

a) Eurofound.
b) ECHA.
c) EFSA.
d) EMA.

**278.- Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) kudeatutako zein datu-base da Espainian baimendutako fitxa teknikoak eta erabilera-orriak kontsultatzeko erreferentzia-iturri ofiziala?**

a) CIMA.
b) BIFAP.
c) FEDRA.
d) NOMENCLATOR.

**279.- Zein da BIOEF (Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitarioko Euskal Fundazioa) fundazioaren helburua?**

a) Konplexutasun handiko osasun-horniduren eta osasun-teknologiaren erosketa zentralizatzea Euskadiko sare publikoko ospitale guztietan, gastu arrunta optimizatuz eskala-ekonomien bidez.
b) Euskadiko osasun-sisteman berrikuntza eta ikerketa sustatzea.
c) Organo arautzaile eta ikuskatzaile tekniko gisa jardutea, Euskadin soilik jarduten duten ikerketa biomedikoko zentro pribatuak akreditatzeko.
d) Euskadiko unibertsitate-zentroetako BAME eta BAEE espezialisten prestakuntza akademikoa gainbegiratzea, ospitaleko irakaskuntza-batzordeek ikerketa-arloan dituzten eskumenak ordezkatuta.

**280.- Nazioarteko zein erakunde arduratzen da "Codex Alimentarius" egiteaz, elikagaien segurtasunerako eta kontsumitzailearen babeserako funtsezko informazio-iturria mundu-mailan?**

a) OMEko CSA.
b) EFSA.
c) MMA.
d) CAC, FAOk eta OMEk ezarria.

**281.- Zer sistema erabiltzen du Medikamentuen Europako Agentziak (EMA) Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) baimendutako edo saiakuntza klinikoetan aztertzen ari diren medikamentuen kontrako erreakzioen susmoei buruzko informazioa kudeatzeko eta aztertzeko?**

a) EudraVigilance.
b) ClinicalTrials.gov.
c) Eurostat Health Database.
d) CORDIS.

**282.- Espainian, zer erregistroren helburua da informazio epidemiologikoa ematea, osasun-plangintza eta -kudeaketa bideratzeko informazioa ematea, gaixotasun arraroen eremuko prebentzio- eta laguntza-jardueren ebaluazioa egitea eta autonomia-erkidegoen artean eta beste herrialde batzuekin alderatzeko oinarrizko adierazleak ematea?**

a) ISCIII.

b) IIER.
c) ReeR.
d) REVEP.

**283.- Euskadin, Osteba agentziak (Osasun Teknologiak Ebaluatzeko Zerbitzua) helburu hauek ditu:**

a) Osakidetzako ospitale-sare osoan hornidura farmazeutikoen eta material kirurgikoaren erosketa eta banaketa zentralizatzea, gastu arrunta optimizatuz.
b) Berrikuntza sustatzea, Arabako Parke Teknologikoko enpresa pribatuek garatutako bioteknologiako proiektuak zuzenean finantzatuz.
c) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu pribatuen akreditazioa bakarrik kudeatzea, eta Euskadin instalatutako konplexutasun handiko ekipamendu erradiologikoen ikuskapen teknikoa egitea.
d) Osasun-teknologien erabilera egokia sustatzea, segurtasuna, eraginkortasuna, erabilerraztasuna eta ekitatea kontuan hartuta, erabakiak hartzeko behar den informazioa emanez.

**284.- Zein da diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan osasunaren arloan sortutako ebidentzia zientifikoak eskuratzeko informazio-iturri garrantzitsutzat finkatu den OMEren plataformaren izena?**

a) HINARI (Access to Research in Health Programme).
b) GIM (Global Index Medicus).
c) EVIPNet (Evidence-Informed Policy Network).
d) Osasunaren Behatoki Globala (GHO).

**285.- EBko zein erakundek biltzen, aztertzen eta zabaltzen du laneko segurtasun eta osasunari laguntzeko informazioa?**

a) Cedefop.
b) Eurofound.
c) CARIT.
d) EU-OSHA.

**286.- Espainian, zein agentziak betetzen ditu elikagaien segurtasunarekin eta nutrizio osasungarriarekin lotutako eginkizunak?**

a) AEMPS.
b) CNA.
c) AESAN.
d) SEN.

**287.- Nazio Batuen zein agentzia espezializatu da haurrei buruzko informazio estatistikoaren iturri nagusia, haurren mundu-mailako nutrizio-egoera eta biziraupena barne?**

a) United Nations Children's Fund.
b) Save the Children International.
c) United Nations Children's Data and Research Agency.
d) World Health Organization for Children.

**288.- Erabiltzaile batek EAEko lan-istripuei eta laneko gaixotasunei buruzko urteko datuak non eskuratu ahal dituen esateko eskatzen badigu, hona igorriko dugu:**

a) CESek gai horiei buruz egiten dituen urteko txostenetara.
b) OSALANek gai horiei buruz egiten dituen urteko txostenetara.
c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak (LGSI) gai horiei buruz egiten dituen urteko txostenetara.
d) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak (LSOIN) gai horiei buruz egiten dituen urteko txostenetara.

**289.- Zer ezaugarri du OMEren IRIS plataformak (Institutional Repository for Information Sharing)?**

a) Barneko administrazio-erregistroak kudeatzeko sistema gisa jarduten du, OMEk gatazka-eremuetan banatutako hornidura medikoen inbentarioak kontrolatzeko.
b) Sare sozial akademiko mugatua da, eta OMEko langileek soilik truka ditzakete ikerketen aurretiazko zirriborroak, kanpoko parekoen berrikuspenak egin aurretik.
c) Autodiagnostikorako software bat da, herritarrei zuzendua, OMEren irizpideen arabera gaixotasun arraroak identifikatzeko.
d) OMEren argitalpen zientifiko eta teknikoetarako doako sarbide digitala ematen du.

**290.- Hauetako zein EZ da sare sozial zientifiko eta akademikoa?**

a) Mendeley.
b) Academia.edu.
c) ResearchGate.
d) SJR.

**291.- Hauetako zein EZ da eduki zientifikoak hedatzeko atari bat?**

a) EPrints.
b) Dialnet.
c) Redalyc.
d) SciELO.

**292.- Zertarako erabiltzen dute ResearchGate ikertzaileek?**

a) Software akademikoa deskargatzeko.
b) Konektatzeko eta ikerketen emaitzak eskuratzeko eta partekatzeko.

c) Entretenimenduko edukiak argitaratzeko.
d) APA formatuko aipamenak kudeatzeko.

**293.- Baieztapen hauetatik, zeinek deskribatzen du zuzen Mendeley-ren eta ResearchGate-ren arteko aldea?**

a) Mendeley artikuluak partekatzeko sare sozial akademiko bat da, eta ResearchGatek, berriz, kudeatzaile bibliografiko gisa soilik funtzionatzen du.
b) ResearchGate, batez ere, emaitzak partekatzeko eta ikertzaileak konektatzeko sare sozial akademikoa da; Mendeleyk, berriz, sare sozialaren funtzionalitateak eta erreferentzia-kudeaketa konbinatzen ditu.
c) Mendeleyk aukera ematen du egileen eragin-metrikak automatikoki sortzeko, barneko aipamenetatik abiatuta; ResearchGatek, berriz, ez du berezko metrikarik eskaintzen.
d) ResearchGate ikerketa kudeatzeko plataforma instituzional bat da, eta Mendeley, berriz, ikerketa-datuetan oinarritutako CRIS bat.

**294.- Aukera hauetako zeinek definitzen du hobekien Current Research Information System (CRIS) bat?**

a) Nazioarteko bilatzaile akademiko bat da, sarbide irekiko artikulu zientifikoak aurkitzeko diseinatua.
b) Plataforma instituzional bat da, eta erakunde baten ikerketa-jarduerari buruzko informazioa biltzen, antolatzen eta kudeatzen du, ekoizpen zientifiko osoa identifikatzeko eta ikusarazteko.
c) Doktorego-tesiak eta master amaierako lanak soilik gordetzen dituen Europako gordailua da.
d) Eragin handiko aldizkari zientifikoak soilik biltzen dituen aurkibide bibliografiko nazionala da.

**295.- Zein EZ da CRIS bat?**

a) Pure.
b) Converis.
c) Dspace CRIS.
d) Dataverse.

**296.- Bikote hauetako zeinek erlazionatzen du tresna bat bere funtsezko ezaugarrietako batekin?**

a) Dialnet – Patenteen nazioarteko plataforma.
b) Lens.org – Bereziki erabilgarria patenteak eta eskala handiko azterlanak aztertzeko.
c) DRIS – Sarbide irekiko argitalpen zientifikoen gordailua.
d) Dimensions – Ez da gomendatzen nazioarteko azterketetarako.

**297.- Bikote hauetako zein dago ondo elkartuta?**

a) IDR – Dialnet.
b) JCR – Scopus.
c) CiteScore – Web of Science.
d) SJR – Dialnet.

**298.- Aukera hauetako zeinek deskribatzen du zuzen zer den CERIF?**

a) Ikerketari buruzko informazioa kudeatzeko eta trukatzeko Europako estandar bat da, eta Current Research Information Systems delakoetan erabiltzen da.
b) ORCIDen antzeko identifikatzaile iraunkorra ikertzaileentzat.
c) Indize bibliometriko bat da, aldizkari zientifikoen eragina ebaluatzeko erabiltzen dena.
d) Sarbide irekiko protokolo bat da, gordailu instituzionalen elkarreragingarritasuna ezartzeko.

**299.- Dialneti buruzko baieztapen hauetatik, zein da GEZURRA?**

a) Dialnetek Espainiako aldizkari zientifikoei buruzko alerta bibliografikoen zerbitzu eguneratua eskaintzen du.
b) Dialnetek aldizkarietako artikuluak jasotzen ditu, baina ez du tesirik, libururik edo biltzarretako aktarik jasotzen.
c) Dialnetek hemeroteka birtual hispaniar diziplinarteko gisa funtzionatzen du.
d) Dialnetek testu osoko edukietarako irispide libre eta doakoaren aldeko apustua egiten du, ahal den guztietan.

**300.- Zer da Dialnet CRIS?**

a) Testu osoko aldizkariak soilik kontsultatzeko atari bat.
b) Erakunde baten ekoizpen zientifikoa kudeatzeko eta ikusarazteko sistema bat.
c) Espainiako patenteak bilatzeko tresna bat.
d) Babes digitaleko sistema bat, ISO 16363 arauaren ziurtagiriarekin.

**301.- Zer eskaintzen du Academia.edu plataformak?**

a) Parekoen ebaluazio-zerbitzua aldizkari akademikoetarako.
b) Lan akademikoak zabaltzeko gune bat, bistaratzeetan eta deskargetan oinarritutako metrikekin.
c) Unibertsitateentzako gordailu instituzional bat, mugarik gabe.
d) Egileen identifikazio iraunkorreko sistema bat, ORCIDen antzekoa.

**302.- Zein aipamen hartzen dira oinarri Aldizkarien Dialnet Indizea (IDR) kalkulatzeko?**

a) Dialneten jasotako barne-aipamenak, plataforman sartutako argitalpenetatik eratorriak.

b) Web of Science-ko aipamenak bakarrik.
c) Datu-base juridikoetatik soilik eratorritako aipamenak.
d) Google Scholarren egiaztatutako aipamenak.

**303.- Dialnet Métricas metodologiari buruzko adierazpen hauetatik zein da ZUZENA?**

a) IDRk aldizkariaren beraren autoaipamenak jasotzen ditu, inolako mugarik gabe.
b) Dialneten barneko aipamen-egituran oinarritzen da, ez kanpoko iturrietan.
c) Doktorego-tesietako aipamenekin soilik kalkulatzen da.
d) JCRn indexatuta egon behar da IDR lortu ahal izateko.

**304.- Zer da Google Scholar? Adierazpen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?**

a) Bilatzaile diziplina anitzekoa da, eta WoS edo Scopus bezalako datu-base tradizionaletan agertzen ez den informazio zientifikorako sarbidea du.
b) Google Scholarren estaldura Web of Science-ena baino txikiagoa da.
c) Google Scholar Citations izeneko produktu eratorri bat dago.
d) Dokumentu beraren bertsio desberdinak ikusteko aukera ematen du.

**305.- Ávila-Garcíaren arabera (2015), zein da aurkikuntza-tresnak (discovery tools) definitzen dituen ezaugarri nagusia eta zer alde dago aurreko sistemekin?**

a) Liburutegiko baliabideetan bilaketa integratua egiteko aukera ematen dute, indize bakar baten eta bilaketa-kutxa bakar baten bidez.
b) Silo isolatu gisa funtzionatzen dute, eta erabiltzaileak datu-base bakoitzean modu independentean sartzera behartzen dituzte.
c) Liburutegiko katalogoko liburu fisikoak soilik berreskuratzeko aukera ematen duten sistemak dira, artikulu elektronikoak alde batera utzita.
d) Erabiltzaileak liburutegiko interfaze bakoitzerako bilaketa-mekanika konplexua eta desberdina ikastea eskatzen dute.

**306.- Rodríguez-Gómezek (2023) adierazten duenez, zein izan zen 1994an sortu zen lehen metabilatzailea?**

a) SavvySearch.
b) TRIP.
c) Dogpile.
d) MetaCrawler.

**307.- Sastre-Suárez eta Pastor-Ramonek (2011) egindako ebaluazioa kontuan hartuta, zer alderdi da zainduena aztertutako metabilatzaile gehienetan?**

a) Thesaurusak erabiltzea bilaketa-eremuak mugatzeko.
b) Lortutako emaitzen zehaztasuna.
c) Interfazea eta emaitzen aurkezpena.
d) Bilaketa aurreratu konplexuak egiteko gaitasuna.

**308.- Zein urtetan abiarazi zen Google Scholar, bilaketa zentralizatuko sistemen beharra bultzatuz?**

a) 2004.
b) 1998.
c) 2010.
d) 1990.

**309.- Rodríguez-Bravoren (2015) azterlana kontuan hartuta, 2014an Espainiako unibertsitate-liburutegien zer ehunekok zituen instalatuta aurkikuntza-interfazeak, gutxi gorabehera?**

a) % 90.
b) Ia % 60.
c) % 5 baino gutxiago.
d) % 17.

**310.- Zertarako aukera ematen du "TOPA!"-k? Hautatu erantzun zuzena:**

a) Kontratatutako baliabide guztietan bilaketak egitea, baita sarbide irekiko baliabideetan ere.
b) Zure bilaketaren emaitza deskargatu ahal da, aipatu, kudeatzaile bibliografiko batera esportatu, metrikak kontsultatu...
c) Gailu mugikorrekin bateragarria denez, bilaketak horietatik egiteko aukera ematen du.
d) Aurreko guztiak zuzen daude.

**311.- Ávila-Garcíaren arabera (2015), aurkikuntza-tresnen eta metabilatzaile zaharren funtzionamenduari begira, zein da funtsezko aldea?**

a) Aurkikuntza-tresnek indize nagusi propioa sortzen dute, metadatuekin eta/edo aurretik bildutako testu osoekin.
b) Metabilatzaileek indize nagusi propioa sortzen dute, eta aurkikuntza-tresnek ez.
c) Ez dago alde teknikorik bi sistemen artean.
d) Aurkikuntza-tresnak askoz ere motelagoak dira.

**312.- Aurkikuntza-tresnen zer ezaugarrik ahalbidetzen du emaitzak hizkuntzaren, dataren edo dokumentu motaren arabera mugatzea?**

a) Sare sozialekin integratzea.
b) Autozuzenketa: "agian esan nahi zenuen...".
c) RSS alertak.
d) Fazetak erabiliz nabigatzea.

**313.- Rodríguez-Bravoren azterlanaren arabera (2015), zein da metabilatzaileen eta Discovery Tools-en (DT) arteko funtsezko aldea?**

a) Metabilatzaileek liburu inprimatuetan bakarrik bilatzen dute.
b) DTek metadatuak indize bakarrean inportatzen dituzte, eta algoritmo multzo bakarra aplikatzen dute.
c) Metabilatzaileak DTak baino azkarragoak dira.
d) Ez dago alde teknikorik, termino sinonimoak dira.

**314.- Zer egiteko aukera ematen die TOPAk Euskal Osasun Sistemako profesionalei (behin autentifikatuta) bilaketa baten emaitzarekin?**

a) Hautatutako artikuluen metadatuak pazientearen historia klinikora (Osabide) automatikoki esportatzea, lotura diagnostikoa egiteko.
b) Datu-base globaleko artikuluen indexazio-etiketak (MeSH/DeCS) aldatzea, Osakidetzako beste erabiltzaile batzuen informazioa hobeto berreskuratzeko.
c) Lortutako erregistroen testu osoa eskuratzea eta deskargatzea, edo GtBib-SOD bidez eskatzea.
d) EHUko doktorego-tesien gordailura soilik sartzea, nazioarteko datu-baseen (hala nola PubMed edo Embase) ikusgarritasuna mugatuta, gehiegizko informazioa saihesteko.

**315.- Sastre-Suárez eta Pastor-Ramonek (2011) egindako azterlanean, zein da "Excelencia Clínica" metabilatzailearen ezaugarri nagusia hizkuntzari dagokionez?**

a) Ingelesezko emaitzak ematen ditu, nahiz eta erabiltzaileak gaztelaniaz bilatu.
b) Latinezko bilaketak bakarrik egin daitezke.
c) Ezin da bilaketarik egin gaztelaniaz.
d) Artikuluak automatikoki itzultzen ditu frantsesera.

**316.- Metabilatzaileei dagokienez, zein da Rodríguez-Gómezek (2023) aipatutako abantailetako bat?**

a) Ordainpeko eduki pribatura doan sartzeko aukera ematen dute.
b) PubMed erabiltzeko beharra erabat ordeztu dute.
c) Banakako motorrek baino bilaketa-aukera gehiago eskaintzen dituzte.
d) Oso azkarrak dira eta informazio garrantzitsua aurkitzeko aukerak areagotzen dituzte.

**317.- Ávila-Garcíaren iritziz (2015), zer termino erabili ohi da erabiltzaileek bilaketa-leihatila bakar bat nahiago dutela adierazteko?**

a) Web-scale browsing.
b) One search.
c) One-stop-shopping.
d) Google-only process.

**318.- Hernández Pérez A eta Rodríguez-Mateosen arabera (2000), zein da, Europako Kontseiluaren gomendio-zirriborroan, "informazioaren profesional" baten eta "ezagutzaren langile" baten artean egiten den funtsezko bereizketa?**

a) Informazioaren profesionalak balio erantsi handia sortzen du, eta ezagutzaren langileak sareak baino ez ditu kudeatzen.
b) Informazioaren profesionala bitartekaria da; ezagutzaren langilea, berriz, balio erantsi handiko ekoizlea da, eta ekintza analitikoan parte hartzen du.
c) Ezagutzaren langilea euskarri teknikoaz arduratzen da, eta informazioaren profesionala jendeari arreta emateaz.
d) Ez dago bereizketarik, bi terminoak berdin erabiltzen dira liburuzain modernoak definitzeko.

**319.- Zer hiru eginkizun nagusi ditu ezagutza sortzen duen erakundeak?**

a) Aktibo ukiezinak berregituratzea, datu-base erlazionalak kudeatzeko sistemak ezartzea eta giza kapitala etengabe prestatzea kanpo-trebakuntzako programen bidez.
b) Jabetza intelektualaren kapitalizazioa, datu masiboak (Big Data) biltegiratzeko azpiegitura kritikoak hedatzea eta kutxa-fluxuak optimizatzea, informazio-siloak murriztuz.
c) Isileko ezagutza indibiduala kanpora ateratzea, erabakiak hartzea hierarkizatzea errendimendu-metrikak erabiliz eta prozesu operatiboen estandarizazioa, erakunde-memoria galtzea saihesteko.
d) Ezagutza berria sortzea, erakundearen barruan zabaltzea eta ikasitakoa teknologia berrietan txertatzea.

**320.- Ezagutzaren kudeaketaren diziplinaren sorrera-testuinguruan, hasieran, ikuspegi desberdinak zituzten bi eskola finkatu ziren. Zein da ekialdeko eskolaren edo eskola japoniarraren ezaugarri nagusia?**

a) Ezagutza objektu gisa ulertzen du, eta sistemen sailen bidez kudeatzen da.
b) Enpresa informazioa prozesatzeko mekanismo mekanizista gisa identifikatzen du.
c) Ezagutza prozesu gisa ulertzen du, isileko ezagutzan eta haren sozializazioan oinarrituta.
d) Ezagutza esplizituan eta hura dokumentuetan adieraztean oinarritzen da.

**321.- Rueda Martínezen arabera (2014), zein da informazioaren zientziaren eta ezagutzaren kudeaketaren hasierako bultzadaren arteko harreman historikoa?**

a) Ezagutzaren kudeaketa bibliotekonomiaren barruko adar teknologiko gisa sortu zen.
b) Bi diziplinak aldi berean sortu ziren, eta printzipio teoriko berberak dituzte.
c) Ezagutzaren kudeaketa tradizionalki informazioa emateaz arduratzen zen diziplinatik (informazioaren zientzia) aldenduta sortu zen.
d) Informazioaren zientzia ezagutzaren kudeaketa sortzea bultzatu zuen diziplina aitzindaria izan zen.

**322.- Toralesen arabera (2023), zein da Peter Druckerrek ezagutzaren kudeaketaren teoriari egindako ekarpen nagusia?**

a) Knowledge workers izeneko kontzeptua.
b) "Skandia nabigatzailea" eredua sortzea.
c) Idealismoaren eta enpirismoaren arteko bereizketa Grezia klasikoan.
d) "Garai digitaleko ikaskuntzaren teoriaren" definizioa.

**323.- Serrano Gonzálezen eta Zapata Lluchen arabera (2003), zein da erakunde askok ezagutza teknologiaren bidez soilik kudeatzen saiatzean egiten duten funtsezko akatsa?**

a) Sailak zuzentzeko esklusiboki profil teknikoko informatikaririk ez izatea.
b) Teknologia berez helburu bat dela pentsatzea, eta ez informazio-sistemak bere helburua betetzeko bitarteko bat.
c) Langileen arteko komunikazio horizontala gehiegi errazten duten intranetak erabiltzea.
d) Inbertsio ekonomikorik eza software espezializatuaren lizentzietan.

**324.- Nola defini daiteke ezagutzaren kudeaketa? Aukeratu erantzun zuzena.**

a) Kontzeptu horren bidez, balio handiko informazioa modu eraginkor eta baliagarrian identifikatzea, aurkitzea, sailkatzea eta sortzea ahalbidetzen duten prozesuak erlazionatzen dira, estrategiak sortzeko eta erakundeetan erabaki egokiak garaiz eta behar bezala hartzeko; ezagutza hori enpresen barneko eta kanpoko harremanei esker sortzen da.
b) Sozializazio- eta konbinazio-prozesuen bidez isileko ezagutza kanpora ateratzea helburu duen konstruktu dialektikoa da, aktibo ukiezinen fluxua lehia-abantaila estatiko bihur dadin ahalbidetuz, barne-prozesuak ikuskatzeko datu historikoak biltegiratzean soilik zentratua.
c) Metadatuen elkarreragingarritasun semantikoa lehenesten duen informazioaren gobernantzarako prozedura-esparrua da. Azken helburua informazio-siloak bereiztea da, ezagutzaren transferentzia soilik goragoko maila hierarkikoetan gertatzen dela bermatzeko, erredundantzia kognitiboa optimizatuz.
d) Dokumentu-kudeaketa aurreratuaren sintesi heuristikoa da, eta balioa segurtasun kriptografikoko protokoloak dituzten gordailu digitalen katalogazio zehatzean datza; hala, giza interakzioaren beharra ezabatzen da, merkatuaren bilakaeraren aurrean ezagutza aldatu gabe mantentzen dela ziurtatzeko.

**325.- Ezagutzaren kudeaketaren testuinguruan, isileko ezagutza zer prozesuren bidez bihurtzen da esplizitu hura partekatzeko?**

a) Edukiak indexatzea.
b) Kanpo-eskuraketa.
c) Zaharkitze teknologikoa.
d) Ezagutza egituratzea.

**326.- George Siemensen (2004) konektibismoa izeneko ereduaren arabera, zein da aro digitaleko ezagutzaren ezaugarrietako bat? (Torales, 2023).**

a) Ezagutza estatikoa da eta aldaezin mantentzen da denborarekin.
b) Ikaskuntza subjektuak kontrolatutako giroetan soilik gerta daiteke.
c) Ezagutza gizakitik kanpo bizi daiteke, adibidez datu-base batean.
d) Aurreko ezagutza beti sortutako ezagutza berriari gailentzen zaio.

**327.- Serrano Gonzálezen eta Zapata Lluchen (2003) iritziz, zer da "informazioaren auditoretza"?**

a) Dagoen informazioa, haren fluxuak eta erakundearen helburuekiko egokitzapena detektatzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko prozesua.
b) Merkatuko hardware aurreratuena soilik hautatzeko metodo bat.
c) Sare informatikoaren eta datu-baseen segurtasunaren aldizkako azterketa teknikoa.
d) Enpresa baten aktibo informatikoen diru-balioa ebaluatzeko kontabilitate-prozesu bat.

**328.- Zein egile jotzen dira normalean ezagutzaren kudeaketaren "gurasotzat", nahiz eta, hasieran, informazioaren kudeaketa interesatzen zitzaien?**

a) Belkin eta Robertson.
b) Savard eta Stieg.
c) Marshall, Prusak eta Shpilberg.
d) Nonaka, Davenport eta Prusak.

**329.- Pérez-Montorok (2016) 90eko hamarkadaren amaieran ezagutzaren kudeaketa sortzea justifikatzen duten bi aldagai nagusi identifikatzen ditu. Zeintzuk?**

a) Petrolioaren krisia eta inprenta digitalaren asmakuntza.
b) Informazioaren teknologia berriak agertzea eta ingurune ekonomiko globalizatua finkatzea.
c) Web semantikoaren gorakada eta liburutegi fisikoen gainbehera.
d) Gerra Hotzaren amaiera eta jaiotza-tasa globalaren hazkundea.

**330.- Zein da Escorciak eta Barrosek (2020) goi-mailako hezkuntza-erakundeentzat berariaz proposatutako ezagutzaren kudeaketa-ereduaren ezaugarri nagusia?**

a) Kanpoko patenteak erostean soilik oinarritzen da.
b) Unibertsitatearen finantza-errentagarritasunean soilik jartzen du arreta.
c) Ikerketa-funtziotik abiatzen da, eta irakaskuntzarekin eta hedapenarekin integratzen da.
d) Azpiegitura fisikoa lehenesten du irakaskuntzako kapital intelektualaren gainetik.

**331.- Nonaka eta Takeuchiren "Ezagutzaren Espiralaren" ereduaren arabera, nola esaten zaio, espezifikoki, ezagutza esplizitua isileko bihurtzeko bihurketa-prozesuari?**

a) Barneratzea.
b) Kanporatzea.
c) Sozializazioa.
d) Konbinazioa.

**332.- Liburutegietako kalitatea ebaluatzeko moduetako bat errendimendu-adierazleak dira. Zein ISO arautan daude definituta?**

a) ISO 16439:2014.
b) ISO 2789:2022.
c) ISO 11620:2023.
d) ISO 21248:2019.

**333.- ISO 9001:2015 arauaren prozesuetarako ikuspegiak PDCA zikloa erabiltzen du. "Egin" etapan, liburutegi batean, zein izango litzateke jarduerarik adierazgarriena?**

a) Liburutegiaren kalitate-politika definitzea.
b) Erabiltzaileen gogobetetasunari buruzko inkestak aztertzea.
c) Katalogazio-prozesuak eta jendearentzako zerbitzuak planifikatutakoa betez ezartzea.
d) Erantzun-denborak hobetzeko ekintzak egitea.

**334.- Aja Quirogaren arabera (2002), nola definitzen da espezifikoki "informazioaren kudeaketa"?**

a) Giza baliabideek pentsamendu-eredu berriak sortzeko duten gaitasuna.
b) Erakunde bat gidatzeko eta kontrolatzeko sistema bat da, erabateko kalitateari dagokionez.
c) Gaitasun bereizgarriak ematen dituzten aktibo ukiezinak kudeatzeko prozesua da.
d) Erabakiak hartzeko informazio egokia lortzeko jarduerak barne hartzen ditu, prezio, denbora eta leku egokietan.

**335.- Beltrán Sanzen arabera (2002), zein da "prozesu operatiboen" ezaugarri bereizgarria?**

a) Zuzendaritzaren erantzukizunei lotutako prozesuak dira.
b) Produktua egitearekin eta/edo zerbitzua ematearekin zuzenean lotutako prozesuak dira.
c) Baliabideen eta jarraipen- eta neurketa-jardueren kudeaketarekin lotutako prozesuak dira.
d) Barne-auditoretzan eta finantza-kontrolean soilik zentratzen dira.

**336.- Aguilar Gonzálezen arabera (2007), zer dakar, funtsean, kalitatearen kudeaketak liburutegi baten testuinguruan?**

a) Etengabeko hobekuntzarako konpromiso-prozesu bat, kalitatea, ingurumena, osasuna eta laneko segurtasuna kontzeptuen ikuspegi integratu batetik, beste finantza-alderdi, giza alderdi, alderdi etiko eta integrazio soziokulturaleko alderdi batzuekin batera.
b) Ex post kontrol-sistema bat ezartzea, prozesamendu teknikoan akatsak detektatzea eta, ondoren, erregistro bibliografikoak zuzentzea bermatuko duena, nazioarteko katalogazio-estandarrak betetzeko.
c) ISO 9001:2000 araudia zorrozki onartzea erakundearen azken helburu gisa, liburutegiaren egitura hierarkikoa aldatu gabe mantentzeko eta liburutegiko langile profesionalen autoritatea babesteko.
d) Finantza-baliabideak optimizatzea eta kostu operatiboak murriztea automatizazio masiboaren bidez, urteko eskuratzeen kopurua lehenetsiz informazio-zerbitzuen inpaktu sozialaren gainetik.

**337.- González Guitiánek (2015) jasotzen duenez, zertaz arduratzen da ezagutzaren auditoretza?**

a) Soil-soilik aktibo ukiezinen kontabilitate-egiaztapenaz eta kudeaketa-softwarearen amortizazioaz arduratzen da, ondare-balantzea Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen (NIIF) arabera doitzeko.
b) Segurtasun informatikoko eta zibersegurtasuneko sistemak gainbegiratzeko prozesua da, zeinaren helburua baita bermatzea datu masiboen (Big Data) gordailuen filtraziorik gertatzen ez dela kanpo-lehiarantz.
c) Giza kapitalari aplikatutako jardun psikometrikoaren ebaluazioa da, sailetako batez besteko adimen-kozientea zehazteko eta, horrela, soldata-eskalak berregituratzeko, banakako merezimendu akademikoan oinarrituta.
d) Isileko informazioaz eta erakundearen ezagutzaz arduratzen da, hala nola erakundearen abileziaz, esperientziaz eta know-howaz, ez bakarrik erregistratutakoaz, baita abian diren proiektuetakoaz ere.

**338.- Balagué Molaren arabera (2007), liburutegiek ISO 9001 arauaren kapitulu hauetako zein jotzen dute zailtasun handienekotzat ezarpen-prozesuan?**

a) 5. kapitulua: Zuzendaritzaren erantzukizuna (konpromisoa eta politika).
b) 8. kapitulua: Neurketa, analisia eta hobekuntza.
c) 6. kapitulua: Baliabideen kudeaketa (azpiegitura eta lan-giroa).
d) 4. kapitulua: Kalitatea kudeatzeko sistema (dokumentazioaren eskakizunak).

**339.- Gonzalez, Pinto eta Ponjuánen arabera (2017), I+Eko (Informazioa eta Ezagutza) baliabideen sailkapenaren barruan, zein kategoriatan sartuko lirateke erakundearen prozesuen eskuliburuak, prozesuen fitxak eta prozedurak?**

a) Araudiak eta erregulazioak.
b) Prozesuak eta prozedurak.
c) Ekoizpenari eta I+G+b arloari laguntzekoak.




d) Estrategikoak eta kudeaketakoak.

**340.- Beltrán Sanzen arabera (2002), prozesuen irudikapenaren testuinguruan, zer alde nagusi dago "prozesu-diagrama" baten eta "prozesu-fitxa" baten artean?**

a) Diagrama nahitaezkoa da kudeaketarako, eta fitxa aukerakoa da.
b) Fitxa prozesu estrategikoetarako erabiltzen da, eta diagrama laguntza-prozesuetarako.
c) Fitxak prozesuaren ezaugarriak laburbiltzen ditu (xedea, adierazleak, aldagaiak); diagramak, berriz, jardueren fluxu sekuentziala adierazten du.
d) Diagrama testu-dokumentu bat da, eta fitxa, berriz, irudikapen grafiko bat.

**341.- Balagué Molaren arabera (2007), liburutegiek baloratutako onuren arabera, zein izan ziren puntuaziorik altuena lortu zutenak (4,3 puntu 5etik) ISO 9001 araua aplikatu ondoren?**

a) Prozedurak estandarizatzea eta prozesuen dokumentazioa hobetzea.
b) Kostu operatiboak murriztea eta kanpoko laguntza ezabatzea.
c) Langileen jarrera hobetzea eta barne-komunikazioa areagotzea.
d) Sari nazionalak automatikoki lortzea eta finantzaketa pribatua handitzea.

**342.- González eta Ponjuánen azterketa (2014) kontuan hartuta, auditoretzetan erabilitako analisi-metodoen azterketaren arabera, zer tresna definitzen da espezifikoki baliabideak babesten dituzten negozio-funtzioen arabera deskribatzen dituen irudikapen bisual gisa?**

a) Informazio-baliabideen inbentarioaren analisia.
b) Informazio-fluxuaren analisia.
c) Informazio-beharren analisia.
d) Informazio-maparen analisia.

**343.- Aguilar Gonzálezen arabera (2007), ISO arauen araberako kalitate-sistema bat ezartzean, zein da desabantaila edo arrisku nagusietako bat?**

a) Katalogazio-lan guztiak egiteko kanpoko langileak kontratatu behar izatea.
b) Gehiegizko burokrazia eta dokumentazioa zerbitzuaren malgutasunaren gainetik lehenesteko arriskua.
c) Sistemak automatikoki bermatzea zerbitzua hobetzen dela, ebaluaziorik egin beharrik gabe.
d) Behin kalitate-eskuliburuan idatzita, prozedurak aldatzeko ezintasuna.

**344.- Beltrán Sanzen arabera (2002), "prozesuaren fitxa" batean jasotzen den informazioa kontuan hartuta, zer ezaugarri ditu "prozesuaren jabeak"?**

a) Prozesuko zeregin-bolumenik handiena gauzatzen den saileko arduradun hierarkikoa da. Haren eginkizun nagusia baliabide materialak esleitzea eta kanpoko adostasuneko auditoretzak sinatzea da.

b) Kanpoko eragile bat edo kalitate-aholkulari bat da, eta haren eginkizuna da lan-fluxuak dokumentatzea eta eraginkortasun-adierazleak (KPI) definitzea, lineako langileen jardun operatiboaren gaineko zuzeneko ahalmenik izan gabe.
c) Erantzukizuna esleitzen zaion funtzioa da, eta, zehazki, espero diren emaitzak lortzekoa.
d) Balio-fluxuan antzinatasun tekniko handiena duen langilea da, eta "kontrol-puntu kritikoak" gainbegiratzeaz eta desbideratzerik gertatuz gero laneko jarraibide teknikoak eguneratzeaz soilik arduratzen da.

**345.- Aja Quirogak (2002), bikaintasun-erakundeei dagokienez, zer harreman ezartzen du informazioaren, ezagutzaren eta kalitatearen kudeaketaren artean?**

a) Prozesu bera osatzen duten hiru zati dira, eta batek besteak baldintzatzen ditu.
b) Kalitatearen kudeaketa da arrakasta baldintzatzen duen bakarra, eta besteak bigarren mailakoak dira.
c) Informazioaren kudeaketak kalitatearen kudeaketa ordeztu du aro teknologikoan.
d) Prozesu independenteak dira, eta modu isolatuan gauzatu behar dira.

**346.- Honako hauetatik, zein da Special Libraries Associationek (SLA) lan-ereduari begira identifikatutako hiru trantsizio esanguratsuetako bat, Aramayoren (2001) lanean aipatutakoa?**

a) Profesionalek enpresarentzako kostu-etekinen ikuspegitik justifikatu behar dute beren lana.
b) Paper-euskarrira soilik itzultzea, epe luzean kontserbatzea bermatzeko.
c) Telelana debekatzea, informazio diplomatikoaren segurtasuna bermatzeko.
d) Zeregin guztiak liburuzain bakar batek egitea, talde-lana saihesteko.

**347.- Ceña eta Serraren lanaren arabera (2004), XXI. mendeko liburuzainen eta dokumentalisten gaitasun profesionalen barruan, zer esan nahi du "informazio-zerbitzuen kudeaketak"?**

a) Datuak biltegiratzeko eta berreskuratzeko sistemak diseinatzeko eta ustiatzeko gaitasuna, metadatu estandarizatuak erabiliz, eta elkarreragingarritasun semantikoa bermatzea banatutako ingurune digitaletan.
b) Zerbitzuen eskaintzak erakundeko bezero guztien informazio- eta prestakuntza-beharrak betetzen dituela bermatzea.
c) Gerrilla marketin-teknikak eta branding instituzionala aplikatzea, informazio-unitatea ezagutza-nodo nagusi gisa kokatzeko erakunde konplexu baten barruan.
d) Epe luzerako babes digitalaren funtzio teknikoa, formatu zaharkituen migrazioan eta dokumentu-ondare elektronikoaren legezko zaintzan soilik oinarritua.

**348.- Zer aldaketa kualitatibo nabarmentzen du Allendez Sullivanek (2004) ezagutzaren balioari dagokionez egungo "informazioaren gizartean" aurreko garaiekin alderatuta?**

a) Baliozkotze epistemologikoa erabat demokratizatzea interkonexio digital globalaren bidez.
b) Pentsamendu linealeko prozesuak hardwarearen mendeko heuristika asoziatibo batekin ordeztea behin betiko.
c) Orain informatikako espezialistek baino ezin dute ezagutza eskuratu.
d) Aldatu dena ez da ezagutzaren berezko balioa, merkatuak botere-tresna gisa esleitzen dion balioa baizik.

**349.- Lanbidearen azterketa historikoaren arabera (Allendez Sullivan, 2012), zein izan ziren XX. mendera arte informazioaren profesionalaren lana gidatu zuten bi paradigma nagusiak?**

a) Datu-baseak eta datu-meatzaritza kudeatzea.
b) Zerbitzuen marketina eta erabiltzaileei arreta ematea.
c) Dokumentuak kontserbatzea eta tratatzea.
d) Alfabetatze digitala eta software-programazioa.

**350.- Serraten arabera (2023), "trebetasun bigunen" taldearen barruan, zeintzuk dira funtsezkoak datuen liburuzainek ikertzaileen komunitateari balioa eman diezaioten?**

a) R eta Python bezalako programazio-hizkuntzen ezagutza aurreratua.
b) Pertsona arteko trebetasunak, komunikazio-trebetasunak, malgutasuna eta jakin-mina.
c) Katalogazio- eta sailkapen-teknika tradizionalak soilik erabiltzea.
d) Hardwarea biltegiratzeko azpiegiturak garatzeko gaitasuna.

**351.- Zer erakundek argitaratu zituen 2017an informazio biomedikoko profesionalentzako etengabeko ikaskuntzako sei gaitasunak? (Manso-Perea, 2023).**

a) Liburutegien arteko Lankidetzarako Kontseiluak (CCB).
b) American Library Association-ek (ALA).
c) Medical Library Association-ek (MLA).
d) BiblioMadSalud-ek.

**352.- Zein da "Etorkizuneko liburuzain, artxibozain eta dokumentalisten prestakuntzarako proiektuen ideien laborategia" proiektuaren helburu orokorra?**

a) Zerbitzu-ikaskuntzako metodologia eta 2030 Agendako GJHen ikuspegia txertatzea etorkizuneko proiektu-kudeatzaile profesionalen prestakuntzan.
b) Eskola teorikoen ordez, praktika esklusiboak jartzea Madrilgo Erkidegoko Liburutegien Sarean.

c) Madrilgo Erkidegoko irakurketa-zerbitzu publikoarekin lehiatuko diren liburutegi pribatuen sare bat sortzea.
d) Deep Learning tresna teknologikoak soilik garatzea fitxategiak automatikoki katalogatzeko.

**353.- Zein da etika profesionalaren eta deontologiaren arteko desberdintasun kontzeptual nagusia, Puyol Rodríguezen arabera (2024)?**

a) Ez dago alderik, bi kontzeptuak sinonimoak baitira dokumentazioaren esparruan.
b) Etika legez zigorgarria da; deontologia, berriz, zigorrik gabeko gida morala da.
c) Etika eginbehar kolektiboez arduratzen da, eta deontologia jokabide-balio partikularrez.
d) Etika kontzientzia pertsonalari eta jardunbide egokiari dagokio; deontologiak, berriz, izaera zigortzaileko kode batean sartutako betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu.

**354.- Nola definitzen da Macías-Vicenteren (2024) lanean "informazio okerra" (misinformation) desinformaziotik bereizteko?**

a) Informazio faltsua da, baina egiazkoa dela erabat sinetsita transmititzen da.
b) Nahita faltsua den informazioa da, arrazoi ekonomiko, politiko edo ideologikoengatik edo beste arrazoiren batengatik zabaldua.
c) Egiazko informazioa da, baina eremu pribatukoa edo mugatukoa, eta pertsona, erakunde edo herrialde bati kalte egiteko asmoz zabaltzen da; hortaz, ez litzateke argitaratu behar.
d) Irabazteko asmoz sortutako informazio faltsu egiaztagarria da.

**355.- "Liburuzainentzako eta informazioaren beste langile batzuentzako IFLAren Etika Kodearen" (2012) esparruan, zer jarrera etiko izan behar du profesionalak bere uste pertsonalekiko, neutraltasunaren eta osotasunaren atalaren arabera?**

a) Norberaren uste etiko eta moralak lehenetsi behar ditu, betiere guztien onura eta giza eskubideen babesa helburu badituzte.
b) Liburutegiko bildumaren barruan bere balio pertsonalak aktiboki sustatu behar ditu, pentsamendu kritikoa eta herritar aktiboak sustatzeko.
c) Argi eta garbi bereizi behar ditu bere uste pertsonalak eta betebehar profesionalak.
d) Bere sinesmenak lehenetsi ditzake gehiengoari mesede eginez gero.

**356.- Macías-Vicentek egindako kode deontologikoen azterketaren arabera (2024), zer kontzeptu agertzen da aztertutako dokumentu gehienetan eta zuzenean lotzen da liburuzainek desinformazioari aurre egiteko duten gaitasunarekin?**

a) Informazio egiazkoa, benetakoa, fidagarria.
b) Muturreko eduki politikoen zentsura.
c) Pentsamendu kritikoa.
d) Informazioa eskuratzea.

**357.- IFLAren arabera, profesionalak zer egoeratan daude salbuetsita erabiltzaileen datuen konfidentzialtasuna mantentzetik?**

a) Erabiltzaileak liburutegian duen jokabideak bizikidetza-arauak urratzen dituenean eta langileak zehapen zentzagarri publiko bat jartzea erabakitzen duenean.
b) Interes publikoko kasuetan, betiere agintaritza judizialak eskatuta krimenak edo ustelkeria direla eta.
c) Liburutegiko langilearen iritziz erabiltzaileak kontsultatutako informazioa etikoki eztabaidagarria bada.
d) Erakunde pribatu batek datuak eskatzen dituenean merkatua ikertzeko eta liburutegi-zerbitzuak hobetzeko.

**358.- SEDICen Etika Kodeak (2022an eguneratua) zeregin espezifiko bat nabarmentzen du, erabiltzaileek eta profesionalek desinformazioa modu autonomoan detektatu ahal izan dezaten. Zein? (Macías-Vicente, 2024).**

a) Katalogoetan egiaztapen automatikoko algoritmoak inplementatzea.
b) Albiste faltsuen sortzaileak legez salatzeko betebeharra.
c) Debekatutako informazio-iturrien erregistro nazional bat sortzea.
d) Alfabetatze mediatiko eta informazional kritikoa sustatzea.

**359.- Puyol Rodríguezek (2024) adierazten duenez, zein da 2024an sortutako FESABIDen Etika Profesionaleko Lantaldearen misio espezifikoa, kodea idaztetik harago?**

a) Gatazka etikoak aztertzea eta jorratzea, enplegatzailearen eskakizunak estandar profesionalen aurkakoak diren egoeretan orientabideak emanez.
b) Gobernantza algoritmikoko eta auditoretza etikoko esparru bat ezartzea, informazio-zentroetan erabiltzen diren adimen artifizialeko sistemek erabiltzaileen pribatutasuna urratzen ez dutela zaintzeko.
c) Unibertsitateetako barneko etika-batzordeak ordeztea, dokumentalisten argitalpen zientifikoak soilik gainbegiratzeko.
d) Federazioaren gardentasun-atariaren bidez hautemandako jardunbide desegokiak egiten dituzten artxibo eta liburutegietako profesionalen fiskalizazioa eta administrazio-zehapena.

**360.- Marketinaren joera berriei eta horiek liburutegietan eta dokumentazio-zentroetan izan dezaketen aplikazioari dagokienez, adierazpen hauetatik zein EZ da zuzena?**

a) Liburutegietako marketina ekitaldi edo baliabide zehatzak sustatzeko aldizkako kanpainetara mugatuko da, online eta aurrez aurrekoak.
b) Marketin-estrategiak plangintza eskatzen du aldez aurretik definitutako helburu batzuk lortzeko, eta SMART (Specific, Measurable, Achievable, Realistic, Timely) izan behar dute.
c) Liburutegietako marketinak marketin digital integratuko plan estrategiko baten parte izan behar du.
d) Liburuzain on batek marketinerako, harreman publikoetarako eta autosustapenerako trebetasunak izan behar ditu.

**361.- Liburutegi batean, zer behar da harreman- eta erakarpen-marketineko estrategiak eta taktikak ezartzeko?**

a) Kudeaketa- eta informazio-sistemen euskarri diren plataformek eskaintzen dizkioten datuak ustiatzea.
b) Funts bibliografikoa digitalizatzeko aurrekontua handitzea.
c) Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak sustatzeko kanpaina bat egitea.
d) Harreman- eta erakarpen-marketina ez da egokiena liburutegi-zerbitzu baterako.

**362.- KOTTLER-en marketinaren teoriaren arabera:**

a) Marketina publizitatean eta salmentetan oinarritzen da nagusiki.
b) Marketinak kudeaketa-prozesuen jatorrian kokatzen du erabiltzailea edo kontsumitzailea.
c) Merkatuak produktua erabiltzaileak aztertu beharrik gabe zehazten du.
d) Marketina merkatu-ikerketa baino ez da.

**363.- Zein da 4P-en marketin mix klasikoa?**

a) Produktua, prezioa, banaketa eta partaidetza.
b) Produktua, langileak, instalazioak eta mailegua.
c) Produktua, erakunde-politikak, prozedurak eta aurrekontuak.
d) Produktua, prezioa, banaketa eta sustapena.

**364.- Plan estrategiko bat egitean, zer kontzepturi dagozkio "Nor gara?", "Norentzat egiten dugu?" eta "Zergatik egiten dugu?" galderak?**

a) Misioa.
b) Ikuspegia.
c) Balioak.
d) Aurreko bat ere ez.

**365.- "Informazioa eta dokumentazioa. Liburutegiko errendimenduaren adierazleak" ISO arauaren arabera, zer definizio EZ da zuzena?**

a) ERAGINKORTASUNA: Helburu bat lortzeko behar diren baliabideen erabilera neurtzea. Jarduera bat eraginkorra da baliabideen erabilera ahalik eta gehien murriztu badu edo baliabide berberekin emaitza hobeak lortzen badira.
b) FIDAGARRITASUNA: Neurri batek emaitza bera erreproduzitzeko duen gaitasuna.
c) ERRENDIMENDUA: Liburutegiko zerbitzuak emateko eraginkortasun-maila eta zerbitzu horiek emateko baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.
d) Definizio guztiak zuzenak dira.

**366.- Ezaugarri hauetako zein EZ da zuzena liburutegien errendimendua neurtzeko adierazleei dagokienez?**

a) Fidagarriak.
b) Garrantzitsuak.
c) Erabiltzeko errazak.
d) Moda teknologikoekiko sentikorrak.

**367.- Zer adierazleri dagokio funtsetik erabili diren dokumentuen proportzioa?**

a) Eragina.
b) Eraginkortasuna.
c) Efizientzia.
d) Errendimendu operazionala.

**368.- Liburutegi-plangintza epe labur, ertain eta luzerako helburu orokorrak identifikatzean datza. Zein da erantzun OKERRA?**

a) Helburuak liburutegi motaren eta liburutegi bakoitzaren egoeraren araberakoak dira.
b) Helburuak zehaztu eta horiek lortzeko behar diren bitartekoak identifikatu ondoren, ez dira plana amaitu arte aldatuko.
c) Plangintza beharrezkoa da, batez ere, zerbitzuak hobetzeko, ez hainbeste dirua aurrezteko.
d) Emaitza plan bat egitea da, eta plan estrategiko esaten zaio orokorra denean eta erakundearen misioa, xedeak eta epe labur, ertain eta luzerako helburuak zehazten dituenean.

**369.- Marketin-estrategia batean, audientziaren segmentazioa kontuan hartu behar da. Erabiltzaileen segmentazioan kontuan hartu beharreko ezaugarriak honako hauek dira:**

a) Tamaina nahikoa, bereizketa argia, errentagarritasuna, irisgarritasuna.
b) Portaera berdinak eta premia homogeneoak dituzten erabiltzaileez osatutako segmentuak.
c) Irizpide geografikoen arabera zehaztutako segmentuak.
d) Tamaina nahikoa, bereizketa argia, irisgarritasuna eta egonkortasun demografiko bermatua.

**370.- Zertan datza liburutegi bateko plangintza taktikoak?**

a) Misioa, ikuspegia eta epe luzerako helburu globalak definitzea.
b) Eguneroko zeregin operatiboak eta prozedura zehatzak ezartzea.
c) Helburu estrategikoak epe ertaineko programa eta ekintza bihurtzea.
d) Teknikarien errutinak epe laburrean bakarrik kudeatzea.

**371.- Zertan datza liburutegi bateko plangintza estrategikoak?**

a) Epe luzerako helburu globalak, misioa eta jarduketa-ildoak definitzea.
b) Erabiltzailearentzako zerbitzuekin lotutako eguneroko zeregin operatiboak egitea.
c) Gutxi barru egin beharreko zereginen gauzatzea antolatzea.
d) Helburu orokorrak urte batean edo bitan garatu beharreko proiektu zehatz bihurtzea.

**372.- Plan estrategiko bat egitean, zer kontzepturi dagozkio "Zein dira gure asmoak?", "Zer lortu nahi dugu?" eta "Zein da gure etorkizun ideala?" galderak?**

a) Misioa.
b) Ikuspegia.
c) Balioak.
d) Aurreko bat ere ez.

**373.- Liburutegi baten kudeaketa estrategikoaren zikloan, zein da AMIA analisi-fasearen helburu nagusia?**

a) Liburutegiaren erabiltzaile motak aztertzea eta talde bakoitzaren behar espezifikoak zehaztea.
b) Erabaki estrategikoak hartzea baldintzatzen duten barne- eta kanpo-inguruneko faktoreak identifikatzea.
c) Epe laburrean gauzatuko diren ekintza operatiboak diseinatzea.
d) Misioa eta ikuspegia zehaztea, informazio gehigarria bildu beharrik gabe.

**374.- Kudeatzaile bibliografikoak gure dokumentuen datu-base bat sortzeko aukera ematen duten programak dira. Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena programa horiei dagokienez:**

a) Kudeatzaile bibliografikoek kopiak detektatzen, adierazten eta ezabatzen dituzte, baldin eta aukera hori konfiguratuta edo kontratatuta badugu (beti "premium" aukera bat baita).
b) Zotero aipamenen doako kudeatzaile bat da, Citation Manager izeneko formatu propioa garatu duena, erreferentziak esportatzeko.
c) Erreferentzia sozialen kudeatzaileek (Reference Manager edo Mendeley, besteak beste) sare sozial batean lan egiteko aukera ematen dute.
d) RIS (Research Information Systems) formatua da datu-baseen eta kudeatzaile bibliografikoen artean datuak trukatzeko formatu estandarra.

**375.- Ikerketa-lan baten bibliografia sortzean, beharrezkoa da nazioarteko aipamen-estilo batera egokitzea, ikerketa-arloaren, artikulua argitaratuko den aldizkariaren eta abarren arabera. Adierazi hauetako zein EZ dagokion bibliografia-aipamenen estilo bati:**

a) Vancouver estiloa (asko erabiltzen da osasun-zientzien esparruan).
b) Oxford Business School estiloa (ekonomiarekin eta negozioekin lotutako arloetan erabilia).

c) Nature estiloa (aldizkari ospetsu horrek erabilia).
d) Modern Language Association estiloa (hizkuntzalaritzaren eta beste diziplina humanistiko batzuen esparruan erabilia).

**376.- Vancouver estiloaren arabera, nola aipatu behar dira egileen izenak erreferentzia bibliografiko batean artikuluak sei egile baino gehiago baditu? (Patrias K, 2007).**

a) Lehenengo sei egileak aipatzen dira, eta, ondoren, “et al.” laburdura.
b) Lehenengo hiru egileak aipatzen dira, eta, ondoren, “et al.” laburdura.
c) Egile guztiak aipatu behar dira, kopurua edozein dela ere.
d) Lehenengo egilea aipatzen da, eta, ondoren, “et al.”.

**377.- Gure dokumentuetan aipuak eta bibliografiak txertatzeko, aurretik plugin bat instalatu behar da erabiliko dugun testu-prozesadorerako. Zoteroren kasuan, plugin hori honako hauentzat dago eskuragarri:**

a) Microsoft Word eta Apache OpenOffice.
b) Microsoft Word, Google Docs eta LibreOffice.
c) Microsoft Word, Apple Pages eta Adobe PDF.
d) Google Docs, Microsoft Word eta LaTeX (Overleaf bidez).

**378.- Zein da formatu zuzena aldizkari bateko artikulu baten argitalpen-data adierazteko, Vancouver arauen arabera? (Patrias K, 2007).**

a) Urtea, hilabetea (laburtua), eguna. (Adib.: 2004 Mai 5).
b) Eguna, hilabetea (osoa), urtea. (Adib.: 2004ko maiatzaren 5a).
c) Urtea (hilabete laburtua). (Adib.: 2004 (Mai)).
d) Argitalpen-urtea bakarrik da nahitaezkoa. (Adib.: 2004).

**379.- Mendeley erabiliz, modu bat baino gehiago dago gure bilduman dokumentuak eta erreferentziak sartzeko?**

a) Ez, datu bibliografiko guztiak (izenburua, egilea, urtea) banan-banan sartuz bakarrik gehi daitezke dokumentuak, eskuz.
b) Bai, baina soilik sinkronizazio automatikoaren bidez Google Scholarrekin, Mendeleyk ez baitu fitxategi lokalak zuzenean kargatzea baimentzen, segurtasunagatik.
c) Ez, Mendeleyk kendu egin du kanpoko erreferentziak inportatzeko aukera, bere ikertzaileen sare sozialean soilik arreta jartzeko.
d) Bai, hala nola: Web Importer bidez; Mendeleyko katalogotik; artxibo edo kudeatzaile batetik; PDFak gehituz; eskuz; nire argitalpenen bidez.

**380.- Nola sartuko zenuke aipu anizkun bat testu barruan Vancouver estiloaren arabera?**

a) Hiru dokumentu korrelatibo edo gehiago badira, marratxoz bereizita (1-3).
b) Puntu eta komaz bereizita (1;2;3).
c) Komekin bereizita, zuriunerik utzi gabe, korrelatiboak badira (1,2,3).
d) Puntu eta komen bidez bereizita (Arroyo, 2019; Gómez, 2022; Zambrano, 2015).

**381.- Zer aukera ematen ditu, besteak beste, EndNote Web-en "Cite While you Write" pluginak?**

a) Zuzenean editatzea estilo bibliografikoaren iturburu-kodea (.ens) Wordeko erlaitzetik, estilo pertsonalizatuak sortzeko.
b) Aipuak txertatzea, aipuak editatzea, estiloa aukeratzea, aipuak eta bibliografia eguneratzea, eremu-kodeak ezabatzea, esportatzea.
c) Automatikoki sinkronizatzea EndNoteko liburutegiko PDFetan egindako oharrak eta azpimarrak, Wordeko dokumentuan oin-ohar gisa ager daitezen.
d) Erreferentzia bibliografiko guztiak testu osorako (Full Text) zuzeneko hiperesteka bihurtzea automatikoki, EndNoteren hodeiko memorian ostatatuta, parekoen berrikuspena egiteko.

**382.- Zein da kapituluaren egileak eta liburuaren argitaratzaileak desberdinak diren liburu baten kapitulu bat aipatzeko prozedura zuzena, Vancouver estiloari jarraiki?**

a) Liburuaren argitaratzailea. Liburuaren izenburua. Kapituluaren egilea. Kapituluaren izenburua. Urtea.
b) Kapituluaren egilea(k). Kapituluaren izenburua. In: Liburuaren argitaratzailea(k). Liburuaren izenburua. Edizioa. Herria: Argitaletxea; urtea. Hasierako/amaierako orr.
c) Kapituluaren izenburua. Kapituluaren egilea. In: Liburuaren izenburua. Urtea.
d) Kapituluaren egilea(k). Kapituluaren izenburua. Liburuaren izenburua. Liburuaren argitaratzailea(k). Edizioa. Argitaratze-lekua: Argitaletxea; urtea. Hasierako/amaierako orr.

**383.- Aipuak txertatzearen eta erreferentzia bibliografikoak sortzearen esparruan, Flores Galearen arabera (2024), zein da prozedura zuzena etorkizuneko aipuek eta erreferentziek akatsik ez dutela ziurtatzeko?**

a) Akatsa zuzenean zuzentzea testu-prozesadorean (Word edo Google Docs).
b) Google Scholarren metadatuetan soilik konfiantza izatea, oso zehatzak direlako.
c) Testu-prozesadorearen barruan normalizatutako DOIak edo URLak erabiltzeaz soilik fidatzea, kudeatzaile bibliografikoaren algoritmoak desadostasun ortografikoak edo egiletza-desadostasunak dinamikoki eguneratzeko, kanpoan eta automatikoki.
d) Erabilitako kudeatzaile bibliografikoaren datu-basean zuzentzea.

**384.- Zein da APA (7. ed.) eta Vancouver arauen arteko funtsezko aldea testuaren barruko aipamenen mekanikari dagokionez?**

a) APAk goi-indizeak erabiltzen ditu eta Vancouverrek parentesiak, egilearen izenarekin.
b) APAk oin-oharren sistema erabiltzen du erreferentzietarako, eta Vancouverrek, berriz, parentesi arteko sistema erabiltzen du, egilea eta data aipatuta.
c) APAk egilea eta data aipatzearen sistema erabiltzen du, eta Vancouverrek elkarren segidako zenbakizko sistema.
d) Ez dago alderik; biek erabiltzen dituzte zenbakiak kortxete artean.

**385.- Flores Galeak (2024) adierazten duenaren arabera, zer ezaugarrik bereizten ditu Zotero eta beste kudeatzaile batzuk, hala nola Mendeley edo EndNote?**

a) Kode irekiko eta libreko softwarea da.
b) Berezko sare sozial akademiko baten jatorrizko integrazioa.
c) Metadatuak esportatzeko formatuen (.ris eta .bib) esklusibotasuna.
d) Estiloa zuzentzeko gaitasun automatizatua, adimen artifizial sortzailean oinarrituta.

**386.- Zer estilo bibliografiko erabili da erreferentzia bibliografiko hau idazteko? "Blanco, M., Veiga, O. L., Sepúlveda, A. R., Izquierdo-Gomez, R., Román, F. J., López, S., eta Rojo, M. (2019). Ambiente familiar, actividad física y sedentarismo en preadolescentes con obesidad infantil: estudio ANOBAS de casos-controles. Atención Primaria, 52(4), 250-257. https://doi.org/ 10.1016/j.aprim.2018.05.013".**

a) Vancouver estiloa.
b) Chicago estiloa.
c) APA estiloa.
d) MLA estiloa.

**387.- Zer ezaugarri dituzte erreferentzia bibliografikoen kudeatzaileek? (Duarte-García, 2007).**

a) Memoria-sistema itxiak dira, eta haien funtzio nagusia testu-dokumentuen aipamenen ortografia zuzentzea da. Hitz komertzialen prozesadore-luzapen gisa jarduten dute, karpetak eskuz antolatzeko.
b) Sare sozial akademikoen plataforma esklusiboak dira, ikertzaileen artean PDF fitxategiak trukatzeko diseinatuak, eta haien arkitekturak metadatuak liburutegietako katalogoetara edo nazioarteko indizeetara esportatzea eragozten du.
c) Erreferentzia bibliografikoen kudeatzaile bat testu-prozesadorearentzako osagarri batekin konbinatzen du, aipuak eta bibliografiak txertatzea automatizatzen duena.
d) Irudietatik eta bideo-fitxategietatik bakarrik metadatuak ateratzeko software-aplikazioak dira, eta ez dute elkarreragin-gaitasunik datu-base dokumentalekin edo informazio zientifikoa berreskuratzeko sistemekin.

**388.- Baieztapen hauetatik, zeinek deskribatzen ditu hobe "berrikuspen zientifikoak" edo "reviews" dokumentu motaren ezaugarriak?**

a) Oraintsuko ikerketa esperimentalaren emaitza originalak aurkezten dituzten dokumentu laburrak dira.
b) Oro har, diziplina bateko adituek sinatutako lanak dira, eta dagokion ikerketa-eremuarekin lotuta argitaratutako literatura garrantzitsuenaren azterketa zehatza egiten dute.
c) Azterlan bibliometrikoetarako garrantzitsutzat jotzen ez diren argitalpenak dira.
d) Dokumenturik ohikoena dira aldizkari zientifikoetan, eta ezagutza originala ematen dute beti.

**389.- Hautatu erantzun ZUZENA:**

a) Web of Science-k ezagutza-adar handietako aipamen-indizeetarako sarbidea ematen du, harpidetza bidez: Science Citation Index Expanded, Social Sciences Citation Index eta Arts & Humanities Citation Index.
b) Scopus-ek ezagutza-adar handietako aipamen-indizeetarako sarbidea ematen du, harpidetza bidez: Science Citation Index Expanded, Social Sciences Citation Index eta Arts & Humanities Citation Index.
c) Web of Science-k aipamen-indize hauetarako sarbide irekia eta doakoa eskaintzen du: Science Citation Index Expanded, Social Sciences Citation Index eta Arts & Humanities Citation Index.
d) Scopus-ek Science Citation Index Expanded, Social Sciences Citation Index eta Arts & Humanities Citation Index indizeak integratzen ditu, bere datu-base nagusien zati gisa.

**390.- Zer ezaugarri partekatzen dute Scopus-ek eta Web of Science-k?**

a) Biak ezagutza-eremu bakarrean espezializatutako datu-base tematikoak dira.
b) Biak diziplina anitzeko datu-base bibliografikoak dira, eta, gainera, aipamenen indize gisa funtzionatzen dute, jasotako erreferentziak eta aipamenak erregistratzen baitituzte.
c) Biek eduki guztietarako doako sarbidea eskaintzen dute.
d) Bietako batek ere ez ditu erregistratzen indexatutako dokumentuen erreferentzia bibliografikoak.

**391.- Informazio-baliabide hauetatik, zein dago osasun-zientzietan espezializatuta?**

a) ACS.
b) INGEBOOK.
c) EMBASE.
d) MLA Directory of Periodicals.

**392.- A artikulu batek bibliografian B artikulu bat jasotzen duenean, zera esan dezakegu:**

a) A aipatu du B artikuluak.

b) B artikuluak A aipatu du.
c) A artikuluak B aipatu du.
d) Ez da bietako bat ere aipatu.

**393.- Zein enpresak erosi zituen 2016an Web of Science-rekin lotutako datu-baseak eta produktuak?**

a) Springer Nature.
b) Elsevier.
c) Clarivate Analytics.
d) Wiley.

**394.- Zein kasutan EZ litzateke oso egokia izango Web of Science erabiltzea?**

a) Nazioarteko literatura zientifikoaren azterketa bibliometrikoa egiteko.
b) Ikerketa natur zientzietan eta zientzia fisikoetan oinarritzen denean.
c) Gizarte-zientzien eta giza zientzien literatura aztertu behar denean estaldura espezifiko handiagoarekin.
d) Argitalpenen eragina aipamenen bidez aztertu nahi denean.

**395.- Web of Science edo Scopus datu-baseen aldean, zein da Dimensions-en abantaila nagusietako bat?**

a) Patente eta kasu klinikoetan soilik ardazten da.
b) Edukien estaldura handiagoa.
c) Giza zientzien literaturara hertsiki mugatzea.
d) Mugarik gabe esportatu ahal izatea doako bertsioan.

**396.- Aukera hauetako zeinek definitzen du hobekien OpenAlex?**

a) Merkataritza-bilatzaile bat da, eta eragin handiko aldizkariak soilik indexatzen ditu.
b) Katalogo bibliografiko irekia da, eta argitalpenen, egileen, erakundeen eta aipamenen metadatuak eskaintzen ditu. 2022an sortu zen Microsoft Academic Graph-en ondorengo gisa.
c) Analisi bibliometrikorako plataforma pribatu bat da, eta harpidetza instituzionalaren bidez baino ezin da eskuratu.
d) Tesi eta dokumentu akademikoak gordetzeko sarbide irekiko gordailu instituzional bat da.

**397.- Ikertzaile batek SJR (Scimago Journal Rank) indizean aldizkari jakin batek duen postua ezagutu nahi badu, zein izango litzateke hori ebazteko informazio-iturri aproposa?**

a) Google Scholar.
b) Scopus.
c) Essential Science Indicators.
d) Journal Citation Reports.

**398.- Baieztapen hauetatik, zeinek deskribatzen du SJRren eta eragin-faktorearen arteko funtsezko desberdintasun metodologiko bat?**

a) Eragin-faktoreak aipamenak egiten dituen aldizkariaren garrantziaren arabera haztatzen ditu aipuak, eta SJRk, berriz, batezbesteko sinple bat erabiltzen du.
b) SJRk aipamenak egiten dituen aldizkariaren ospearen arabera haztatzen ditu aipuak, PageRank motako algoritmo baten bidez; eragin-faktoreak, berriz, uniformeki zenbatzen ditu aipu guztiak.
c) Biek erabiltzen dituzte bi urteko aipamen-leihoak, baina eragin-faktoreak garrantzi tematikoaren araberako haztapena jasotzen du.
d) Eragin-faktoreak berrikuspen-artikuluak baztertzen ditu, baina SJRk barne hartzen ditu.

**399.- Produktu hauetatik zein EZ da suite bibliometriko bat?**

a) InCites.
b) Scival.
c) Dimensions Analytics.
d) Web of Science.

**400.- Zein da h indizearen definizio formal zuzena?**

a) Egile baten gehien aipatutako artikuluak dituen aipamenen gehieneko kopurua da.
b) Egile batek argitaratutako dokumentu guztiek jasotako aipamenen batez besteko aritmetikoa da.
c) Baliorik handieneko h da, hau da, egileak h dokumentu ditu eta horietako bakoitzak gutxienez h aipamen ditu, bere lanak aipamen gehien dituenetik gutxien dituenera ordenatu ondoren.
d) Balio txikieneko h da, eta egilearen dokumentu guztiek balio hori gainditzen dute.

**401.- Baieztapen hauetatik, zeinek deskribatzen du zuzen aldizkari baten Eigenfactor adierazlea?**

a) Aldizkari bateko artikuluek argitaratu ondorengo bi urteetan izan duten batez besteko eragina neurtzen duen adierazlea da.
b) Aipamen-sareen analisian oinarritutako metrika bat da, aipuak aldizkari igorleen garrantziaren arabera haztatzen dituena, autoaipuak alde batera utzita eta bost urteko aldia kontuan hartuta.
c) Aldizkariak urtebetean argitaratutako artikulu guztien arabera sailkatzen dituen adierazlea da.
d) Aldizkari bateko artikuluak argitaratzen diren urtean bertan aipuak jasotzen noiz hasten diren kalkulatzen duen neurria da.

**402.- Hauetako zein EZ da ebidentzian oinarritutako medikuntzaren iturri bat?**

a) Praktika klinikoko gidak.
b) Ikerketa-artikulu originalak dituzten aldizkari zientifikoak.
c) Berrikuspen sistematikoak.

d) Saiakuntza klinikoak.

**403.- Zein da ebidentzian oinarritutako medikuntzaren (EOM) lehen urrats nagusia, proposatutako sekuentziaren arabera?**

a) Informazio-iturri eraginkorrenak eta errazenak hautatzea.
b) Informazioa ebaluatzeko estatistika-kontzeptu aurreratuak aplikatzea.
c) Eskura dagoen literatura medikoaren irakurketa kritikoa egitea.
d) Ezagutza-premia bat identifikatzea galdera kliniko bat egitearen bidez.

**404.- Haynesen "6S" piramidearen (edo 5.0 eboluzioaren) ereduaren barruan, ebidentzia zientifikoa antolatzeko, zein da 5.0 sistemaren barruko "sumarioak" definitzen dituen ezaugarri nagusia eta beheko mailekiko aldea?**

a) Aurrez ebaluatutako informazioa ematen dute, laburtuta eta egoera klinikoen arabera antolatuta, arreta-puntuan erabiltzeko.
b) Pronostikoari eta tratamenduari buruzko galderak erantzutera mugatzen dira.
c) Ebidentzia gordina eskaintzen dute, eta beraz klinikoak kritikoki irakurri behar du nahitaez.
d) IMRAD (Sarrera, Metodoak, Emaitzak eta Eztabaida) egitura tradizionalari eusten dioten dokumentu luzeak dira.

**405.- Zer alde dago "sinopsiaren" eta "aldez aurretik ebaluatutako azterketa iragaziaren" (EFPE) artean?**

a) EFPE beti kritikoki irakurri behar du klinikoak, eta sinopsia ez.
b) Sinopsiak azterlan originalen gainean bakarrik egiten dira, eta EFPEek, berriz, gida klinikoak soilik barne hartzen dituzte.
c) Sinopsiak balio-iritziak eta aplikagarritasunari buruzko iruzkinak barne hartzen ditu; EFPE, berriz, irizpide metodologikoen arabera hautatutako jatorrizko azterlana da, iruzkindutako laburpen berri bat gehitu gabe.
d) Ez dago alderik; bi terminoak sinonimoak dira 5.0 piramidean.

**406.- Zein erakunde akademikotan hasi zen hedatzen EOMren metodologia 1960ko hamarkadaren hasieran, irakaskuntza medikoaren ardatz nagusi gisa?**

a) Oxford Unibertsitatean.
b) Parisko Unibertsitatean.
c) Harvard Unibertsitatean.
d) McMaster Unibertsitatean.

**407.- EOMren definizioaren barruan, zer esan nahi du ebidentziaren "zentzuzko erabilera" terminoak?**

a) Metaanalisien eta Cochrane berrikuspenen emaitzak sistematikoki aplikatzea aztertutakoaren antzeko patologia duten paziente guztiei, horrela zaintzaren estandarizazioa bermatzeko.




b) Maisutasun klinikoa aplikatzea arriskuak eta onurak orekatzeko, pazientearen lehentasunak kontuan hartuta.
c) Azterketa kliniko baten barne-baliozkotasunaren ebaluazio kritikoa egitea, eta ziurtatzea diseinu metodologikoa (hala nola itsutzea edo ausazkotzea) optimoa dela emaitzak kontuan hartu aurretik.
d) Literatura zientifikoaren bilaketa sakona indexatutako datu-baseetan, erabaki diagnostiko edo terapeutiko bat hartu aurretik azterlan garrantzitsurik ahaztu ez dela ziurtatzeko.

**408.- Cochrane Plus liburutegiko atal hauetako zeinetan daude berrikuspen baterako proposatutako aurrekariak eta metodoak jasotzen dituzten protokoloak?**

a) Other Published Reviews (OPR).
b) Cuiden Plus.
c) Saiakuntza Kontrolatuen Cochrane Erregistro Zentrala (CENTRAL).
d) Berrikuspen sistematikoen Cochrane datu-basea.

**409.- Bilaketa bibliografiko baten testuinguruan, nola definitzen da Vega Ramírezen (2013) arabera "berrikuspen sistematiko" bat?**

a) Azterlan independenteen emaitzak biltzen dituen ikerketen ikerketa.
b) Azterlan deskribatzailea da, eta modu narratiboan biltzen ditu gai bati buruzko aurrerapen berrienak, inpaktu handieneko artikuluak hautatuz egilearen irizpide adituaren arabera, gaikako eguneratzea eskaintzeko.
c) Analisi estatistiko aurreratua (metaanalisia) da, lehen mailako hainbat azterlanen zenbakizko datuak konbinatzen dituena esku-hartze baten eraginaren zenbatespen globala lortzeko, analisi kualitatiboa alde batera utzita.
d) Eduki digitalak editatzeko prozesu bat da, eta PubMed edo Scopus bezalako datu-baseetako indexazio-algoritmoak erabiltzen ditu dagoen bibliografia antolatzeko, aurretik kalitate metodologikoko iragazkirik aplikatu gabe.

**410.- Zein dira galdera kliniko egituratu bat egiteko PICO akronimoa osatzen duten lau osagaiak?**

a) Pazienteak, ikerketa, kausak eta helburuak.
b) Pazienteak, interbentzioa, konparazioa eta emaitzak (outcomes).
c) Biztanleria, interbentzioa, ondorioak eta behaketa.
d) Pronostikoa, interbentzioa, kontrola eta egokitasuna.

**411.- Zein da berrikuspen sistematiko baten eta berrikuspen narratibo tradizional baten arteko desberdintasun metodologiko nagusia?**

a) Berrikuspen narratiboak bilaketa-protokolo konplexuagoak erabiltzen ditu.
b) Berrikuspen sistematikoan metaanalisiko teknika estatistikoak erabili behar dira emaitzak konbinatzeko; berrikuspen narratiboak, berriz, aurkikuntzen sintesi kualitatiboa baino ez du egiten.

c) Azterketa narratiboak behaketa-azterlanak eta azterlan teorikoak bakarrik har ditzake barne; berrikuspen sistematikoak, berriz, saiakuntza kliniko ausazkotuen (SKA) analisia du betekizun bakartzat, ebidentzia bermatzeko.
d) Berrikuspen sistematikoak metodologia zientifikoa aplikatzen du, alborapenak minimizatzeko.

**412.- Salvador Olivánek (2006) aipatutako ebidentziaren hierarkia tradizionalaren arabera, zer maila dute saiakuntza kontrolatu ausazkotuek?**

a) II-1 maila.
b) III. maila.
c) I. maila.
d) II-2 maila.

**413.- Hauetako zein tresnaren helburua eta leloa da ebidentzian oinarritutako medikuntzako baliabideetan galdera klinikoei azkar eta erraz erantzutea?**

a) Turning Research Into Practice.
b) PubMed.
c) EMBASE.
d) CINHAL.

**414.- Cochrane Libraryren barruan, zein da "Cochrane Central Register of Controlled Trials" (CENTRAL) datu-basearen funtzio nagusia?**

a) Berrikuspen sistematiko osoak argitaratzea, metaanalisiekin.
b) Ausazko eta ia ausazko saiakuntza kontrolatuen txostenen iturri kontzentratua izatea.
c) Arreta medikoko gunerako diseinatutako erantzun kliniko laburrak eskaintzea.
d) Oraindik daturik bildu ez duten ikerketa-protokoloak ostatatzea.

**415.- Zein erakundek sortzen du Espainiako Praktika Klinikoko Giden datu-basea?**

a) PubMed Health.
b) Fisterra.
c) Cochrane Iberoamerikarra.
d) GuiaSalud.

**416.- IMRAD egituran, zer informazio sartu behar da nahitaez Sarrera atala amaitzean?**

a) Ikerketaren diseinuan identifikatutako mugak.
b) Azterlanaren emaitza garrantzitsuenen laburpena.
c) Xede-populazioaren deskribapena eta hautaketa-irizpideak.
d) Helburuak eta, halakorik balego, azterlanaren hipotesiak azaltzea.

**417.- CRediT taxonomian, pertsona batek baino gehiagok rol bera betetzen badute, aukerako zer kalifikatzaile erabil daitezke ekarpen-maila zehazteko?**

a) Lead (zuzendaria), equal (berdina) edo supporting (laguntzailea).
b) Nagusia, bigarren mailakoa edo teknikoa.
c) Seniorra, juniorra edo laguntzailea.
d) Ikuskatzailea, egilea edo ohargilea.

**418.- Zein da International Committee of Medical Journal Editors (ICMJE) erakundearen jarrera ofiziala adimen artifizial (AA) sortzailearen (ChatGPT, adibidez) erabilerari dagokionez eskuizkribuen egiletzan?**

a) AA egilekide gisa zerrendatzen ahal da, betiere egindako ekarpena "Esker onen" atalean zehazten bada, eta ereduak sar ditzakeen alborapenen erantzukizun teknikoa bere gain hartzen bada.
b) Hertsiki debekatuta dago AA sortzailea erabiltzea "Emaitzak" eta "Eztabaida" atalak idazteko. Gramatika-estiloa zuzentzeko eta hizkuntzak itzultzeko bakarrik dago baimenduta, editorearen zuzeneko ikuskaritzapean.
c) AA ez da egile gisa zerrendatu edo aipatu behar, ezin baitu bere gain hartu lanaren osotasunaren erantzukizuna.
d) Ikerketa medikoan AA erabiltzeko, aldez aurretik onartu behar du Ikerketako Batzorde Etiko (IBE) independente batek. Batzorde horrek erabakiko du AAk Vancouverren egile-irizpideak betetzen dituen, erabilitako algoritmoen originaltasuna ebaluatu ondoren.

**419.- Aldizkako argitalpenen aurkezpenari buruzko ISO arauak kontuan hartuta, zein arduratzen da espezifikoki banakako ekarpenak eta artikuluak arautzeaz?**

a) ISO 8.
b) ISO 215.
c) ISO 7275.
d) ISO 9706.

**420.- Interes-gatazken testuinguruan, zer egin behar dute kanpoko berrikusleek eskuizkribu bat ebaluatzeko eskatzean?**

a) Eskaera onartu aurretik egileen anonimotasun osoa eskatzea, balizko interes-gatazka oro neutralizatzen dela ziurtatzeko, ikertzaileen identitatea ez ezagutzeagatik.
b) Eskuizkribua ebaluatzea eta, alborapenik aurkituz gero, prozesuaren amaieran argitaratzaileari jakinaraztea.
c) Harreman pertsonalei jaramonik ez egitea, beren etika profesionala hauskaitza dela uste badute.
d) Beren iritzian eragin dezakeen edozein harreman edo jardueraren berri ematea eta, gatazka egon badaiteke, atzera botatzea.

**421.- Zer ezaugarrik ematen dio balio handiagoa artikulu zientifikoari beste kalitate-kontzeptu batzuekin alderatuta? (Figueroa García, 2023).**

a) Egindako ekarpenaren originaltasuna.
b) Emaitza esperimentalen erreproduzigarritasuna.
c) Erabilitako zorroztasun dialektiko eta akademikoa.
d) Printzipio etikoak zorrotz betetzea.

**422.- Azterlan baten erreproduzigarritasuna ziurtatzeko, zein atal izan behar da xehe-xehea eta zehatza?**

a) Emaitzak.
b) Eztabaida.
c) Metodologia.
d) Laburpena (Abstract).

**423.- Zertan datza sinaduren ordenari buruzko "SDC approach" (sequence-determines-credit) interpretazioa?**

a) Lehenengo egileak merezimendu nagusia dauka, eta merezimendua jaisten doa eskuinerantz.
b) Lehenengo eta azken pertsonek garrantzi bera dute.
c) Egileen ordena alfabetikoa da, besterik gabe.
d) Korrespondentziaren egilea beti agertzen da lehenengo.

**424.- Editorearen rolari dagokionez, funtzio hauetako zein dagokio argitaletxe tradizionalaren kudeaketari jarraiki?**

a) Banaketa logistikoko prozesuak zuzenean gainbegiratzea eta inbentario fisikoak kontrolatzea azken salmenta-puntuetan.
b) Konposizio tipografikoaren arbitraje teknikoa eta inprimaketa-makinen kalibrazioa, kolorearen fideltasuna ziurtatzeko.
c) Zuzenketa ortotipografikoaren gauzatze materiala eta oinarrizko maketaren diseinua, aurreinprimaketako estandarrak betez.
d) Argitalpen-politika eta ebaluazio-prozedurak ezartzea.

**425.- Zein da egileen erantzukizuna "preprints" gordailuei dagokienez, ICMJEren gomendioen arabera?**

a) Debekatuta dago aldizkari batera bidaltzea preprint zerbitzari batean aldez aurretik argitaratutako edozein lan.
b) Egileek lana preprint gisa argitaratu den jakinarazi behar diote aldizkariari, eta, behin betiko argitalpenaren ondoren, preprintak azken artikulura igortzen duela ziurtatu behar dute.
c) Lana preprint gisa existitzen den bilatzea eta estekatzea editoreen erantzukizuna da.
d) Egileek onartu eta berehala igo behar dute aldizkariak maketatutako azken bertsioa preprint zerbitzarira.

**426.- Artikulu zientifiko baten egituran, elementu hauetako zein hartzen dira "atal nagusitzat"?**

a) Izenburua, laburpena, gako-hitzak eta sarrera.
b) Emaitzak, eztabaida, ondorioak eta erreferentzia bibliografikoak.
c) Laburpena, sarrera, datuen analisia eta eranskinak.
d) Sarrera, materiala eta metodoak, emaitzak, eztabaida eta ondorioak.

**427.- Dagoeneko argitaratuta dagoen artikulu baten emaitzak baliogabetzen dituen akats baten aurrean (kalkulu-akats bat, adibidez), zein ekintza gomendatzen du ICMJEk azpian dagoen zientziak baliozkoa izaten jarraitzen badu?**

a) Artikulua aldizkariaren datu-basetik kentzea arrastorik utzi gabe.
b) Egileek eta editoreak sinatutako kezka-adierazpen bat (Expression of Concern) ematea. Jatorrizko artikulua ez da aldatuko, baina irakurleei ohartaraziko zaie datu espezifikoak baliogabeak direla, harik eta gehigarri zehatz bat argitaratu arte.
c) Argitaratutakoa zuzentzea bertsio zuzendua argitaratuz, azalpen zehatz batekin.
d) Ez da ezer egin behar argitaratu zenetik bi urte baino gehiago igaro badira.

**428.- Zein da "peer review" (parekoen berrikuspena) edo arbitraje-prozesuaren funtzio nagusia?**

a) Ezagutzari, diseinu metodologikoari eta baliozkotasun zientifikoari egindako ekarpena kritikoki ebaluatzea.
b) Egilearen edozein isuri kognitibo edo interes-gatazka ezabatzea, ebaluazio-irizpide kuantitatibo eta estandarizatuak aplikatuz.
c) Egilearen jabetza intelektuala balizko plagioetatik babestea, aurkikuntzaren lehentasuna legalki aitortzen dela ziurtatuz bidalketaren unetik.
d) Artikulua argitaratzeko erabakia modu autonomoan eta behin betikoan hartzea, argitaratzaileari kontsultatu gabe.

**429.- "FLAE" (first-last-author emphasis) ikuspegiaren arabera, sinaduren zer posiziok dute garrantzi bera?**

a) Lehenengo eta bigarren posizioak.
b) Lehenengo eta azken posizioak.
c) Posizio guztiek garrantzi bera dute.
d) Korrespondentzia-egilearen posizioak bakarrik.

**430.- Zein da abizen arruntak eta bataio-izen bakarra dituzten egileen sinadura zientifikoa normalizatzeko gomendio nagusia, nazioarteko datu-baseetan anbiguotasuna saihesteko?**

a) Bi abizenak gidoi batekin lotzea (lotura-gidoia), abizen bakar gisa indexatzeko.
b) Lehenengo abizenaren ondoren bakarrik bataio-izena aipatzearen formatua erabiltzea, eta artikuluaren identifikatzaile iraunkorrak (DOI) egilea aipamenen indizeetan zuzen lotzen duela espero izatea.
c) Abizenen ordena aldatzea beste aldizkari batean argitaratzen den bakoitzean.

d) Bataio-izena ez erabiltzea eta artikuluaren goiburuan ORCID zenbakia bakarrik erabiltzea.

**431.- Egile batek ORCIDen erregistro bat sortzeagatik ordaindu behar du?**

a) Dibulgazio zientifikorako obra bat denean baino ez du ordaindu behar.
b) Bai, Thomson Reuters-en ResearcherID sistemari.
c) Ez, irabazi-asmorik gabeko erakundea delako.
d) Erregistro baten aldaketa bakarrik ordaindu behar du.

**432.- Zertarako balio du Curriculum Vitae Normalizatuak?**

a) Nazioarteko datu-baseetan indexatutako argitalpen guztiak (hala nola Scopus edo Web of Science) automatikoki biltegiratzen dituen gordailu digital zentralizatu gisa jarduteko balio du, ikertzaileak datuak eskuz kargatzea saihesteko.
b) Ikertzaileek curriculuma formatu digital bakar eta komun batean aurkeztu ahal izateko balio du, curriculum-informazioa automatikoki eguneratu ahal izateko berriro sartu behar izan gabe.
c) Kalitatea ziurtatzeko plataforma bat da, ikertzaileak sartutako merezimendu bakoitzaren egiazkotasuna kanpotik ikuskatu eta baliozkotzen duena, ikertzailea egiaztapen-prozesuetara (hala nola ANECAra) aurkeztu baino lehen.
d) PDF bidezko maketazio-formatu bisual bakar eta zurruna ezartzea, irakurketa adimen artifizialeko algoritmoen bidez optimizatzeko sektore pribatuko enpresetako curriculum-baheketaren faseetan.

**433.- Ikertzaile batek erakunde-afiliazioa edo helbide elektronikoa aldatzen badu, zer gertatzen da ORCIDen iD-arekin?**

a) Identifikatzailea aldi baterako desaktibatzen da, harik eta erakunde berriak lotura baliozkotzen duen arte, autentifikazio federatuko prozesu baten bidez. Une horretan, iD originalari atzizki bat gehitzen zaio, jurisdikzio akademikoaren aldaketa islatzeko.
b) Plataformak erregistro berri bat sortzea eskatzen du, datu-base bibliometrikoetan (hala nola Scopus edo Web of Science-n) metadatuen gatazkak saihesteko. Ondoren, profilak batzen dira (merge) eta erregistroak identifikatzaile nagusi berri batekin bateratzen dira.
c) Helbide elektroniko instituzional berriari lotutako iD berri bat eskatu behar du.
d) Identifikatzailea ez da aldatuko (bakarra eta iraunkorra baita) bere karrera osoan.

**434.- Artikuluaren ondorioen arabera (Báez, 2008), zein da Curriculum Vitae Normalizatua (CVN) erabiltzearen zuzeneko onuretako bat ikertzaileentzat?**

a) Deialdi autonomikoetan parekoen ebaluazioa (peer review) behin betiko kentzea eta merezimenduen iraulketa automatizatuarekin ordeztea.
b) Ikertzailearen h indizea automatikoki handitzea, profila osatu ondoren bere argitalpenak berehala indexatzen direlako nazioarteko datu-baseetan.
c) Bere jarduerari buruzko datu osoak eskuragarri egotea, etengabe eguneratuta eta deialdiaren arabera formatu desberdinetan aurkezteko prest.

d) Espainiako aldizkari zientifiko guztiek XML-CVN formatua erabiltzeko betebeharra, jatorrizko eskuizkribuak jasotzeko.

**435.- Zein da ORCID identifikatzaile baten luzera estandarra, eta nazioarteko zein kodetze-arauren arabera egituratzen da?**

a) 32 karaktere alfanumeriko, ISO/IEC 9834 arauaren arabera egituratuak.
b) 16 digitu, ISO 27729 arauaren arabera egituratuak.
c) 12 digitu hamartar, ISO 639-2 arauaren arabera egituratuak.
d) 13 digitu, ISO 2108 arauaren arabera egituratuak.

**436.- Zein dira identitate bibliografiko bakarra eraikitzeko funtsezko hiru etapak? (Díaz-Redondo, 2018).**

a) Hautaketa, indexazioa eta hedapena.
b) Ikerketa, argitalpena eta ikusgarritasuna.
c) Erregistroa, normalizazioa eta ebaluazioa.
d) Hautaketa, normalizazioa eta bateratzea.

**437.- CVN ziurtapen-prozesu batean, zer eragilek hartzen dute parte?**

a) Erakunde eskatzaileak, auditoreak edo Batzorde Teknikoak, CVNren dokumentazioak, FECYTen kudeatzaileak (Mantis) eta baliozkotzeko tresnak.
b) Ikertzaileak (edukiaren sortzaile gisa), Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT; estandarraren erakunde auditore gisa) eta Estatuko Ikerketa Agentziak (AEI; azken organo ziurtatzaile gisa).
c) Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak (legezko gordailuzain gisa), Ikerketa Errektoreordetzek (merezimenduen balidatzaile gisa) eta CVN plataforma nazionalak (elkarreragingarritasun-nodo gisa).
d) Ikertzaileek eta FECYTek bakarrik; izan ere, ziurtapena prozesu automatizatua da, eta fundazioaren egoitza elektronikoan baino ez da egiten, digitalki sinatutako PDF fitxategi bat kargatu ondoren.

**438.- Nork du ORCID profil bateko datuen pribatutasunaren gaineko kontrola?**

a) Ikertzailearen/erabiltzailearen afiliazio-erakundeak.
b) ORCIDeko Etika Batzordeak.
c) Jatorrizko herrialdeko partzuergo nazionalak.
d) Ikertzaileak/erabiltzaileak.

**439.- Teknologiaren ikuspegitik, zer da CVN formatuko curriculum vitaea?**

a) Karaktereen ezagutze optikoaren (OCR) bidez indexatutako metadatuak dituen PDF fitxategi bat, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.
b) PDF formatuko fitxategi elektroniko bat (CVN-PDF), CVN-XML teknologia txertatua duena.

c) FECYTek garatutako datu-base erlazional jabearen eskema bat, ikerketa-merezimenduak modu zentralizatuan biltegiratzeko.
d) Sinadura elektroniko aurreratuko protokolo bat, hodeian kargatutako merezimendu akademikoen osotasuna eta egiazkotasuna bermatzen duena.

**440.- Sinaduraren normalizazioaren esparruan, abizenetan tartekatutako partikulak daudenean (adibidez, "de la" edo "del"), zein da gomendioa?**

a) Kentzea edo abizenarekin lotzea gidoi baten bidez.
b) Beti bereizita mantentzea, izenaren osotasuna errespetatzeko.
c) Letra larriz idatzitako inizial batekin ordeztea.
d) Partikulak bataio-izenaren amaieran jartzea.

**441.- Egile-identifikatzaile bakarra EZ DEN aukera hautatu.**

a) ResearcherID.
b) Scopus Author ID.
c) ResearchGate.
d) ORCID.

**442.- Zer da FECYTek eskaintzen duen "CVN editorea"?**

a) Sare sozial profesionaleko plataforma bat da, Espainiako ikertzaileentzako bakarrik. Aukera ematen du aipamen bibliografikoak automatikoki indexatzeko, Web of Science-ko APIarekin zuzenean konektatuz.
b) Bilaketa-motor semantiko bat da, hizkuntza naturala prozesatzeko algoritmoak (PLN) erabiltzen dituena egile baten ekoizpen zientifikoa EJSNren arloen arabera automatikoki sailkatzeko.
c) Online aplikazio bat da, ikertzaileei curriculum vitaea Curriculum Vitae Normalizatu (CVN) formatuan zerotik sortzeko edo hura aldatzeko aukera ematen diena.
d) Gordailu digital zentralizatu bat da, eta ikertzaileek nahitaez igo behar dituzte beren argitalpenak, sarbide irekian, Zientziaren Legea betetzeko.

**443.- Zein erakundek kudeatzen du 2006az geroztik ikertzaileentzako eta Espainiako erakundeentzako Curriculum Vitae Normalizatuaren zerbitzua?**

a) Estatuko Ikerketa Agentziak.
b) Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluak.
c) Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak.
d) Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak.

**444.- Zer dakar zientzia irekiak?**

a) Aldizkariaren kalitatean oinarritutako ebaluazioa (eragin-faktorea).
b) Emaitza zientifikoen kalitatean oinarritutako ebaluazioa.
c) Parekoen azterketa kentzea (peer review).

d) Emaitzak erreproduzitzeko zailtasun handiagoa.

**445.- Zientzia irekiak funts publikoekin garatutako ikerketa-jardueran eragiten du, honako hau aldatzen baitu:**

a) Finantzatzeko modua.
b) Lortutako emaitzak komunikatzeko modua.
c) Ezagutza zientifikoa ebaluatzeko modua.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**446.- Zein har daiteke zientzia irekiaren ondorio negatibotzat?**

a) Komunitate zientifikotik kanpoko gizarte-eragileen parte-hartze handiagoa.
b) Gardentasun handiagoa metodo eta emaitza zientifikoak ebaluatzeko prozesuetan.
c) Oso etikoak ez diren jardunbide harrapakariak dituzten argitaletxeak agertzea.
d) Ez die beren karreraren hasieran dauden ikertzaileei laguntzen.

**447.- Markatu zuzena EZ den aukera: indarrean dagoen araudiak aukera ematen du ezagutza zientifikorako sarbidea mugatzeko, honako hauek babesteko:**

a) Giza eskubideak.
b) Jabetza intelektualaren eskubideak.
c) Argitaletxeekin sinatutako hitzarmenak.
d) Informazio pertsonala.

**448.- Zientzia Irekiaren Estrategia Nazionalean (ENCA) oinarrituta, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?**

a) Zientzia irekiak barne hartzen ditu oinarrizko zientziak eta zientzia aplikatuak, natura- eta gizarte-zientziak eta giza zientziak.
b) Zientzia irekiko azpiegitura digitalen barruan, Open Access aldizkariak eta gordailu instituzionalak edo tematikoak onartzen ditu.
c) Zientzia irekiko azpiegitura digitalen arteko elkarreragingarritasuna sustatzen du.
d) Argitaletxe zientifiko komertzial handiekin negoziatuko da, autoartxibatzea eta beren argitalpenen berehalako sarbide irekia ahalbidetzeko.

**449.- Zein da Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntzako (I+B) egungo esparru-programa?**

a) COARA.
b) Horizonte Europa.
c) EOSC.
d) OpenAire.

**450.- Horizonte Europak ezartzen dituen zehaztapenak kontuan hartuta, artikuluen prozesamenduko argitaratze-tasak (APC) itzulgarriak dira?**

a) Bai, beti.
b) Ez, inoiz ez.
c) Bai, aldizkari hibridoa bada.
d) Bai, sarbide ireki osoko aldizkaria bada.

**451.- Zientzia irekiaren kontzeptuari dagokionez, ezagutza zientifikotzat hartzen da:**

a) Argitalpenak eta ikerketa-datuak.
b) Kode irekiko programa informatikoak.
c) Hezkuntza-baliabideak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**452.- UNESCOk zientzia irekiari buruz emandako gomendioen arabera, zientzia irekiko politika instituzional batek:**

a) Soil-soilik ikertzaileen eginkizunak, eskubideak, erantzukizunak eta betebeharrak zehaztu behar ditu.
b) Ez du politika betetzen dela gainbegiratzeko mekanismorik zehaztu behar, horiek beste politika espezifiko batean jasotzen direlako.
c) Kalitate-arauak betetzen dituzten eta jardunbide onenak hartzen dituzten gordailuen garapena edota erabilera bultzatu eta sustatu behar ditu.
d) Diseinatzeko zaila da, baina behin lortuta, erraz aplikatzen da.

**453.- COARAren kapitulu nazionalen barruan, Espainiakoak, ANECA, CRUE, CSIC eta Carlos III.a Osasun Institutuak bultzatua, helburu hau du:**

a) Espainiako ebaluazio-sistemak berrikusteko eta hobetzeko ekimen bateratua sustatzea.
b) Sektore pribatua zientzia irekiko ekimenetan inplikatzea.
c) Epe luzera jasangarriak diren zientzia irekiko egitura digitalak finantzatzea.
d) Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzea.

**454.- Zientzia gizarteratzeko hainbat modu daude. Hauetako zein EZ da horietako bat?**

a) Gizarte-eragileek bizitza zientifikoaren zikloan parte hartzea, osorik edo zati batean.
b) Zeregin-multzo diskretu bat banatzea, hala nola datuak biltzea edo prozesatzea.
c) Bildutako datuak berrikustea, FAIR izan daitezen.
d) Arazoren bat (adibidez, osasun publikoa) duten ikertzaileen eta komunitateen arteko lankidetza.

**455.- InterAcademy Partnership (IAP) sarearen arabera, hauetako zein da aldizkari eta biltzar harrapakariak egoteko arrazoi bat?**

a) Ikerketaren osotasuna interes komertzialen gainetik jartzea.
b) Ikertzaileek argitaratzeko duten presioa.
c) Parekoen berrikuspen-prozesuari gardentasuna ematea, nahiko opakua izan baita orain arte.
d) Argitaratu beharreko artikuluen kalitatea bermatzea, kantitatearen gainetik.

**456.- Zein da European Open Science Cloud-en (EOSC) helburua?**

a) Argitalpenen eta elkarreragingarritasun-estandarren Europako sare bat garatzea.
b) Datuen eta lotutako zerbitzuen Europako sare bat garatzea, FAIR izan daitezen.
c) Hezkuntza-baliabideen Europako sare ireki bat garatzea.
d) Doktorego-tesien Europako sare ireki bat garatzea.

**457.- Horizonte Europa: onartzen al da argitalpen zientifikoen enbargoa?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Aldizkaria hibridoa bada bakarrik.
d) Aldizkaria Open Access bada bakarrik.

**458.- Sarbide irekiak:**

a) Egileei aitortuak izateko eta aipuak jasotzeko eskubidea bermatu behar die.
b) Creative Commons lizentzia bat hautatzea eskatzen du, argitaratzeko.
c) Lana gutxienez 6 hilabeteko enbargoarekin argitaratzea eskatzen du.
d) Gordailu instituzional edo tematiko batean argitaratzea eskatzen du.

**459.- Aukera hauetako zein EZ DA ZUZENA? Sarbide irekiak:**

a) Ekoizpen zientifikoaren eragina hobetzen du.
b) Ikerketaren emaitzak epe luzera gordetzen ditu.
c) Argitalpenen kalitateari eragiten dio.
d) Ezagutzaren transferentzia arintzen du.

**460.- 2002. eta 2004. urteen artean, sarbide irekiari nazioarteko babesa emateko hainbat adierazpen egon ziren. Hauetako zein EZ da horietako bat?**

a) Budapesteko adierazpena (BOAI).
b) Bethesdako adierazpena.
c) San Frantziskoko adierazpena (DORA).
d) Berlingo adierazpena.

**461.- Creative Commons BY-NC-SA lizentziak...**

a) Lanaren erabilera komertziala ahalbidetzen du.
b) Ez du obra eratorririk onartzen.
c) Obra jabari publikokoa dela adierazten du.
d) Eratorritako obrak lizentzia berberaren pean partekatzera behartzen du.

**462.- Urrezko sarbide irekia (Gold Open Access) aldizkari hauei dagokie:**

a) Obra doan eta berehala eskuratzeko aukera ematen duten aldizkariei, baina artikuluak prozesatzeko kostuak (APC) finantzatzeko ordainketa bat eskatzen dute.
b) Sarbide irekiko artikuluak eta harpidetza bidezko artikuluak konbinatzen dituzten aldizkariei.
c) Editoreen webguneetan libreki irakurtzeko artikuluak eskaintzen dituzten aldizkariei, baina artikuluak banatzeko eta berrerabiltzeko lizentzia ireki espliziturik gabe.
d) Sarbide irekian argitaratzen duten aldizkariei; egileei ez diete kobratzen argitaratzeagatik, ezta irakurleei ere irakurtzeagatik.

**463.- Zein da erakundeen gordailuen berezko elkarreragingarritasun-protokoloa?**

a) CORDIS.
b) OAI-PMH.
c) DSPACE.
d) CERIF.

**464.- Unibertsitateek noiztik argitaratu behar dituzte doktorego-tesiak gordailu batean?**

a) 2007ko otsailaz geroztik.
b) 2010eko otsailaz geroztik.
c) 2012ko otsailaz geroztik.
d) 2016ko otsailaz geroztik.

**465.- Lanak eskubide guztiak gordeta argitara daitezke gordailuan?**

a) Bai.
b) Ez, Creative Commons lizentzia bat izan behar dute.
c) Aldizkari zientifiko batean argitaratu badira bakarrik.
d) Liburuak badira bakarrik.

**466.- Zein EZ da gordailu instituzional baten ezaugarria?**

a) Erakundearen ekoizpen intelektuala kontserbatzea.
b) Erakundeak bete beharreko helburuak markatzea.
c) Erakundeko langile zientifikoen lanak zabaltzea.
d) Zentroan egiten den ikerketaren emaitzetarako sarbidea erraztea.




**467.- Erantzun hauetatik esan zein dagoen OKER: Metadatuak:**

a) Gako-hitzak dira.
b) Beste datu batzuen gainean egituratutako datuak dira.
c) Web-baliabideak identifikatzeko eta deskribatzeko balio dute.
d) Baliabideen lokalizazioa hobetzen dute.

**468.- Dublin Core metadatuen multzoari (bakuna) begira, erantzun hauetatik zein EZ da egia?**

a) Oinarrizko 15 elementu hautazko eta errepikagarrietan oinarritzen da.
b) Identifikatzaile bakarra du baliabidearen erreferentzia bakar gisa.
c) Babesteko metadatuak ditu.
d) Bertsio osoagoa du, Dublin Core Kualifikatu izenekoa.

**469.- Jabetza Intelektualaren Legeak...**

a) Egileari obra baten eskubide moralak lagatzeko aukera ematen dio.
b) Egileari obra baten ustiapen-eskubideak lagatzeko aukera ematen dio.
c) Obra erregistratzera behartzen du, egile-eskubideak babestuta egoteko.
d) Ez du obra baten zatiak copyright bidez erabiltzeko aukerarik ematen, xedea edozein dela ere.

**470.- Erantzun hauetatik esan zein dagoen OKER:**

a) Irakasle batek tutore-lanak egiten baditu edo lan akademiko bat zuzentzen badu, ez da egilekidetzat hartzen.
b) Bost Creative Commons lizentzia mota daude, gehi “jabari publikokoa”.
c) “Jabari publikoko” ereduan ez dago inolako kontrolik lan baten erabilerei dagokienez.
d) Creative Commons lizentzien helburua da erabiltzaile potentzialei jakinaraztea egile-eskubideen titularraren lanarekin zer egin dezaketen edo zer ezin duten egin.

**471.- Erantzun hauetatik esan zein dagoen OKER: ENCAren arabera, nahitaezkoa da lanen eta lotutako datuen azken bertsio onartuaren kopia bat gordetzea sarbide irekiko gordailu instituzional edo tematikoetan:**

a) Aldizkariak ezarritako enbargo-aldia igaro ondoren.
b) Ikerketa-jarduera, zeinaren emaitza argitaratu beharreko lana baita, gehienbat funts publikoekin finantzatzen bada.
c) Ikerketa sektore publikoko langileek egiten badute.
d) Ikerketaren emaitzak argitalpen zientifikoetan barreiatzea erabakitzen bada.

**472.- Zer da Open Research Europe (ORE)?**

a) Sarbide irekiko argitalpen-plataforma bat, Europako Batzordeak abian jarria, artikulu zientifikoak murrizketarik gabe eskuratzeko.
b) Sarbide irekiko argitalpen-plataforma bat, Europako Batzordeak abian jarria, Horizonte 2020ren bidez finantzatutako proiektuen ondoriozko artikulu zientifikoak eskuratzeko.
c) Sarbide irekiko argitalpen-plataforma bat, Europako Batzordeak abian jarria, Horizonte Europaren bidez finantzatutako proiektuen ondoriozko artikulu zientifikoak eskuratzeko.
d) Sarbide irekiko argitalpen-plataforma bat, Europako Batzordeak abian jarria, Horizonte 2020 eta Horizonte Europaren bidez finantzatutako proiektuen ondoriozko artikulu zientifikoak eskuratzeko.

**473.- Ikerketa-datuak...**

a) Desberdin interpreta daitezke diziplinaren edo arlo zientifikoaren arabera.
b) Sarbide irekian argitaratu behar dira, baldin eta lotutako argitalpenik ez badute.
c) Eskubide guztiak gordeta argitaratzen dira, egileak babesteko.
d) Ikerketa-proiektuak garatzen diren diziplina guztietan daude.

**474.- Azken urteotan, datuak gordailutzeko ekimenak sustatu dira, hala nola ekimen hau:**

a) ROAR.
b) Zenodo.
c) Europeana.
d) DOAJ.

**475.- Ikerketa-datu irekiak partekatzeak aukera ematen du:**

a) Ikerketaren inpaktua eta ikusgarritasuna handitzeko.
b) Beste helburu baterako berrerabiltzeko.
c) Erreproduzitzeko eta prozesua ebaluatzeko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**476.- Ikerketa-datuek FAIR printzipioekin bat etorri behar dute. Zer esan nahi du F letrak?**

a) Elkarreragingarria.
b) Aurkitzeko modukoa.
c) Fidagarria.
d) Babestua.




**477.- FAIR datuak...**

a) Beti daude irekita.
b) Ez daude inoiz irekita.
c) Batzuetan ezin dira ireki, sentikorrak direlako.
d) Argitaratu ondoren, sarbideen erregistroa eraman behar da.

**478.- Datu pertsonal hauetatik, zein dira konfidentzialak?**

a) Izen-abizenak.
b) Helbide elektroniko instituzionala.
c) Osasunari buruzko datuak.
d) Lantokia.

**479.- Anonimizatzea honetan datza:**

a) Proiektuan parte hartzen duten pertsonen izena inoiz ez jasotzea.
b) Identifikatzaile pertsonalik inoiz ez jasotzea, hala nola NANa edo Gizarte Segurantzako zenbakia.
c) Amnesia programa erabiltzea.
d) Ikerketan parte hartzen dutenen identitateak babestea.

**480.- Datuak partekatu edo argitaratu behar badira, parte-hartzaileek dokumentu bat sinatu beharko dute. Dokumentu horretan, ikerketaren xedea, jasoko diren datuak, zertarako erabiliko diren eta abar zehaztuko dira. Zein da dokumentu horren izena?**

a) Copyright transfer.
b) Ondare-eskubideen lagapena.
c) Datu pertsonalen babesa.
d) Baimen informatua.

**481.- Datuak Kudeatzeko Plana (DKP) edo Management Data Plan (MDP). Dokumentu horren edozein bertsiotan, nahitaez, hauek azaldu behar dira:**

a) Softwarearen ezaugarriak eta argitaratutako datu-fitxategiak berrerabiltzeko bertsio bateragarriak.
b) Datuak anonimizatzeko aukeratutako prozedura eta aurkitutako zailtasunak.
c) Ikerketa-proiektuaren eta jasotzea, aztertzea eta, hala badagokio, zabaltzea espero diren datuen arteko lotura.
d) Proiektuaren hasieran aurreikusitako ondorioen aurkako datuak.

**482.- Zein da ikerketa-datuak partekatzeko, gordetzeko, aipatzeko, esploratzeko eta aztertzeko diseinatutako kode irekiko web-aplikazioa?**

a) Dataverse.
b) Fedora.

c) Eprints.
d) Invenio.

**483.- Kalkulu-orrietan jasotako ikerketa-datuen erabilerraztasuna eta berrerabilpena sustatzeko, honako hau gomendatzen da:**

a) Koloreak erabiltzea antzeko ezaugarriak dituzten datuak taldekatzeko.
b) Kalkulu-orrietan ohar argigarriak sartzea.
c) Zutabe bakoitzari izenburu deskribatzaile bat gehitzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**484.- Adierazi aukera hauetatik zein den zuzena: zein da Horizonte Europa programaren gomendio bat (ez betebehar bat)?**

a) Datuak erreproduzitzeko aukera ziurtatzeko neurriak hartzea.
b) Sarbide irekian argitaratzea argitalpenak eta datu-fitxategiak ez diren beste ikerketa-emaitza batzuk.
c) a) eta b) erantzunak okerrak dira.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**485.- Datu-multzo bat itxita egon behar bada, metadatuak...**

a) FAIR izango dira eta CC0 lizentziarekin argitaratuko dira.
b) FAIR izango dira eta CC-BY lizentziarekin argitaratuko dira.
c) FAIR izango dira eta CC-BY-SA lizentziarekin argitaratuko dira.
d) Itxita egongo dira baita ere.

**486.- Adierazi ezagutza hauetatik zein EZ den funtsezkoa datuen liburuzainentzat (Data librarian):**

a) Ezagutza tematikoak eta testuinguruari buruzkoak.
b) Komunikazio zientifikoari buruzko ezagutzak.
c) Datuak editatzeko eta gordetzeko ezagutzak.
d) Liburutegi-kudeaketako sistema integratuari (SIGB) buruzko ezagutzak.

**487.- AArekin egindako literatura-berrikuspenen fidagarritasunari dagokionez, zein da Codinaren (2025) ondorio nagusia?**

a) Ez dute fidagarritasuna bermatzen, prompt berak emaitza desberdinak sor ditzakeelako.
b) Erabat fidagarriak dira, algoritmoek ez dutelako giza akatsik egiten.
c) AAko tresnek heldutasun-maila handia lortu dute, eta, horregatik, guztiz ordeztu dezakete ikertzaileak sintesi kualitatiboaren fasean egindako analisi kritikoa.
d) AAk automatizatutako berrikuspen bibliografikoak gizakienak baino objektiboagoak dira, ikertzailearen berrespen-alborapena ezabatzen baitute.

**488.- Prozesu teknikoei dagokienez, AAren eraginaren adibide bat frogatu zuen Richard Brzustowicz-en ikerketak (Alonso, 2024). Hautatu erantzun zuzena:**

a) AAk giza irizpidea erabat ordeztea lortu du gai-goiburuak esleitzean, adituek berrikusteko beharra ezabatuz.
b) Ikerketak erakutsi du adimen artifiziala ez dela gai egitura hierarkiko konplexuak ulertzeko, eta egilea eta data bezalako oinarrizko metadatuak hautemateko baino ez da erabilgarria.
c) ChatGPTren gaitasuna RDA erabiliz MARC erregistro zehatzak sortzeko.
d) Agerian jarri da prozesu teknikoetan AA txertatzeak datu-baseetan bikoiztasun-akatsak areagotzen dituela, normalizazio-algoritmo espezifikorik ez dagoelako.

**489.- Liburutegiko erabiltzaileei AA sortzailea modu arduratsuan erabiltzen laguntzeari dagokionez, ikusita erabiltzaileek doako txatbotak nahiago dituztela azkarrak direlako, zein da IFLAk azpimarratutako kezka etikoetako bat?**

a) AAko algoritmoek liburuzain profesionalek edukiak editatzeko egiten duten lana erabat ordezteko aukera.
b) Liburutegi publikoek beren hizkuntza-eredu lokalak eskaini ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzariak mantentzeko kostu handia.
c) Egungo txatboten interfazeak lineako sarbide publikoko katalogo tradizionaletan (OPAC) integratzeko zailtasun teknikoa.
d) Erabiltzailea informazioaren kalitateaz ez jabetzea.

**490.- Zer egin behar da AA "kontsulta" moduan erabiltzen bada (informazioa bilatzeko edo ideiak sortzeko)? (EHU, 2025).**

a) Dagokion atalean aipatu behar da (metodologia, esparru teorikoa, etab.), eta elkarreragina eta erabilitako datuak deskribatu behar dira.
b) Ez da beharrezkoa aipatzea, kontsulta pribatu bat baino ez baita.
c) AA aipatu behar da testuaren azken idazketa egiteko erabiltzen bada soilik, baina ez ideiak egituratzeko edo lanaren eskema egiteko bakarrik erabiltzen bada.
d) Ez da beharrezkoa tresna aipatzea, ezta datuak egiaztatzea ere, egiazkotasunaren erantzukizuna hizkuntza-eredua garatu dutenek bakarrik baitute.

**491.- Erreferentziako elkarrizketaren teorian oinarrituta, zein da txatbotek erreferentziako zerbitzuan duten mugetako bat? (Cox, 2024).**

a) Programaziorako trebetasun aurreratuak behar dituzte nahitaez.
b) Askotan erabiltzailearen hasierako galdera ez da "benetakoa", eta txatbotek zailtasunak dituzte interakzio konplexu horri begira.
c) Metadatu bibliografikoen bolumen handiak aldi berean prozesatzeko ezintasun teknikoa.
d) Ezagutza espezializatuen baseak mantentzeko kostu handia, giza langileekin alderatuta.

**492.- Lund-en arabera (2024), liburutegi medikoen zerbitzuei begira, hauetatik zein da AAren aplikazio potentzial bat?**

a) Lotura-liburutegiko langile guztiak txat automatizatuko sistemekin ordeztea, kostu operatiboak murrizteko.
b) Osasun publikoko finantza-aurrekontuak kudeatzea.
c) Iritzi klinikoa erabat automatizatzea, giza adituek egindako berrikuspen sistematikoen beharra ordezteko ebidentzien sintesiari dagokionez.
d) Sistema adituak, hizkuntza naturalaren prozesamendua eta robotika.

**493.- Literatura zientifikoaren berrikuspen batean, zertarako da bereziki erabilgarria "Consensus" tresna?**

a) Gaiaren egungo egoeraren eta ondorioen idazketa osoa automatizatzeko, ikertzaileek esku hartu behar izanik gabe.
b) Aipamen bibliografikoak kudeatzeko eta erabiltzailearen eskuizkribuan plagio-kasuak automatikoki detektatzeko.
c) Literatura zientifikoan oinarritutako aurretiazko erantzunak lortzeko, ikerketa-galderetatik abiatuta, eta ebidentziak eta emaitzak artikuluen artean konparatzeko, bat-etortzeak eta desadostasunak identifikatzeko.
d) PRISMA estandarrei jarraituz berrikuspen sistematikoko eskuizkribuak automatikoki sortzeko, metodologia- eta eztabaida-atalaren idazketa barne.

**494.- Zer gaitasun berri jotzen dira funtsezkotzat liburuzain medikoak AAren ezarpenaren buru izan daitezen?**

a) Programazio aurreratua Python-en eta neurona-sareen arkitekturen garapena.
b) "Galderaren ingeniaritza" eta adimen artifizialeko tresnen ebaluazio kritikoa egiteko gaitasuna.
c) Maila baxuko hizkuntzen programazio aurreratua egiteko trebetasuna, hardware espezifikoen azpiegiturak garatzeko eta neurona-sare lokalen zerbitzariak fisikoki mantentzeko.
d) C++ bezalako programazio-hizkuntzak modu aurreratuan menderatzea eta errendimendu handiko zerbitzarietarako hardwarea diseinatzea.

**495.- Zein da liburuzain medikoen zeregina beren erakundeetan AAren ezarpen etikoari dagokionez?**

a) Teknologia horien erabilera gidatu behar dute, eta honako hauek sustatu: erabilera gardena, onurak eskuratzeko ekitatea eta erabiltzaileen datuen pribatutasunaren garrantziari buruzko etengabeko kontzientziazioa.
b) Ikaskuntza sakoneko algoritmoak programatzeko eta arazteko arduradun bakar gisa jardun behar dute, alborapen teknikoak desagerrarazteko hedapen klinikoaren aurretik.
c) Beren zeregina AA komertzialeko software-lizentziak harpidetzera mugatu behar da, eta erantzukizun etikoa bioetika-batzordeei eta IT sailei soilik eskuordetu behar diete.
d) Pazienteen alfabetatze digitala gainbegiratzera mugatu behar dira, AAk sortutako diagnostikoak medikuaren esku-hartzerik gabe interpretatu ahal izan ditzaten.

**496.- Zer gomendio egiten die Lane Medical Library-k liburutegien ekitaldien plangintza optimizatzeko adimen artifizialeko tresnak erabiltzeari eta aprobetxatzeari dagokionez baliabide urrien antzeko erronkei aurre egin behar dieten beste liburutegi batzuei?**

a) Hizkuntza-eredu handi (LLM) itxien lizentzia korporatiboak erosteari lehentasuna ematea, erabiltzaileen datuen segurtasuna bermatzeko, kode irekiko ereduekin esperimentatzearen ordez.
b) Soilik ekitaldi txikiak egitea, teknologia konplexurik ez erabiltzeko.
c) AAko tresnak esploratzea, plangintza-prozesu tradizionalak areagotzeko eta baliabideak maximizatzeko.
d) Sustapen-materialak asmatzeko eta idazteko fase osoa AAko agente autonomoei eskuordetzea, giza langileak ekitaldien logistika fisikoan soilik aritu daitezen.

**497.- Lund-en arabera (2024), zein da liburuzain medikoek kontsulta konplexuei erantzutean kontuan hartu behar duten ChatGPTren muga kritikoetako bat?**

a) Ereduaren egiturazko ezintasuna terminologia teknikoa MeSH estandarraren arabera (Medical Subject Headings) prozesatzeko; horrek berreskuratutako informazioaren zehaztasuna baliogabetzen du.
b) Informazio okerra eta zaharkitua emateko arriskua eta ulermen emozionalik eza.
c) Liburutegi-sistema tradizionalekin integratzeko ezintasuna.
d) Ereduak sarbide irekiko datu-baseetara (PubMed-era, adibidez) sartzeko duen murrizketa teknikoa.

**498.- Esparru teoriko bat eraikitzeko prozesuan, zein da Connected Papers bezalako tresnetan "seminal paper" bat erabiltzearen helburua?**

a) Sarreraren lehen paragrafoan aipatu behar den nahitaezko lehen mailako iturri gisa soilik erabiltzea, esparru teorikoaren garrantzia baliozkotzeko.
b) Jatorrizko artikuluaren argitaletxe edo datu-base berak argitaratu ez duen edozein artikulu ezabatzeko iragazki automatiko gisa erabiltzea.
c) Mapa bibliografikoan aurkitutako bigarren mailako iturrien irakurketa kritikoa ordezten duen adimen artifizialak sortutako laburpen bat sortzea.
d) Erlazionatutako artikuluak erreferentziazko lan batetik abiatuta identifikatzea.

**499.- Zein da liburuzain medikoek bete dezaketen zeregin nagusia ingurune klinikoan adimen artifizialeko teknologia sortzaileak ezartzen direnean?**

a) Zerbitzarien eta Hizkuntza Eredu Handiek (LLM) ospitalean etenik gabe funtziona dezaten beharrezkoa den azpiegitura fisikoaren mantentze-lanen arduradunak izatea.
b) Medikuen iritzi klinikoa ordeztea eta AAko tresnek sortutako diagnostikoak zuzenean baliozkotzea, ikuskapen gehigarririk gabe.
c) "Stress testing" gisa jardutea, tresnen mugak detektatzeko eta haien fidagarritasuna bermatzeko erabiltzea gomendatu aurretik.

d) Programazio-kodea eta beharrezko hardwarea garatzea, hizkuntza-eredu berriak hutsetik sortzeko.

**500.- Zer ekintza-bide iradokitzen zaie liburuzainei ChatGPTk osasunaren arloan sortutako informazio okerraren arriskuak arintzeko? (Lund, 2024).**

a) Informazioa egiaztatzea eta frogatutako iturri medikoekin alderatzea.
b) ChatGPTri bere barne-iturriak aipatzeko eskatzea, baliozkotzeko.
c) Osasun-liburutegiko terminalen barruan AA sortzaileko tresnetarako sarbidea mugatzea, alborapen algoritmikoak hedatzea saihesteko eta indize indexatuak soilik erabiltzen direla bermatzeko (hala nola, PubMed).
d) Hizkuntza-eredua Interneteko sarbide irekiko iturriak soilik erabil ditzan konfiguratzea, datuen doakotasunak informazio medikoaren egiazkotasuna bermatzen duela onartuta.